



# txintxarri 30 urte!

2023-12-29 OSTIRALA 1.651. ZENBAKIA  
TXINTXARRI ALDIZKARIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

**30 URTE**

**1.651 aldizKARI**

2mó 99€

erreflexuen aurkako  
betaurreko graduatuak

Kontultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/70

**MULTIÓPTICAS**

943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   

# txintxarri

*Hurrengo TXINTXARRI  
paperean urtarrilaren 12an  
argitaratuko dugu*


**2024. urtean ere zuen ondoan egongo gara gure  
herrian gertatzen denaren berri ematen!**

*2024. urte goxo eta  
bero-bero bat opa dizuegu*

*Euskaraz  
orduro  
egunero  
astero  
hilabetero  
urtero  
orain eta gero!*

# TEAKUN

# 2023. urtea



Urtarrila

4-5

Otsaila

6-7

Martxoa

8-9

Apirila

10-11

Maiatza

12-13

Ekaina

14-15

Egutegia

16-17

Uztaila

18-19

Abuztua

20

Iraila

21-23

Urria

24-26

Azaroa

27-28

Abendua

29-30



txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizagirre, Iñigo  
Gonzalez, Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**

Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux  
Artetxe, Maitane Rebe, Julen  
Basterra, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

**Banatzailleak**

Nikola Iraola, Xuban  
Urdalleta, Egoitz Epelde,  
Endika Merchan, Gorka  
Morales, Sergio Hernandez,  
Ander Hazas eta Iñigo  
García.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**Publizitatea**

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

**Egoitza nagusia**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Avenidako haragi bola ogitarteko famatua, Euskal Telebistan

Paulino Ibargoien lagunaren laguntzarekin, Avenida taberna jatetxeko jabe Yon Mikel Rodriguezek bertako plater famatuetako bat, haragi bola ogitartekoa, nola egiten duen erakutsi zuten Joseba Argiñanoren *Sukalerrian* saioan.

### Gabonetako V. Aretotako Txapelketan ederki gozatu zuten gaztetxoak

Michelin kirol guneko zein Maialen Chourraut kiroldegiko areto futbol pistan ere giro ederra izan zen azken Gabonetan. Hiru mailan banaturik –benjamin, alebin eta infantil– hamasei talde finalean egoteko lehiatu ziren eta urtarrilaren 7an, larunbatarekin erabaki ziren txapelketak. Lehia estua izan ikusi ahal izan zuten harmailak bete zituzten ikusleek.

### Lasarte-Oriatarrek agurtzera etorri ziren Errege Magoak

Meltxor, Gaspar eta Baltasarri harrera beroa egin zioten lasarte-Oriatarrek. Arratsaldean, Oriatik barrena, herri kaskora iritsi ziren, eta Okendo plazan egin zuten agur nagusia. Etenik gabe bota zituzten goxokiak ibilbide osoan zehar, eta pozarren agurtu, euren zain zeuden haur, gazte eta helduak. Goizean, pajee haurren eskutitzak jaso zituzten Okendo plazan eta hiru erregeak Atsotakar egoitzako egoiliarrei bisita egin zieten. Eguerdian, berriz, Errege Magoek haurrei harrera egin zieten Ama Brigitarren komentuan.



Errege Magoak, Kale Nagusian. TXINTXARRI

### Michelin lantegiko hauteskunde sindikalak irabazi zituen LABek

LABek "inoizko emaitza onenak" izan zituen Michelin lantegian egindako hauteskundeetan; sei

ordezkari. Sindikatu horretako ordezkariak adierazi zuten "oso pozik" zeudela jasotako babesarekin: "Langileriak bizi duen egoera zail honetan, sindikalginza aldarrikatzailea horren modu zabalean gorpuzten duen LABen alde egin izanak bide berdinetik sakontzeko arrazoiak ematen dizkigu".

### Bazterturiko ahotsen mosaikoa osatu zuten Oriako kaperan

Harresi Guztien Gaietik taldeak XII. Errezitaldia aurrera eramane zuten Karmengo Amaren kaperan. Zenbait diziplina artistikoren bidez bazterturiko ahotsen mosaikoa osatu zuten. Bizipenak, musika, dantza eta ikus-entzunezkoak josi zituzten giro intimoan.

### Buruntzaldea IKT, bikain Hernani Sarian

Hernaniko 24. Saria lehiatu zuten Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek. Hernani, Taosa, Zarautz eta Fortuna taldeetako igerilarien aurka izan ziren nor baino nor taldeko kideak, primeran aritu ziren igerian eta horren erakusle Garazi Etxeberriak irabazitako txapela, neskek taldeak eskuratutako garaikurra, zazpi domina eta hamar marka pertsonal berri izan ziren.

### Lasarte-Oriako atletak, Gipuzkoako txapelketako podiumean

Gipuzkoako pistako txapelketan lehiatu eta bost domina jantzi zituzten Lasarte-Oriako atletak: urrezko bat eta zilarrezko bost. Donostiako Antonio Elortza belodromoan pista estaliko Bizkaiko zein Gipuzkoako txapelketak lehiatu dira. Ostadar Atletismo saileko Naroa Furundarena, Oihana Igarritz eta Oinatz Almagro, Real Societateko kide Yeray Veroniz zein Aloña Mendiko Jon Presa. Lasarte-Oriako bost atleta horiek euren probetako podiumetan izan dira.

### Hobe elikatu, hobe bizitzeko

Zabaletako auzo elkarrekin sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa antolatu zuen. Gorka Gereño sukaldariak elikadura mota honi buruzko azalpenak eman zizkien, eta zenbait plater prestatzen irakatsi ere.

### Lasarte-Oria, zuri

Neguko eguraldiak bete-betean harrapatu gintuen urtarril er-

dialdean. Prezipitazio iraunkorren erregatik abisu horia ezarri zuten, eta kazkabar erauntsi batek zuri-zuri utzi zituen herriko espalo, errepede, parke, zelai eta gainerakoak. Irristatu eta lurrera erortzeko arriskuaz gain, beste eragozpenik ez zuten ekarri denboraleak gurera.

### Jubenil mailako bikotea, Trinketeko txapeldun

Intza Pilota Elkarteko jubentilek Trinketeko garaikurra jaso zuten. Diaz de Gereñu eta Urdanpilleta jubentile bikoteak Gazteleku izan zuten aurrez aurre Gipuzkoako txapelketako finalean. Irurako Ametsa trinketea, herritarrek 21-40 nagusitu ziren.

### Eguraldi txarrari, danborren hotsa

San Sebastian bezpera ospatu zuten herriko ikastetxeek. Eguraldi zakarrak ez zuten hoztu ikasle eta irakasleen animoa, eta gogotik astindu zituzten danborrak. Anfiteatroan edo gimnasioan dotore kantzita, Sarriegiren doinuaren erritmora aritu ziren herriko ikastetxeetako ikasleak.



Ederki jo zuten haurrek. TXINTXARRI

### Eman eta jasotzearen magia

TrukeLandia izeneko egitasmoa aurkeztu zuten Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak, GurasoLandia programan parte hartzen ari diren guraso eta haurren artean. Magia eta kolorez betetako ekitaldia izan zen.

### Egoitza berriaren atea zabaltu zituen ELOP Lasarte-Oriak

Bederatzigarren urteurrena ospatzeko, Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiak lokala inauguratu zuen. Miguel Angel Toloza alkategaiak alboan izan zituen Gipuzkoako ahaldu nagusi Miren Echeveste eta Es-



Kirol eremuaren proiektuaren irudi bat. TXINTXARRI

## Kirol eremuko lanak adjudikatzea

Urtarrileko ohiko saioa egin zuten udal korporazioak. Atsotakarren egingo duten kirol eremuko lanak eta Basaundi bailarako etxebizitzaren birgaitzerako dirulaguntzak landu zituzten, besteak beste. Construcciones Mariezkurrena SL eta Construcciones Zubieder SL enpresek osatzen duten ABEEak (Aldi Baterako Enpresa Elkarte) aurrera eramango zituen Atsotakarreko kirol instalazioen lanak, udalbatzarrak hala erabakita.

painiako Kongresuko diputatu Pilar Garrido, baita alderdiko zenbait militate eta beste udal ordezkari batzuk ere.

### Real Societatek ezin izan zuten Bartzelona garaitu Superkopako finalean

Iraia Iparragirre kide duen Real Sociedad eta Bartzelona aurkari izan ziren Superkopako finalean. Natalia Arroyok zuzentzen duen talde txuri-urdinak ederki egin zion aurre Bartzelonari. Alabaina, kataluniarrek ongi baliatu zituzten erasoan sortutako aukerak eta 0-3 gailendu ziren.

### 'Bretxa 1813, Donostiako sutea' ikuskizunean parte hartu zuten LOZETek

*Bretxa 1813, Donostiako sutea* ikuskizunak Donostiako Victoria Eugenia Antzokia hartu zuen eta bertan parte hartu zuten Lasarte-Oriako Zezensuzko eta Erraldoi Taldeko hainbat kidek; zortzik zehatz-mehatz.

### Miss Grand Euskadi-n lehiatu zuten Aroa Sancho lasarte-Oriatarra

Lasarte-Oriak ordezkari izan zuten Bilbon ospatuko zen Miss Grand Euskadi edertasun lehiaketan. Aroa Sancho Palomares herritar gazteak parte hartu zuen bertan, eta gisa horretako txapelketa batean arituko den lehen aldia izanagatik, "urduri, baina ilusioz" zegoen.

### Juan Bereziartua hil zen

Urte luze makina bat ikasle etxetik Landaberrira eta ikastetxetik etxera bueltan eramane zuten Juan Bereziartua txoferra zendu zen, 88 urte zituela. Lasarte-Oriako euskalgintzan ere gogotik aritu zen, Solaskide programan eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako hainbat jardueratan, besteak beste, San Tomas azokako gaztainak prestatzen.



Bereziartua, autobusean. TXINTXARRI

### Naroa Furundarena, luzera jauziko zein jauzi hirukoitzeko Euskadiko txapelkun

Donostiako Antonio Elortza belodromoan jokatu zen Euskadiko txapelketa. Ostadar Atletismoko Naroa Furundarenak luzera jauziko zein hirukoitzeko urrezko domina jantzi zuen. Furundarenaz gain, Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek ere zilarrezkoa eskuratu zuen 60 m. lasterketan. Ostadarreko Oinatz Almagro eta Aiala Ramos kideak ere jauzi hirukotzeko finalean izan ziren lehian.



Furundarena, dominarekin. TXINTXARRI

### Lasarte-Oriako Energia Komunitatea

Lasarte-Oriako Energia Komunitatea aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Udalak. Egitasmoaren berri emateko lau hitzaldi antolatatu zituzten Manuel Lekuona kultur etxean. Lehenean Agustin Valdivia alkatea eta Gipuzkoako Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensio, baita Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzako sailburuorde, Miguel de los Toyos eta Edinor-eko kontseilari ordezkari, Juan Diego. Horiez gain, auzoz auzoko bilkurak informatiboak ere izan ziren. Herriarrek otsaila amaiera arte izan zuten

## Lasarte-Oriaren jardunaren lekuko

"Dedikazio handiko lana" aurrera eramán du Txema Valles herritarrek ia 40 urtez: Lasarte-Oriaren egunerokoaren bozgorailu izatea, hitz eta argazkien bitartez 39 urte erdi eta gero, atsedean hartzeko unea heldu zaio: iragan urteko abenduaren 30a izan zen bere azken laneguna. *El Diario Vasco* egunkarian kronikak argitaratzeari utzi badio ere, ez zaio lanik falta: bere bulegoko beheko pisuan gordetzen duen artxibo historikoa lasarteoriarrei nola erakutsi pentsatzen ari da. Elkarrizketatzaile izatetik elkarrizketatua izatera igaro zen Txema urtarrilean, eta ederki moldatu zen.



Txema Valles, bere bulegoan. TXINTXARRI

komunitatean izena emateko aukera.

### Zabor luizia eta pandemia, dena bat

Axut! eta Artedrama konpainiek *Hondamendia* antzezlanean emanaldia egin zuten. Zaldibarko zabortegiaren ezbeharrak eta Covid-aren pandemia lotzen ditu Harkaitz Cano lasarteoriarrek idatzi eta Ximon Fuschek zuzendutako obrak. Canorekin solasaldia izan genuen.

### Taula Xake Klubak garaipena erdietsi zuen Ligako lehen hitzordueta

Taula Xake Klubak Ligari hasiera ederra eman zion; Bidasoa Xake E taldea 3-1 garaituta sailkapeneko seigarren postura igo zen, hiru puntu lortuta. Txapelketako bigarren jardunaldian, Irungo taldea izan zen lehen bisitaria Lasarte-Orian eta gaztetasuna eta esperientzia batzen dituen laukoa ekarri zuen lehiara. Sanchezek izan ezik, herriko jokalariek Bidasoakoak gainditu zituzten.

### 'Komertzio txiki, herri handi' publizitate produktu berria TXINTXARRI-n

Urte berria hasi eta publizitate proposamen berri bat aurkeztu genuen. *Komertzio txiki, herri handi* deitu diogu proiektu berriari, herriko komertzio txikiek egiten baitute Lasarte-Oria handi. 2023a urte berezia izan da guretzat, 30 urte bete ditugulako.

### Iñurri, saria eta abestia

*Argia* aldizkariak 2022. urteko sariak banatu zituen Usurbilgo Atxega jauregian. Julene Illarrendi eta Miren Cuerdo lasarteoriarrek sortutako Izan Iñurri egitasmoak irabazi zuen entzuzko kategoriako, (*Min*)bizi podcastagatik. "Feminismotik eta elkartasunetik, deserosoak diren tabuei naturaltasunez heltzen dietelako eman diegu saria", arrazoitu zuten antolatzaileek.

Eta Bizipoza elkartearen *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoaren hirugarren eta azken alean ere izan zuten bere kanta. 11 elkarteren hamabina abesti eta

bideoklip jaso zituzten CD eta DVD formatuetan. Izan Iñurriena zen horietako bat, Julene Illarrendi eta Miren Cuerdo herritarrek sortutako egitasmoarena. (*Min*)bizi izena du haien jarduna kontatzen duen abestiak; Oihana Iguaranenak dira hitzak, eta doinuak, Idoia Asurmendirenak.



Iñurriko kideak, sariarekin. TXINTXARRI

### Irudi berria, asmo bera

Lasarte-Oria Sarek eta Etxerategi urteko lehen Azken Ostirala egin

zuten, baita herri mugimenduak abiatu zuen aro berriko lehena ere. *Etxera bidea gertu* leloa eta ikur berria aurkeztu zituzten. Euskal Herriratzeko xedea erdietsita, helburua etxeratzea da, orain.

### Intza Alkain herritarra, 'Kanpora sartzen' antzezlanean

"*Kanpora sartzen* hemen da!" esaldiarekin iragarri zuen Txalo Produksioak konpainiak oholzaratuko zuen lan berria. Aitziber Garmendia da zuzendaria, eta aktoreak, Xabin Fernandez eta Intza Alkain lasarteoriarra. Instagram sare sozialean egin zuten argitalpenean antzeman zitekeenez, HIESari buruz hausnartzen dute antzezlanean.



Antzezlanean afixa. TXALO PRO.

### Hauteskunde programa herritarrekin batera prestatu nahi zuela iragarri zuen PSE-EEK


Parte hartze prozesu bat abiatu zuen Lasarte-Oriako PSE-EEK, 2023-2027 legealdirako neurri sorta lasarteoriarrekin batera prestatzeko. Eskuorri bat banatuko zuen herritarren etxeetan, eta otsailean zehar auzoz auzo karpa bat jarriko zuela iragarri zuen.




2024 zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuitu ibilbidea, 12 20160 • LASARTE-ORIA  
Tel. 943-37 14 40 Mugikorra: 608 39 18 85  
carroceriaslasarte@carroceriaslasarte.com

# Carrocerías Lasarte Karrozeria



Trebeak gara kolpe handiak konpontzen



- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

### Hondarribia fin denboraldiaurreko lehen hitzorduetan

Traineru denboraldia udan hasten den arren, eskifaia ezberdinak neguan hasten dira lanean lehiaketarako prest egoteko. Bidean indarrak neurtzeko aukera dute hainbat lehiaketetan. Lehena Portugaleteko San Nikolas traineru jaitsiera izan zen. Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribiak hirugarren postua eskuratu zuen. Bigarrena Julian Enrikeren oroimenezko XIV. traineru jaitsiera izan zen eta Nerbioi ibaiko uretan bigarren sailkatu zen Ama Guadalupekoa.

### Kaldereraz mozorrotu ziren Garaikoetxean eta Landaberrin

Santa Ageda bezperaren eguna asteburuan erortzen denetan, Garaikoetxea Landaberri eta Landaberri ikastetxeetan kaldereroen eguna ospatzen dute, inauterien atari gisa. Dotore-dotore jantzi eta nekatu arte kolpatu zituzten zartagin, lapiko, katilu eta bestelakoak.

### Eztarriz sano dabilta eta kantatu zuten gogoz

Sasoeta ikastetxeko haurrek hasitako bideari jarraituz, Santa eskean aritu ziren herriko zenbait eragile. Santa Ageda bezpera ospatu zuten Zabaletako bizilagunek auzoan; erdialdean, berriz, Erketz Dantza Taldeko kideek eta Xumela korukoek, txistulariek lagunduta. Makilei indartsu eragin zieten eta ahotsak ez ziren hutsik egin.



Oaintxe in deu! txaranga. TXINTXARRI

### Imanol Jimenez omendu zuen Oaintxe in deu! txarangak

Santa Ageda koplen ondoren, Zabaleta Auzolan bizilagun elkartek antolatuta, bazkaria egin zuten Otegi sagardotegian. Hori girotzeko ardura Oaintxe in deu! txarangak izan zuen eta kide zuten Ima-

nol Jimenez auzokideari omenaldia egiteko baliatu zuten aukera aurten ere. Santa eskean ibilitakoekin bat egin zuten Otegin, eta elkarrekin aritu ziren. Gainera, txaranga sortutako abesti bati hitzak jarri zizkioten eta estreina-koz jo zuten sagardotegian zeudenei banatu, eta abesteko eskatuta.

### LOKEren tenis jokalaria, Eskolarteko txapelketako lehen postuetan

Lasarte-Oria Kirol Elkartearen (LOKE) tenis saileko kideek bakarkako Eskolarteko txapelketako finaleran izan ziren lehian. Gabriele Fernandorena Yurritak infantil mailan igo zen podiumeko lehen mailara. Siria Delgado Negueruela alebinak eta Unax Urdampilleta Murugarren kade-teak aldiz euren mailako bigarren postua erdietsi zuten.

### Buruntzaldea IKTren igerilariak, bikain Gipuzkoako txapelketan

Buruntzaldea IKTren infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten Bergarako Agorrosin igerilekuan. Taldeko hamabi kidek sailkapen orokorreko hirugarren postua, bost urre, zilar bat eta bi brontze eskuratu zituzten. Junior nesken erreleboa ere podiumean izan zen. Era berean, markak ondu eta Espainiako Udako txapelketarako zein Euskal Herriko Neguko txapelketarako gutxieneko berriak erdietsi zituzten.



Furundarena, podiumean. TXINTXARRI

### Naroa Furundarena, 23 urtez azpiko Espainiako txapelidun

Ostadar SKTko Naroa Furundarena atleta Antequeran, Malagan egindako 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartu zuen. Bi probatetako finaleran izan zen herritarra: luzera jauzian eta jauzi hirukoitzean. Azken horretan jantzi zuen urrezko domina.

### CIMASUBeko lanez gozatu zuen herriak

CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloa izan zen aurten ere Manuel Lekuona Kultur Etxean. Txikizikloak eman zion hasiera eta Sasoeta nahiz Landaberri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten. Hilaren 14an, herritarrak izan ziren protagonista. Egitasmoaren zuzendari David Sanchezek bi herritar gazte gonbidatu zituen oholtzara: Oihan Rufo eta Gorka Cuadrado: *Un lugar en el mundo* eta *Un mismo sueño* film laburretako protagonistak izan dira, hurrenez hurren.

### Maskararik ez garraio publikoan

Indarreanda Espainiako Ministroen Kontseiluak sinatutako akordioaren arabera herritarreke zuten zertan maskara jantzi beharko garraio publikoa erabiltzerakoan. Halaber, optika eta ortopedietan ez zen derrigorrezkoa izango, baina osasun zentro, farmazia eta ospitaleetan, oraindik bai.

### Patxi Larrañaga harategia, TVE 1 telebista katean

Patxi Larrañaga harategiko kideek TVE 1 telebista katean erakutsi zuten nola egiten dituzten txistorra bezalako produktu goxoak, *Aquí la tierra* saioan.

### Eduardo Mujikak irabazi zuen 1.500 euroko saria

Ogiarekin bete zuen poltsa, eta Eguberrietako sariarekin Patrika Eduardo Mujika herritarrak. Ogi Berri okindegiak urtero bezeroen artean zozketatzen dituen 1.500 euroak jaso zituen.

### EH Bilduk zerrendako lehenengo zortzi kideak iragarri zituen

Esti Garmendia Arrietak, Lasarte-Oriako EH Bilduren alkategaiak aurkeztu zituen udal hauteskundeetarako lantaldea osatuko duten gainerako kideak. Lantaldea aurkezteaz gain, Lasarte-Oria EH Bilduren hauteskunde programa lantzen aritu zen Herri Batzarra.

### Lau garbigune txiki jarri zituen udalak

Basaundi eta Zabaleta auzoetan, Ola kalean eta Hipodromo etorbidean garbigune txikiak jarri zituen udalak. Horiengan pilak, CDak, tinta tonerrak, bonbillak, tresna elektronikoen bateriak eta sakelako telefonoak utzi ditzaizkien herritarrek.



Txantxoak, Kale Nagusian dantzan, beste pertsonaiekin batera. TXINTXARRI

## Kalteetatik babestu zuten herria

Tradizioa eta eguraldia eskutik helduta aritu ziren Euskal Inauterien egunean. Zubietatik hasi eta Lasarte-Oriara, txantxo kuadrilla kalejiran aterata zen, hartza eta mamoxarroekin batera. Geldialdi ugari egin zituzten bidean; Plaza Dantza lagunek gidatutako pausoekin girotu zituzten kaleak. Okondora iristean, ohi bezala, senidetzea egin zuten datorren urtean bakea eta oparotasuna izatearen truke. Akordioa erdietsita, azken hilabeteetan pairatutako kalamitate eta gaitzen erruduntzat jo zuten Kaxkamalougarretan erraustu zuten. Herria babestuta, dantza pixka bat gehiago egin zuten.

### Irakurleen mezan, bertsolariak idazle

Berrituta iritsi zen Irakurle Txokoaren bertso saio literarioa aurten Xirimiri elkartera. Izan ere, zortzigarren aldi honetan, berridatzi egin baitzuten aurrekoek izandako moldea. Batetik, gaua utzi, eta bazkalostera ekarri zuten; bestetik, Uxue Alberdik egitekoa aldatu, eta gai jartzaile aritu zen, bertsoak asmatzeko zeregina Ane Labakari eta Alaia Martini utzita; eta gainera, Iban Urizar musikaria lagun izan zuten. Ezinbestean aldagaitz mantendu zena bertaratutakoan gozomana izan zen.



Alberdik, predikatzaila lanetan. TXINTXARRI

### Kultur etxea eraberritzeko lanak hasi zituzten

Kultur etxea eraberritzeko lehen faseari ekin zion udalak. Eraikineren egungo estalkia ordezkatzeko lanak hasi ziren eta horrekin batera, auditoriotik

agertokira sartzeko igogailu bat instalatuko zutela ere jakitera eman zuen.

### Maialen Chourraut herritarrak, Legenda saria

38. Piraguismo Nazionalaren gala egin zuten Madrilan. Espainiako Piraguismo Federazioak 2022. urteko kirolari onenen jarduna saritzeaz gain, besteak beste, Legenda sariak banatu zituzten. Maialen Chourraut herritarrak Teresa Portela eta Saul Craviotto kirolariekin batera jaso zuen saria. Garaikurra ematerakoan euren kirol ibilbidea, egun lehian egotea eta etorkizuneko piraguistentzat adibide izatea nabarmendu zuen federazioak.

### Ostadarreko atletak, Gipuzkoako txapelketako podiumean

18 eta 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa lehiatu zen Antonio Elortza belodromoan eta lehenean Ostadar Atletismo taldeko 11 kide izan ziren lehian. Hiruk 18 urtez azpiko mailako podiumetan egotea lortu zuten. 60 m. lasterketan Iraia Alcortak eraman zuen sari garaiena, urrezko domina eta Alex Alkainek, aldiz, zilarrezkoa. Eta Oinatz Almagro bigarren mailara igo zen jauzi hirukoitzea eta luzera jauzi probetan.

### Jon Antxordoki EAJ-PNVren alkategaia, bigarrenez

Lasarte-Oriako EAJ-PNVk iragarri zuen nor izango zen maiatzeko udal hauteskundeetarako

alkategaia: Jon Antxordoki. "2015ean hasi zen herrigintzan, udaleko Euskara batzordeburua eta EAJ-PNVren bozeramailea eta egun udaletxean. Alor pribatua nahiz publikoan eskarmentu handia du". Lasarte-Oriako Batzokiko lehendakari den Estitxu Alkortarekin batera aurkeztu zuen bere hautagaitza.



Antxordoki, aurkezpenean. TXINTXARRI

### Herriko birziklatze tasa haztea helburu

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi zuen herriko birziklatze tasa handitzeko xedez, hondakin organikoaren edukiontzia bezala, errefusarenak ere txartel bidez erabiliko zituztela herritarrek. Etxez etxe banatu zituzten bi edukiontzi horiek erabiltzea ahalbidetuko duten txartelak, eta baita material gehiago ere.

**Ukrainako herritarrak gogoan** EUDEL Euskadiko Udalen Elkarrearen deiar erantzunda, udal korporazioko zenbait kide eta herritar elkartzeko Okendo plazan, bost minutuko isilunea egiteko. Errusia eta Ukrainaren arteko gerrako biktimak eta herritar ukrainiarrak gogoan izan zituzten eta elkartasuna adierazi zieten.

## Izarrez beteriko castinga Lasarte-Orian

Ikastetxeetako gazteok eman zioten hasiera Inauterietako asteburuari. Pelikulak, Lantzeko inauteria edo gelan landutako gaiak izan zituzten oinarri kolorez eta erritmoz betetako ikuskizunak aurkezteko. Oriarte Institutuan ere ederki ospatu zituzten Inauteriak eta guztia korolorez bete zuten.

Ostiralean gazteetako hainbat ekimen izan ziren. Larunbatean morrozoek eta musikaz bete ziren herriko kaleak. Hala nola, mozorro lehiaketa edo konpartsen dantzak eta asribanaketa izan ziren.



Desfile koloretsutik sardinen ehorzketara. Ez zen aspertzeko astirik izan. TXINTXARRI



Igandean kale jira koloretsua egin zuten LOZETeko erraldoi eta buruhandiek. Puzgarri eta jolasetan gozatzu igaro dute Inauteri

astelehen goiza etxeko txikiak eta arratsaldean sardinen ehorzketarekin eman zitzaizaien amaiera 2023ko Inauteriei.

### Erribera kaleko etxabeak berritzeko lanak adjudikatzea

Erribera kaleko etxabeak berritzeko lanak, Campezo Obras y Servicios SA eta Jaizubia Obras y Servicios SA enpresek aurrera eramango zituztela onartu zuen korporazioak. Ezohiko bilkuran aho batez onartu zuten kideek, eta baita mahaigaineratu ere.

### Txokolatea, ikerketa bultzatzeko

Lasarte-Oriako boluntario talde batek, Semblante Andaluz elkarrekin eta udalak lagunduta, haur minbiziaren aurkako ikerketaren aldeko txokolate jate solidarioa antolatu zuten. Ekimena burutzen duten bosgarren urtea da: euro baten truke, neguko hotzari aurre egiteko txokolate beroa edo bi bizkotxo. Lasarteoriatar askok hartu zuten eta ezeren truke dirua eman zuenik ere izan zen.

### Oroitzak eta aldarrikapena, Dispersioaren Egunean

Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak *Zuen indarrak argi*

*egiten du guran* leloaren inguruan antolatutako egun osoko egitarauaren bidez, euskal presoen ezarritako dispersio politika "hiltzailea" dela salatzearekin batera, Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi gogoratu zituzten. Ohitura bilakatu den Teresategiko oroitarria mendi martxarekin hasi zuten eguna, bi zutabetan abiatuta, Okendotik eta Zabaletatik. Omenaldi xumea egin eta plazara bueltan, talde argazkia



Teresategiko oroitarrian ekitaldia. TXINTXARRI

atera zuten 20 urte Argi eta Iñaki gogoan. *Dispersioa hiltzailea* zioen pankarta atzean jarrita. Xirimirin barrikoteaz eta arratsaldean, Okendo plazan musikaz gozatu zuten, aldarrikapenerako tarte ere izan zen. Urtetan dispersioaren ondorioz milaka kilometro egin behar izan dituztenak izan zituzten gogoan.

### Ostadar SKTKo atletak, lehen postuetan

Absolutu mailako Espainiako txapelketan Naroa Furundarenak bosgarren postua eskuratu zuen, eta 16, 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan, Alex Alkain gazteak 60 m. lasterketako brontzeko domina jantzi zuen.

### LOKEko jubenilek, hirugarren postua Ermuan

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastikako jubenilak Ermua Hiria I. Torneoko podiumean izan ziren. Euskal Erkidegoko jubenil B mailako zortzi talde izan ziren aurrez aurre lehiaketan. Lasarte-Oriako gim-

nastek mazoekin egin zuten lan eta brontzeko domina eskuratu zuten.

### Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazi zioten

Giroa hotz, eta bihotza bero. Dozena pare bat herritar Okendo plazan elkartzeko, Mendebaldeko Saharari eta bertan bizi diren herritarrei elkartasuna eta berotasuna helarazteko, Saharar Errepublikako Arabiar Demokratikoa eratu zela 47 urte bete ziren egunean.

### Ateak zabaltu zituen Kontsumitzailearen Informazio Udal Bulegoak

Herritarrek berriz ere KIUB Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegora joateko aukera izango zuten. Bulegoak ateak zabaltu zituen berriz, ia hiru urteko etenaldiaren ostean.

### 100 urte bete zituen Justa Manchado Herrero herritarrak

Egun berezia izan zen Justa Manchado Herrero herritarrarentzat, 100 urte bete zituen. Senide eta lagunen zorion agurrez gain, Lasarte-Oriako udal ordezkariak ere jaso zituen. Pozik eta eskertuta agertu zen herritarra.

### Jon Presa garaile, Arrigorriagako Herri krosean

Arrigorriagako Herri krosean Lasarte-Oriako korrikalari bat izan zen podiumeko gorenean, Jon Presa. Lasarteoriatarra 11,5 kilometroko proban nagusi izan zen. Antzuolako 8 Miliak proban Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko (LOTME) Mertxe Casasek baterano mailako 2. postua eskuratu zuen 14 kilometroko bidean eta Nafarroako Oibarreko herrian egiten den trailean taldekide Ines Aguado baterano mailako hirugarren izan zen.

Urte berri on!

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

600 85 75 86

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

**Gabonetako eskaintzak ditugu! ZATOZI!**

EDALONTZIDUN IRABIAGAILUA



ESKUKO IRABIAGAILUA



ILE LEHORGAILUA



UR POLTSA TERMIKO




ESPRESSO KAFE-MAKINA (kapsula eta kafearekin)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

**Alejandro Romo hil zen**

Alejandro Romo lasarteoriatarra 96 urte zituela hil zen. Herrian oso ezagun eta maitatua, urtetan lan izugarria egin zuen herriko eragile eta elkarre ugariri laguntzeko: sanpedroetako buruhandiak, Zabaletako festetako ikur Teresa sorgina, Danok Kideren jaiotza erraldoia, Kukuka eskola-koentzat dekoratu eta bestelakoak... Artisau fina izan zen Romo, beti laguntzeko prest.



Alejandro Romo. TXINTXARRI

**Hauteskundeetarako hautagaien zerrenda aurkeztu zuten Lasarte-Oriako PSE-EEK**

Agustin Valdivia PSE-EEko alkatagaiak aurkeztu zuen alderdiko zerrenda, "gaitasuna eta esperientzia" batzen zuela nabarmendu zuen. Zortzina emakume eta gizonengan konfiantza osoa zuela ere aitortu zuen.

**Ekimenak Andaluza Eguna ospatzeko**

Ohorezko toparekin Andaluza Eguneko ospakizunei hasiera eman odoren, martxoko lehen iganderako utzi zituzten ekimen nagusiak Semblante Andaluz elkarteko kideek. Meza, bazkaria eta musika izan zituzten horretarako bide.

**Mende erdia ospatu zuen Sasoeta tabernak**

Sasoeta tabernak mende erdia urratu du aurtun, eta hori ospatzeko, Gloria Estebani omenaldia egin zioten zenbait herrikide eta lagunak. Estebanek eta Marcelino Fernandez senarrak, duela hilabete gutxi hildakoa, izan ziren 1973an negozioa abiatu zutenak, eta egun, Jorge semea da barra atzean lanean dabilena.

**Ikusmina piztu zuen Takefusa Kubo jokalariaen bisitak**

Ohikoak baino ilara nabarmen luzeagoak izan ziren SuperBM

supermerkatuan. Realeko zaleen iritiz, otsaileko jokalaria onena Takefusa Kubo izan zen, eta ekitaldi bat egin zuten hori iragaritzeko. Ostein, futbolari japoniarrek bertaratu zirenekin argazkiak ateratu zituen eta autografoak sinatu zituzten.

**'Ainarak' ikus-entzunezkoarekin hasi zen Euskal Dokumentalen Zikloa**

Okendo Zinema Taldeko kideek Euskal Dokumentalen Zikloa antolatu zuten aurtun; hiru garren aldia izan da. *Ainarak* ikus-entzunezkoarekin ekin zieten proiektioei. Beste lanekin osatu zuten egitaraua: *Kwartk Valley, Izaro, 918 gau, Zumiriki* eta *Los Xey*.

**Gorroto mezuak gaitzetsiz**

Oriarte Larrekoetxe institutuko horma morean agertutako "gorroto mezuz jositako" pintaketak gaitzesteko elkarretaratzea egin zuten Okendo plazan Ikama ikasle antolakundeak deituta. Dozenaka lagunak egin zuten ekintzan. Institutuen halako gertakari bat izan den hirugarren aldia da. Bertan ere mobilizazio bat aurrera eramane zuten patioan.



Elkarretaratzea. TXINTXARRI

**Artisten katalogo bat eratu zuten udalak**

Edozein diziplina artistikotan aritzen diren herritarren datuak jaso, eguneratu eta katalogo batean bildu nahi zituela iragarri zuten Lasarte-Oriako Udalak, helburu honekin: herritarrekin nahiz eragileekin partekatzea, jarduerak antolatzerakoan datu base hori erabil dezaten. Apirilera arte zegoen epea izena emateko.

**Etokizuneko xake jokalaria fin lehiatu ziren**

Lasarte-Oria, Andoain, Villabona, Hernani eta Urnietako xake

jokalari gazteek Danok Kideren Blas de Lezoko lokala bete zuten. Eskolarteko banakako Gipuzkoako txapelketako sailkapen saioa jokatu zen Lasarte-Orian.

**Urdanpilleta, Trinketeko banakako txapelkun orde**

Intza Pilota Elkarteko kideek hitzordu ezberdinak izan zituzten. Horien artean, jubenil mailako banakako Trinkete txapelketako finala izan zen. Ez zen posible izan, Intzako kide Peru Urdanpilletak ezin izan zituen aurtengo trinketeko bi tituluak lortu. Urtarrilean bikotekakoa eskuratu zuten arren, banakakoak ihes egin zion: Hernaniko Manteola 35-12 gailendu zen.

**LOKEko judoek, dominak Gipuzkoako txapelketetan**

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko Judo saileko kideek infantil mailako eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatu zituzten Errenterian. Infantil kategorian Anne Linazasoro txapelkunorde izan zen eta Iraia Diezek, berriz, brontzezko domina lortzeko borroka gaintu zuen. Iker Izquierdo kadeteak lortu zuen asteburuko hirugarren domina. Bere mailako hirugarren postua eskuratu zuen.

**Aitor Mansok 2022ko mendiigoeren sari nagusia jaso zuen**

Euskadiko automobilismo zaleak Azkoitiako Baztartxo antzokian bildu ziren Euskadiko Automobilismo Federazioak antolatutako 2022. urteko txapelketetako saribanaketan. Aitor Manso herritarra. Lasarte-Oriako gidari gazteak mendi igoera lehiaketako sari nagusia jaso zuen, baita 8. mailako garaikurra ere.

**Buruntzaldea IKTKo igerilariak, dominak eta Espainiako errekorrak**

Buruntzaldea IKTKo igerilariak hainbat lehiaketa izan zituzten hilabetearen zehar. Absoluto eta junior mailako Neguko Euskal Herriko txapelketan Iruñean, June Lopez, Garazi Etxeberria, Iker Gorostegui eta Miren Sarobe taldekideek parte hartu zuten hainbat probetan emaitza onak lortuz; 11 marka pertsonal egiteaz gain, junior mailako bi brontze jantzi zituen Garazi Etxeberriak. Nahia Zudaire taldekideak, berriz, Citi Para Swimming World Series proban eta Igeriketa egokitutako Erkidego Arteko Espainiako

Txapelketan bere markak eta Espainiako S8 mailako errekorrak ondu zituen tximeleta estiloko proba motzean eta estilo libreko 100 m. eta 200 m. probetan.

**Alkorta eta Alkain, ederki 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan**

Ostadar SKTKo Alex Alkain eta Iraia Alkorta atleta gazteak Salamancan jokatu zen 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartu zuten. Biak 60 metroko lasterketako proban lehiatu ziren eta Alkainek finalerdietan egotea lortu zuen.

**Taula Xake Kluba, 3. mailako Gipuzkoako txapelkunorde**

Lasarte-Oriako Taula Xake Kluba 3. mailako bigarren postuan amaitu zuen Liga. Hondarribia Marlaxka D 0-4 garaitu zuen herriko taldeak azken jardunaldian. Horri esker, maila igoera ere eskuratu zuen Lasarte-Oriako xake taldeak.

**Erra! Bertso Eskolako bost ikasleek Eskolarteko Txapelketan parte hartu zuten**

Aratz Ramos, Maddi Lasa, Oihan Navarro, Nikola Iraola eta Xuban Urdalleta Erra! Bertso Eskolako kideek Eskolarteko Txapelketan lehiatu zuten. Aurreneko biek hilaren 17ko kanporaketa jokatu zuten, Zarauzko Urpekoak elkartean, eta beste hiruek, 31koa, Amezketa Zazpi Iturri elkartean. Lehiaketak lau kanporaketa izan zituen, bertso afari formatuok.



Sagasti, podiumean. TXINTXARRI

**Asier Sagasti podiumeko gorenera igo zen beteterano kopan**

Beteranoen mailako Espainiako Kopako hitzorduan, Villaviciosa de Odonen, Madrilan Lasarte-Oria Kirol Elkarteko Asier Sagasti judokak domina jantzi zuen M1

mailan. Herritarra M1-M2 kategoriako 100 kilo azpiko lehiaketa parte hartu zuen eta hiru borroka egin zituen. Lehiaketa hirugarren sailkatu arren, M1 mailako txapelkunorde izan zen eta urrezko domina eskuratu zuen kirolariak.

**Presa eta Goenaga, Udaberri lasterketako podiumean**

XIX. Udaberri lasterketako 1.200 bat lasterkari bildu zituen Donostiako EHUko kanpusean. Lasarte-Oriako 46 ordezkari izan ziren lehiaketa eta bik podiuma zapaldu zuten. Presa hirugarren sailkatu zuen eta Julen Goenagak EHUko lehen ikaslea izateagatik lortu zuen garaikurra.

**Xuban Urdalleta, Joko Garbiko Gipuzkoako txapelkunorde**

Joko Garbiko Gipuzkoako txapelketan jubenil mailako finalen Zubietako Joko Garbi taldeko bi bikote -Zubieta 1 eta Zubieta 2- izan ziren aurrez aurre. Xuban Urdalleta herritarrek Manex Iparragirrekin bat eginez zubietarren bigarren bikotea osatu eta txapela jantzi zuen. 40-31 irabazi zuten.

**HAPO plana onartzeko akordioa, ELOPEk eta PSE-EEK**

Elkarrekin Lasarte-Oria Puede eta PSE-EE alderdiek akordioa lortu zuten Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzeko. Etxebizitza politika sozialen garapenean oinarritzen da akordioa, Lasarte-Oriako bizilagunak gehien kezkatzen dituen arazoetako batean, eta, besteak beste, honako neurri hauek aurreikusitakoak: udalerriari dagokion Cocherasen partzela alokairu sozialeko etxebizitzetarako soilik erabiltzea eta etxebizitzaren behatokia sortzea.

**Ostadarreko atleta gazteak, lehen postuetan**

16, 18 eta 20 urtez azpiko mailako Jaurtiketa Luzeen Euskadiko Txapelketan jokatu zuten, Durangon eta Ostadar SKTKo Hodei Garcia eta Nora Manzanal kideek zilarrezko bi domina jantzi zituzten 18 urtez azpiko mailan.

**Euskararen 10. Maratoiandia gogoratzeke bi bide**

Ibaierrietan gertu landatu zituzten Euskararen 10. Maratoiandian bi harritz eta martxoan bi zuhaitzei plaka bana jarri zieten. Iraganari aitortza egiten dionak



## Hamaika jarduera Martxoaren 8an

Udalak eta herriko zenbait eragilek hilabete osoan zehar antolatutako ekimenak, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.

Martxoaren 8an bertan, elkarretaratzea, ipuin kontaketa saioa, kartel lehiaketako sari banaketa eta *Denon bizitzak erdigunean* manifestazioa izan ziren. Aurretik ikusgai izan ziren 2024. urteko afixa lehiaketara aurkeztu ziren lanak.

Eta hurrengo asteetan ere gaiarekin lotutako ekimen ugari izan ziren, hala nola, Zero Sette akordeoi taldeak emakume konposagileen lanekin osatutako kontzertua eskaini zuen. Beatriz Egizabalek *Magma mia* bakarrizketaren saioa egin zuen. Irakurle Txokoarekin elkarlanean, Arantxa Urretabizkaiaren Azken Etxea lana izan zuten mintzagai eta idazlea berak parte hartu zuen saioan. Azkenik, Izan Iñurri elkarteak *Dragón Cáncer* podcast saio eskaini zuen.



Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan udalak eta zenbait eragilek antolatutako jarduerak egin zituzten. TXINTXARRI



Izaskun Manterola herritarraren esaldia du, etorkizunari begiratzeko dionak, berriz, Xuban Urdalletarena. Ondoren, grabatutako irudiekin osatutako ikus-entzunezkoa proiektatu eta bizitako irudien bidez gogoratzeko aukera izan zuten kultur etxean.



Guruburuak eta zortzikotea korrika. TXINTXARRI

**Garmendiak eta Matutek, erronkak eta egindakoak hizpide**

Udal eta foru hauteskundeak ziren maiatzaren 28an eta alderdiak horri begirako lanketan murgilduta zebiltzan. EH Bilduk Espainiako Kongresuko diputatu Oskar Matute gonbidatu zuen koalizioaren herriko alkategai Estitxu Garmendiarekin mintzatzera, legegintzaldian egindakoa gainbegiratu eta erronkak azaltzeko. Jaizkibel plazan batu ziren eta herritar ugariren interesa piztu zuen saioak.

### Ezusteak Hipodromoko lehen hitzorduan

Udaberriko denboraldiko lehen hitzordua jokatu zen Hipodromoan. Lasarte-Oriako Aterpeak Merkataritza elkartearekin lanean elkarteko kide ziren denden izenak zituzten sariak lehiatu ziren. Lasterketa ederrak ikusteaz gain, hainbat ezusteko ere izan ziren. Aldufoof eta Nicolas de Julian, Coolmeen Vega eta Cristina Perez, Monzalvos eta Vaclav Janacek zein Jaime Gelabert Urbietak eta Jasperoidekin izan ziren lehenak helmuga igarotzen.



Kukukako ikasleen esketxa. TXINTXARRI

### Antzerkiaren Nazioarteko Eguna kalean ospatu zuten Kukukak

Antzerki eta Dantza Eskolako kideek Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten. Basotxo plazatik atera zen desfilea eta Jaizkibel nahiz Dorre plazetan egindako geldiuonean ikasleek esketxak egin zituzten. Okendo plazara iritsi eta bertan errepikatutako zituzten guztiak. Horrez gain, Samiha Ayoub antzezle egiptoarrak idatzitako manifestua ere irakurri zuten.

### 'Zomorrotu' ipuin liburua argitaratu zuten Aintzane Usandizaga herritarrak

Aintzane Usandizaga herritarrak bere azken lana aurkeztu zuen: *Zomorrotu* ipuin liburua. Pertsonaiek elkar lotzen dituzten bost istorio osatzen dute idazle lasarteoriatarren liburua. Ipuin liburu gisa definitu zuen arren, eleberriarren antza ere baduela nabarmendu zuen.

### Atsobakar egoitzan, toki bikoizketa eta tutoretzapeko sei apartamentu

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako Udalak adostu zuten Atsobakar egoitza zabaltzea, eta egoiliarrentzako plaza kopurua ia-ia bikoiztea: 57 daude orain, eta 108 izango dira zabaltze lanak amaitzen dituztenean. Obra horiek berriki atera dituzte lizitazioa eta adjudikazioa irabazten duen enpresak bi urte izango dituzte lanak gauzatzeko. Toki gehiago egiteaz gain, tutoretzapeko sei apartamentu eraikiko dituzte, eraikin berriko goiko solai-

ruan, autonomoak diren adineko pertsonentzat. Kaletik sartu ahalko dute pisu horietara. Udalak kudeatuko ditu.

**Amaitzeak zegoen agintaldiaren balorazioa egin zuten Agustin Valdivia alkateak** Agintaldiaren kudeaketaren balorazioa egin zuten alkateak. Jakinarazi zuen, mandatu garaia ez zela erraza izan eta zailtasunak zailtasun, 2019-2023 legegintzaldirako hartutako konpromisoen %84a bete zutela, eta "harro" agertu zen horrekin.



Agustin Valdivia alkatea. TXINTXARRI

**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU GRAFIKOA**

**DISEINU EDITORIALA**

Goza ezazue jai hauetan  
Urte berri on!

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu ibilbidea, 2 20160 LASARTE-ORIA

Tel. 943-37 07 38 [info@antza.eus](mailto:info@antza.eus)

[www.antza.eus](http://www.antza.eus)

### Kreditu aldaketa, inbertsio garrantzitsuak egiteko

Udal korporazioak 6.568.332 euroko kreditu aldaketa bat onartu zuen, herriarentzat "funtsezkoak" diren zenbait esku hartze aurrera eramateko. Aurrekontuaren erdia baino gehiago (3.875.248 euro) bi igogailu eraikitza bideratuko zituela adierazi zuen: Zabaletan bat eta Goikalen bestea. Ikastetxeetan egin beharreko lan batzuk eta kiroldegi berriaren obren lizitazioa ere jaso zituen, besteak beste.



Zabaletara igotzeko aldapa. TXINTXARRI

### Hauteskunde zerrenda aurkeztu zuen EAJ-PNVk

Tximistarreta parkean egin zuen EAJ-PNVk datozen hauteskundeetarako hautagaien zerrendaren aurkezpena. Bertan izan zen Jon Antxordoki zerrendaburu eta alkategaia ere, eta nabarmendu zuen, "kudeaketan, herrigintzan eta auzogintzan eskarmentua duen hautagaitza" zerrenda zela. Gaineratu zuen "hanka instituzionala eta hanka soziala" ere badituela bere alderdiak aurkeztutako taldeak, eta "herrian dena emateko eta herriarekin lan egiteko prest" zegoela.

### X. Lore eta Landare azoka iragarri zuen udalak

Lasarte-Oriako Udalak, Behemendi Elkarte, deKolare Natur Azokako ordezkariarekin batera, X. Lore eta Landare azoka aurkeztu zuten. Azaldu zuten ohi bezala Okendo plazan egingo zela aurtengoa ere, eta herritarrek bi ordu eta erdiko tartea izango zutela produktuak ikusi edota erostera joateko. Horrez gain, etxeko txikientzat, jolas eta tailerrak ere aurkeztu zituzten; batetik, lore lehorrekin orri markatzailea egiten ikasiko zutela azaldu zuten, eta, bestetik, landaretxoak landa-

tzen ere bai. Zortzi postuk osatu zuten aurtengo azoka.

### Kultur ondare historikoa eta musika elektronikoak bat egiteko egitasmoaren bigarren aldiaren aurkezpena

Oria auzoko Brunet Enea parkean musika elektronikoaren erritmorra dantzatu ahal izango zutela iragarri zuen Lasarte-Oriako Udalak. Apirilaren 22an aurrera eraman zen Dantz Point egitasmoaren bigarren aldia aurkeztu zuen, Jokin Telleria herritar eta egitasmoaren sortzailearekin batera.



Dantz Point-en aurkezpena. TXINTXARRI

**Sonataz sonata, bidaiak musikala** Danok Kide elkarteak XVIII. Musika Topaketak aurrera eraman zituen, Brigitarren komentuan. Doakoa izan zen sarrera, eta hitzordura Ars Combinatoria gonbidatu zuten, musikari trebeez osatutako taldea, hain zuten. XVII. mendeko zenbait konpositore klasikoren sonatekin osatu zuten egitaraua.

### Gesalaga Okelan Zarautz errugbi taldea, finalerdietara sailkatua

Ohorezko B mailako taldeak Fenix CR Zaragoza 54-0 garaitu zuen azken jardunaldian. Elitemultzoan bigarren postuan sailkatu zen Fran Puertas herritarrek zuzentzen duen taldea. Mazabi Santander Independiente RC izan zuen aurrez aurre Ligako finalerdian. Euskal Ligako 16 urtez azpiko jokalariek ere azken neurketa jokatu zuten Logroñon, Errioxan. Domiberia R.C. Rioja 12ren aurka lehiatu zen Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldea eta gaztetxoek 7-24 irabazi zuten.

### Maialen Chourraut, garaile

Eslalon denboraldiko Espainiako 2. Kopa lehiatu zuten La Seu

d'Urgelleko kanalean, Lleidan. Maialen Chourraut herritarra K1 mailan lehiatu zen eta bi jardunaldietan urrezko domina jantzi zuen.



Maddalen Chourraut, lehian. TXINTXARRI

### Dominak Euskadiko txapelketan

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) judokak Euskadiko txapelketako podiumean eman zioten hasiera apirilari. Ane Linazasoro eta Iraia Diaz infantilek brontzezko domina jantzi zuten Eskolarteko Kirol Jokoetan. Kadete mailan, aldiz, Unai Guisadok finala jokatu zuen. Ezin izan zuen Liher Pereda bizkaitarra garaitu eta zilarrekin konformatu behar izan zuen. Horrekin batera, Espainiako txapelketarako txartela ere eskuratu zuen Guisadok. Aitor Santosek hirugarren postuan amaitu zuen lehia.



Judokak, entrenatzailearekin. LOKE

### Anabitartek denboraldi ederra egin zuen Illinois-en

Azaroan hasi eta otsailean amaitu zuen Aitor Anabitarte herritarrek saskibalo denboraldia. Lasarteoriatar gaztea Matematika eta Informatika ikasten ari da Saint Francis Unibertsitatean, Illinois-en, Estatu Batuetan. Unibertsitateko Saints taldean ari da lehian. Aurten Chicagoland Co-



Alboka koruko kideak, senide eta lagunak ondoan, Obanosen. ALBOKA

## Bigarren, Arnotegi lehiaketan

Erdi Aroko eta Errenazimenduko musika lehiaketa nazionalean parte hartu zuen Alboka abesbatzak, Nafarroako Obanos herrian. Bertako Misterioa fundazioak antolatutako ekitaldia. Iruñeko La Asuncion eta Madrilgo Salix Cantor taldeekin batera lehiatu ziren herritarrek, eta bigarren postua eskuratu zuten.

legiate Athletic Conference (CCAC) Ligako zein College Sports Communicators erakundeko hainbat aitorpen jaso ditu. Herritarrek ia zozko denboraldian ezin izan zuten jokatu belauneko lesio batengatik eta aurten arantza kendu ahal izan du. Saints taldeak bosgarren



Anabitarte partida jokatzen. TXINTXARRI

postua eskuratu du aurten Ligan. Ondorioz, CCAC Ligako final laurdenak jokatu zituen irabazle izan den Indiana University South Bend-en aurka.

### Herriko taldeak Aste Santuko txapelketetako lehen postuetan izan ziren

Aste Santuan futbol lehiaketa ezberdinak lehiatu zituzten eta herriko taldeak horietako bitan izan ziren lehian. Ostadar SKTko kadete taldea Terres de L'Ebre

nazioarteko torneoan (ITE-DV7) izan zen apirilaren 7tik 9ra, La Rapita herrian (Tarragona, Herrialde Katalanak). 16an, aldiz, Texas Lasartearrako 2014. urteko benjamin taldea Behobia CDk antolatzen duen Aste Santuko txapelketan parte hartu zuen, Irunen. Bi taldeek garaikurrak eskuratu zituzten.

### Hezkuntza sistemak euskaraz izan behar duenaren aldarriekin bat egin zuten Oriarte BHIko ikasleek

Gazte Euskaltzaleen Sarea izeneko talde aktibista sortu zutela berri ematearekin batera, horiek martxoaren 23rako deitutako #M23Kalera mobilizazioarekin bat egin zutela azaldu zuten. Horrela, Euskal Herriko hiriburuetako kaleak hartzerako deitu zituzten herritarrek, aldarri nagusi bat zabaldu asmoz: hezkuntza sistemak euskaraz izan behar duela.

### Maiatz amaierako hauteskundeetarako zerrendak aurkeztu jarraitu zuten alderdi politikoei

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrendako hogeiki kideen berri eman zuen Lasarte-Oriako EH Bilduk, bere oinarriek hautagaiak berretsi eta gero. Esti Garmendia alkategaiak azaldu zuen, talde horrekin "gai" izango zirela "herritarren kezka eta ame-

tsak proiektu bilakatu eta udal politiketan txertatzeko".

Aldi berean, Batzar Nagusieta-rako Donostialdeko hautagai zerrenda aurkeztu zuen PSE-EEK, Lasarte-Orian, Askatasunaren parkean. Bertan izan zen Jose Ignacio Asensio ahaldu nagusi izateko Gipuzkoako PSE-EEko hautagaia, eta "marka sozialista" aldarrikatu zuen, "egonkortasunaren, aniztasunaren eta kudeaketa eraginkorraren berme" zela nabarmenduz.

### Erraustegia "kutsatzen" ari zela salatzeke

*Erraustegia airea, ura eta lurra kutsatzen* lelopean, errausketaren aurkako hainbat eragilek Zubietako erraustegira martxa egingo zutela iragarri zuten; apirilaren 29rako egin zuten deialdia. Iaz bezala, Okendo plazatik aterako zirela iragarri zuten partaideak, 11:00etan. Errausketaren Aurkako Mugimenduak antolatutako ekintzarekin bat egin zuten Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak eta lasarteoriatarrek animatu zituzten horretan parte hartzera.



Mobilizatzeke deia, Zubietan. TXINTXARRI

### Sanpedroen afixa iragarlea aukeratzeko momentua

67 lan jaso zituen Lasarte-Oriako Udalak aurtengo afixa lehiaketan, baina Berdintasun Sailak hala erabakita, horietatik lau bazter utzi zituzten. Hala jakinarazi zuten Agustin Valdivia alkateak, eta Jaietako batzordeburu Txus Alonsok, prentsaurrean. Lasarteoriatarrek aukera izan zuten 63 horien artean gustukoena hautatzeko.

**Udaberriko Festa iragarri zuten Aterpea merkatarien elkarteak** Maiatzean aurrera eramane zuten Aterpea Udaberriko Festa, baina apirilean egin zuten horren iragarpena. Ormazabal Lora-

## Ondare kulturala eta musika uztartuz

Dantza gogotik egin zuten Brunet Enea parkean, Dantz Point jaialdian. Ondare historikoa nahiz artistikoa musika elektronikoarekin uztartzea du xede Jokin Telleria lasarteoriatarrek eraturako egitasmoak. Nahasketa mahaian Giovanni eta Almuedo DJak aritu ziren, eta horiek jarritako musikarekin gozatu eta dantzatu zuten bertara joandakoek. Casa Humada arduratu zen jatekoa eta edatekoa eskaintzeaz.



Brunet Enea parkean egin zuten Dantz Point ekimenaren irudi bat. TXINTXARRI

dendako Ramon Ormazabalek eman zuten aditzera aurtengo egitasmoa, eta esan, maiatzaren 2an hasi eta 14an amaituko zela. Hala, azaldu zuen epealdi horretan, herriko komertzio parte hartzaileetan erosketak egiten zituzten bezeroen artean 2.000 euro zozkatu zituztela (erosketa txarteletan). Gaineratu zuen, baita ere gazte zein helduentzako ekimenak aurrera eramango zituztela. "Kontzientziatzea, ezagutza eta parte hartzea" sustatzea du xede herriko merkatarien ekimenak.



Merkatariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

### Sistema "iraultzeko" espazio bat sortuko zutela iragarri zuten

Euskal Herriko Neska\* Gazteen Baterajotzea egingo zutela iragarri zutela iragarri zuten. Jakinarazi zuten, gainera, Usurbilen izango zela ekintza hori, urriaren 13tik 15era, *Utopiak lehertzeraino* lemapean. Topaketa horretan, besteak beste, mugimendu feministak deitutako greba orokorraren "potenzialtasuna" landuko zutela ere azaldu zuten.

### 'Zomorrotu' liburua aurkeztu zuten Aintzane Usandizaga idazleak, jendaurrean

*Zomorrotu* ipuin liburua argitaratu berri zuten Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarrek. Lana aurkezte aldera, lagunartean ekitaldi bat egin zuten Agora tabernan. Danele Sarriugarte eta egilea bera liburuaz solastu zire; zenbait pasarte irakurri zituzten Oihana Arana eta Leire Vargasek; eta musikaren bidez giro berezia sortu zuten Antuxuna ta Patx bikoteak.



Aintzane Usandizaga idazlea. TXINTXARRI

### Eihera taldeko adituekin pedagogia feminista landu zuten Oriarte BHIko Bigarren Hezkuntzako ikasleek

Eihera taldeko kideen eskutik, Oriarte BHIko Bigarren Hezkuntzako ikasleek pedagogia feministari buruzko tailerrak jaso zituzten. Horrelako formakuntza saioak aurrera eramatearen garrantzia nabarmendu zuten, "sistema patriarkala" aldatzeko bidean.

### Ostadar boleibol saileko jubenil taldea Gipuzkoako txapelketa berresteko lehian ari da

Ostadarreko jubenil taldea iazko txapela berresteko bidean zen. Azken faserako sailkatu zen eta lehen jardunaldian Arizmendi garaitu zuen. Euskadiko txapelketa ere jokatu zuen hilaren 15ean eta laugarren postua eskuratu zuen talde urdin-beltzak.

### Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako podiumean izan ziren herritarrak

Hilaren 2an Eskolarteko Mailako banakako Gipuzkoako txapelketako lehen saioa jokatu behar bazuten ere, eguraldia zela-eta, bertan behera geratu zen eta atleta gazteek hilaren 23ra arte itxaron behar izan zuten lehiaketa hasteko. Eibarko Unbe pistean Gipuzkoa osoko infantil eta alebin mailako atletak bildu ziren, baita lasarteoriatarrek ere. Ostadar SKTk bost domina gehitu zituen bere poltsara eta Atletico San Sebastian taldekide Hodei Murgiondo herritarrak ere urrezko domina jantzi zuten.



Atleta gazteak, sariek. TXINTXARRI

### Silvia Trigueros eta LOTMEko kideekin solasaldi ederraz gozatu zuten herritarrek

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarreko kideek antolatuta, Silvia Trigueros ultra lasterkariaren solasaldia izan zen Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Solasaldian izena eman zuten herritarrek nazioarteko korrikalariaren ibilbidea eta pasadizo ugari ezagutzeko aukera izan zuten. Kirolariak egindako Tor de Geants probako bideo batez ere gozatu zuten eta amaitzean, ultra modalitateko proben edo prestakuntzaren gaineko galdera ugari egiteko aukera izan zuten.

### Lasarteoriatarrek, Gipuzkoako xake azkar txapelketan lehian

Xake azkar modalitateko Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten Elgoibarren. 50 bat xake jokalaririk bildu ziren eta Lasarte-Oriako ordezkariak izan zen lehiaketan: Juan Rodriguez zein Taula Xake klubeko Aitor Albisu, Alejandro Sanchez eta Victor Alvaro.



Herritarrak xakera jolasten. TXINTXARRI

### Urdanpilletak tanto batengatik lortu zuten garaipena

Lau eta erdiko 2. jubenil mailako buruz buruko borrokatuaz gozatu ahal izan zuten Michelin kirol guneko pilotalekuan. Intzako Peru Urdanpilletak eta Oiarpeko Lasak lehiaketako lehen jardunaldiari egin zioten aurre eta 22-21 gailendu zen herritarra. Nahiz eta Intzako kide Urdanpilleta lehen tantoetan nagusi izan eta zazpiko alde ireki, neurrak aurrera joan ahala Oiarpeko Lasa partidaren zentratu eta markagailuari itzulita ematera iritsi zen, 20-21. Urdanpilleta ez zen kikildu, ordea, eta indartsu erantzun zuten azken bi tantoetan. Dejada batez 21na berdindu eta azken sakearekin erabaki zuten neurrak.

### Zubietako erraustegira joan ziren hura ixteko eskatzera

Hirurogei bat herritarrek parte hartu zuten Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deitutako eta Donostia Bizirik, Eguzki eta Ekologistak Martxan elkarteek babestu zuten ekintzan. "Erraustegia airea kutsatzen", "Lasarte-Oria esnatu, birziklatu" eta antzeko oihiak egin zituzten, adar hotsa eta musika lagun zituztela Kale Nagusian barrena joan zirenean. Pankarta zera-matenen albo banatan heriotzaren moztorra zera-maten lagun bana jarri ziren, eta partaideetako askok birziklatzearen aldeko banderak, erraustegiaren aurkakoak edota buzoak zera-matzaten.



Erraustegira martxa. TXINTXARRI

### Usadioari, traizio; sormenari, leial

Udaberriko Bertso Saioa urtaroko tradizioetako bat bilakatu da Lasarte-Orian. Pandemiak bertan behera utzitakoa eta beste urtaro batean egin zena salbu, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako ikuskizuna galdu ezin duten hitzordua da askorentzat. Gai jartzaile aritu zen Bea Egi-zabalek protagonismoaren zati bat partekatu zuen bai Ane Labaka, Onintza Enbeita eta Andoni Egaña bertsolariekin bai emanalditxoak egin zuten sortzaile gazteekin. Nahiz eta *Tradizioari traizio* izenburua aukeratu, ohi bezala, kultur etxera bertaraturako espero zutena eta gehiago ekarri zuen saioak.

Sudur gorriak amets bat zuela aitortu zuen iazkoan: gai jartzaile izatea. Nahia betetzeko, ordea, oztopo -aurkezle- ugari izan zituzten; aurtan, berriz, arantzatxoak kendu zuen nahi beste gai jarrita. Hori bai, bere estilora: behin bertsolariei azaldu (edo), beste behin, publikoari, entzun ez balute bezala. Giro bikaina izan

zen nagusi aurtengo oholta gaineke saioan ere; hala suma zitekeen bertaratu ziren ikus-entzuleengan.

### Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleek eta Atsobakar zaharren egoitzako egoiliarrek belaunaldi arteko programa batean parte hartu zuten

Gazte eta zahar lasarteoriatarren arteko harremanak sustatzeko asmoz jarri zuten martxan, ikasturte honetan, belaunaldi arteko programa. Sasoeta ikastetxea da horren arduradun, eta Atsobakar zaharren egoitzarekin aritu ziren elkarlanean.

Astean bitan elkartu dira ikasleak egoiliarrekin; behin egoitzako eguneko zentroko erabiltzaileekin eta beste behin, zahar egoitzakoekin. "Oso esperientzia polita" izan dela nabarmendu zuen Saioa Altzaga Gibajak; ikastetxeko aholkularia da, eta egitasmoaren koordinatzailea ere bai.

### Michelin Lasarte lantegiko enpresa batzordeak lau greba egun iragarri zituen

Enpresa batzordea hitzarmen kolektiboa negoziatzen aritu zen eta iragarri zuen bertan ordezkariak duten atal sindikalek (LAB, ELA, UGT, CSI eta CCOO) hiru puntuko akordio bat lortu zutela. Besteak beste, mobilizazio egutegi bat prestatu zuten.

Michelin Lasarteko Enpresa Batzordeak erdietsi zuen akordioak hiru puntu jasotzen zituen. Lehenengoa, talde eragile horretan adostutako plataforma bateratua defendatzea hitzarmen kolektiboaren negoziazio mahaian, gai hauei dagokienez: soldata kontzeptu guztiak inflazioarekin lotzea; galdutako erosahalmena berreskuratze aldera, ordainsariak igotzea; sarrera soldata aldatzea batzordean jasotako baldintzen arabera; eta talde horrek hileroko ordainketa sistemari buruz jasotakoari erreparatzea, batez ere, hasierako gutxieneko soldatari dagokionean. Bigarrenez, adierazi zuten akordioak langileek berretsiko zituztela erreferendum lotesle baten bidez, eta, azkenik, mobilizazio egutegi bat osatu eta adosteko konpromisoa hartu zutela.

### Teoriatik praktikara jauzi egin zuten XV. Udaltopen

Iaz bezala, 16 urte arteko nerabeengan fokua jarri zuten aditu

eta arituek udaletako Euskara zerbitzuen topaketan, kultur etxean. Lasarte-Oriako Udalak iragarri zuen liburua bat ondu zuela Miren Artetxe ikerlariarekin batera: *'Euskara eta gazteak, 30 urte eta gero zer?'*.

Bat, bi, hiru... Eskolaz kanpoko euskaratik eta euskaraz lemapean aurrera eraman zituzten XV. Udaltop topaketak, Manuel Lekuona Kultur Etxean. 160 pertsona inguruk jarraitu zituzten saioak aurrez aurre, eta gainerakoak, sarean.



Udaltopen irudi bat. TXINTXARRI

### Jakitea elkarteko zazpi sukaldariren afari bikaina dastatu zuten, herritarrek, Intza Pilota Elkarteak

Intza Kilota Elkarteak Jakitea elkarteko sukaldari trebe ugari gonbidatu zituen Sagardotegi kaleko egoitzara. Afari berezi bat prestatu zuten horiek guztiek, Pilota sailarentzat dirua biltzeko helburuarekin. Hitzordu horren lekuko izan zen TXINTXARRI.

Sei sukaldarik, gozogle batek eta koktel egile batek parte hartu zuten, hauek hain zuzen: Avenida Tabernako Yon Mikel Rodriguez; Herriko Etxeako Javi Penas; Abend Kafe Antzokiko Ion Pagola; Patricio tabernako Yon Pavon; Aldanondo erretegi-ko Mikel Mayan; Tripontzi Tabernako Igor Muñoa; Aratz Erretegi-ko Xabier Zabaleta eta Rafa Gorrotxategi gozogilea. Jaki bikainak prestatu zituzten denek ala denek.

### GIB birusarekin nola bizi erakutsi zuten

Txalo Produkzioak taldeak *Kanpora sartzan* antzezlanaren emanaldia egin zuen Manuel Lekuona Kultur Etxean. Herritar askoren jakin mina piztu zuen obrak (sarrera guztiak saldu zituzten). Xabin Fernandez du protagonista, bai oholta gainean bai isto-



Ana Urchueguiaren artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

## Delituak egin izan onartu zuen

Nikaraguako Somoto herrira bideratutako dirulaguntzetako dirua bidegabeki erabiltzea eta horrekin prebarikatzea aitortu zuen Lasarte-Oriako alkate ohi Ana Urchueguiak. Akordioa egin zuen Fiskaltzarekin eta bi akusazioekin, kartzela zigorra saihesteko

rioan. Izan ere, duela hamarkada bat seropositiboa zela jakitean bere bizitza nola aldatu zen azaltzen baitu antzezlanak. GIB birusa gorpuzteko arduraz Intza Alkain herritarrek du, eta gaiak pentsaraz dezakeenaren kontra, komediatik kontatutako pasadizoz osatuta dago.

Aipatu antzezlanen ez ezik, beste proiektu batzuetan lanean aritu da Alkain. Formol Laborategia konpainiako hiru kideetako bat da: besteak beste, *Album* obra arrakastatsuekin ibili dira, antzokiz antzoki, urte honetan ere. Obra horrek, ordea, amaiera izan du aurtan, eta agurtzeko, Nire Bizitzarekin Ez Dakit Zer Egin Fest jaialdia aurrera eraman zuten, Errenterian.



Intza Alkain, aktorea. TXINTXARRI

### Eguzkiko infantilak, txapelketaren bila

Eguzki Areto Futbol taldeko infantil taldeak Gipuzkoako txa-

pelketako finalerdirako txartela eskuratu zuen. Lauburu Ibarren aurka jokatu zuen bigarren faseko azken jardunaldia. Lehen zatian zailtasunak izan arren, etxeko taldeak 5-1 irabazi zuen.

### Igerilariak, dominak eta gutxieneko marka

Buruntzaldea IKTko igerilariak ederki jardun ziren hitzordu ezberdinetan. Garazi Etxeberria Gipuzkoako Selektzioarekin izan zen 30eme Nautiques de Tarbes lehiaketan parte hartzen, Frantzia, eta, bakarka zein erreleboetan, bost domina eskuratu zituen Gipuzkoako Selektzioarekin. Taldeko alebin eta benjaminek, aldiz, euren ligetako azken jardunaldiei aurre egin zieten Hernanin. Domina eta marka ugari poltsikoratu zituzten; gutxieneko marka berriak lortu zituzten.



Buruntzaldea IKTko igerilaria. TXINTXARRI

## Erromeria giroak berotu zuten Azkorte

Ttakun Kultur Elkartek Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean antolatuta, urteroko ekimena egin zuten. Eguraldi iragarpena ez zen ona eta haize fina bazebilen ere, elizkizuna hasi aurretik oinez edota autobusean, jende mordoxka bertaratu zen ermita ingurura. Tontorrera bidean jarraitu, atsedean hartu edo meza entzutea izan zuten aukeran.



Harrijasotzailea, Azkorten. TXINTXARRI

## Hipodromo etorbideko jabetzak lehiaketa bidez besterentzeko asmoaz

Ohar baten bidez Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi zuen lehiaketa publiko bidez besterenduko zituela Hipodromo etorbideko 5. eta 7. zenbakietako 39na etxebizitza eta garaje nahiz lau lokal. Azaldu zuen horren helburua zela "kiroldegi berria eraikitzeko baliabide ekonomikoak" lortzea. "Gutxienez" 12.706.789 euro jasoko zituela kalkulatu zuen erakundeak, obraren 19.439.551 euroak finantzaketa "bideragarri" izatea ahalbidetuko zuela horrek, "beste diru sarrerara batzuekin batera".

## Jalgi, martxan berriz ere

Jalgi kafe antzokiak atek berrikeri zituen. Ana Sarasolak gidatutako langile taldea jo eta su aritu zen lanean hasi eta buka, tabernara bertaratu zen bezero andanari pintxoak eta edariak zerbitzatzen. Hori izan zen baruko giroa, goxoa; kanpoko, berriz, alaita, Idoia Rekondo eta Lierni Arozena trikitalarien eskutik. Jan-edana eskuetan, asko izan ziren Sara Etxeberria artista herritarrak margotutako murala txundituta ikusi zutenak.

## LOKE elkarteko gimnastek lan bikaina egin zuten Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan

## Alkategaiei, hauteskundeei buruzko elkarrizketak

Udal korporazioan ordezkaritza zuten lau alderdietako alkategaiek elkarrizketatu zituen TXINTXARRI-k. Alkategai bakoitzari hauteskundeei begirako elkarrizketak egiteaz gain, hilaren 28an ospatu ziren hauteskunde berri ere eman zuen aldizkariak. Alderdi sozialista izan zen bozkatuena, ordezkari bat galdu arren. Bigarren indarrak, EH Bilduk bosgarren aulkia lortu zuen. EAJk hiru zinegotzi lortu zituen, eta Elkarrekin Lasarte-Oria Puedek eta PPK, bana.



Alkategaiak, aginte makila aurrean dutela, udalbatzar aretoan. TXINTXARRI

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) eskolarteko mailako gimnastek hitzordu garrantzitsua izan zuten: Gipuzkoako txapelketa. Infantil mailako kideak goizean eta alebinak arratsaldean lehiatu ziren Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Alebin C mailako Landaberri 1 taldea eta Laia Suberbiola-Aiala Jimenez bikotea podiumeko gorenean izan ziren.



LOKEko gimnastak, eskolartekoan.

## Kanpaina amaierako ekitaldiak aurrera eraman zituzten Lasarte-Oriako alderdi politikokoak

Lasarte-Oriako EH Bilduk mitina egin zuen. Bertan bildu ziren datozen bozetarako zerrendakideak, horien artean Esti Garmendia Arrieta alkategaia. Berekin egon zen baita ere Arkaitz Rodriguez Torres, Sortuko idazkari nagusi eta EH Bilduko parlamentaria.

EAJkoek, berriz, herria erakutsi zioten Eider Mendozari. Gure herriko kale eta txokoak ezagutzeaz gain, lasarteoriatarren iradokizun eta ideiak lehen eskutik jaso zituen, Lasarte-Oria-

ko taldeko zerrendaburu Jon Antxordoki eta gainerako kideak lagun zituela.

Lasarte-Oriako gaur egungo alkate Agustin Valdiviari babesa ematera etorri zen Gipuzkoako ahalzun nagusi izateko PSE-EE-ren hautagai Jose Ignacio Asensio; Hauteskunde programa portalez portal banatzen lagundu zien Asensiok Lasarte-Oriako PSE-EEko kideei.

## Imanol Lizardiren heriotzaren berri eman zuen TXINTXARRI-k, eta hari agur hitzak eskaini zizkieten hainbat herritarrek

Euskara eta kultur arloko erreferenteetako bat galdu zuen Lasarte-Oriak: Imanol Lizardi hil zen, 65 urterekin, eritasun larri baten ondorioz. Eerra! bertso eskolaren nahiz Ttakun Kultur Elkartearen sortzaileetako bat izan zen eta Olentzerori zein Mari Domingiri harrera egiteko taldeko kideetako bat. Euskara irakasle ofizioz, horren maite zuen hizkuntzaren bueltan ibili zen beti: irakasten, erakusten eta ikusarazten.



Imanol Lizardi. TXINTXARRI

## Lasarteko auto zirkuituaren 100. urteurrena ospatzeko kanpaina erakargarri iragarri zuten Aterpeak

Lasarte-Oriako auto zirkuituak 100 urte beteko ditu aurten, eta urteurren hori ospatzeko, Aterpea merkatarien elkarteak jarduera erakargarri bat prestatu zuen bezeroentzat. Ramon Ormazabal eta Ana Laureanok hitz egin zuten Aterpearen izenean, eta aurrera eramango zuten kanpaina berriaren nondik norakoak azaldu zituzten.

## Argantzun herrian izan zen Xumela korua, bertako ikastolak antolatutako jaialdian parte hartzen


Argantzun ikastolak antolatutako Trebiñu Kantuz jaialdian parte hartu zuen Xumela koruak, Hondarribiako Olagarro eta Zarauzko Montetxio taldeekin batera. Egunpasa ederra egin zuten: Trebiñu konderrria (Burgos, Gaztela Leon) koloreztatu zuten Porrotx pailazoarekin batera; ikastola horretako ikasleen azalpenak entzun zituzten, eguneroan euskaraz ikasi eta bizitzeko oztopoei buruzkoak; eta Argantzungo elizan kontzertua eman zuten hiru abesbatzek. Horren ostean, gogotik dantzatu zuten guztiek elkarrekin. Lasarte-Oriatik autobus bete joan zen.

## Eguzki Areto Futbola klubeko infantrial Euskadiko txapeldun izan eta Espainiakora sailkatu ziren

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko infantrial mailako talderik onenak bildu ziren, Zumarragan Euskadiko Jokotako azken fasea jokatzeko. Arabatik Ibaialde Salburua, Bizkaitik Sestao AF eta

Gipuzkoako ordezkaria Lasarte-Oriako Eguzki taldea izan zen. Hiruko bat jokatu zuten eta Gorra Redondok zuzentzen duen taldeak jaso zuen garaikurra.

**Herriaren aniztasuna, datutan**  
Saretzen egitasmoaren bidez, datu kazetaritza jorratu zuten EITB eta Tokikom tokiko hedabideen sareak. Bigarren atalean Hego Euskal Herriko immigrazioa aztertu zuten, jatorriko herrialdeetan fokua jarrita. TXINTXARRI-k Lasarte-Oriara ekarri zuen gaia, erreportaje honekin.



Iturria: INE • Egilea: Saretzen

Datuekin egindako grafikoa. TXINTXARRI

## Jubenilek Gipuzkoako txapela berretsi zuten

Pio Baroja kiroldegian, Donostian jokatu zen boleboleko jubencil mailako Gipuzkoako txapelketa, maiatzaren 27an. Giro ederra izan zen harmailtan, Ostadarren zein Bera Bera taldeko zaletuek ederki bultzatu zituzten euren jokalariak. Urdin-beltzek neurketa gogorra espero bazuten ere, Ostadarreko jubenilek nagusitasunez.

## Herriko atletek zortzi domina jantzi zituzten

Herriko atletek bi hitzordu izan zituzten maiatzeko azken asteburuan. Gaztetxoak Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokotetan lehiatu ziren; absolutu mailako kirolariek Gipuzkoako txapelketari egin zioten aurre. Bietan podiumean izan ziren.



Herriko atletak, dominekin. TXINTXARRI

## Genero ikuspegia oinarri duen Botere Judizial baten alde lanean

Ikergezte euskarazko ikertzaile gazteen kongresuaren bosgarren aldiaren sari banaketa egin zuten Donostian. Bost jakintza alorretako komunikazio onenak saritu zituzten, eta horien artean, Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea atalean, lasarteoriatar bat izan zen sariduna: Sara Arruti Benito.

EHUko Zuzenbide Prozesaleko doktoregaia da Sara Arruti Benito herritarra. *Genero ikuspegia aintzat hartzen duen Botere Judizial baterantz: bere integrazioa antolakuntza judizial eta juridikzio funtzioan tesia lantzen ari da.*



Sara Arruti, saria eskuetan. TXINTXARRI

## Kirolariak hizlari bihurtu zituen Ostadar SKTK

Ostadar SKTren koloreak soinean eraman dituzten hamar kirolari nabarmen gonbidatu zituen kirol elkarteak, ez entrenatu edo konpetitzeko, mikrofonoa hartu eta euren bizipenak kontatzeko bai zik. Iraia Iparragirre, Itxaso Garcia eta Ander Bardaji futbolariak; Alex Saleta eta Jon Ibitsate errugbi jokalariei eta epailea, hurrenez hurren; Naroa Furundarena atleta; Aitor Manso pilotua; Asier Sagasti judoka; Axier Arteaga pilotaria; eta Ander Goenaga surflaria izan ziren hizlariak. Klubak bere 40. urteurrena ospatzeko egin zuen hitzaldietako bat izan zen.

## 'Traganarru' lana argitaratu zuten Rukula musika taldeak

Rukula taldeko Oihan Agirretxe bateria jotzailearekin elkartu zen TXINTXARRI aldizkaria maiatzan argitaratu zuten *Traganarru* azken lanaz hitz egiteko. Elkarrizketa horretan kontatu zuen, besteak beste, diskoa kaleratu eta berehala eman zituztela zenbait kontzertu batzuk, eta "oso esperientzia polita" izan

zela. Ziburun, Madrilen, Arrasaten eta Usurbilen izan zirela horiek. Eta leku emanaldiak leku horietan egitearen arrazoia ere azaldu zuen: "Lehen emanaldiak kanpoan egitea erabaki genuen arrazoi hauengatik: taldekide berri bat dugulako, Josu Furundarena, eta talde giroa sortu nahi genuelako; ezagutzen ez dugun jendearen iritziak ere entzun nahi genituelako".

## Ingurumena zaintzeko konpromiso eta eskaerak egin zituzten udal gobernu taldeari

Lasarte-Oriako udalbatzar aretoa izan ziren herriko ikastetxeetako ikasleak. Ingurumen Hezkuntza Programan landutakoak aurkeztu zituzten udal ordezkariak. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedo, Zerbitzu Publikoetako arduradun David Mateos, Hezkuntza batzordeburu Maite Iglesias eta Parthartze saileko arduradun Nagore Duran izan ziren gaztetxeekin. Agustín Valdivia alkateak ezin izan zuen bertan egon. Herriko bi ikastetxeetako (Landaberri eta Sasoeta) ia 400 ikasleek hartu zuten arestian aipatutako programan, eta askotariko gaiak landu zituzten. LH4. mailakoek hondakinen azterketa egin zuten. LH5ekoek, berriz, landaretza landu zuten, eta LH6. mailakoek, azkenik, ura.

## Lasartearra elkartearen 50. urteurreneko ospakizunak

Bost hamarkada betetzea ez da makala eta hori ospatze aldera, egitarau oparoa prestatu eta aurkeztu zuen Lasartearra elkarteak. Futbol partida batekin eman zieten hasiera ospakizunei; Texasek eta Ostadarrek jokatu zuten norgehiagoka hori; ondoren, hitzaldi bat egin zuten herriko jokalariei eta entrenatzaile profesionalak. Horien atzetik etorri ziren gainerako ekimenak ere.

## Ikasturtean landutakoa erakutsi zuten Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako ikasleek

Ikasturteko aste onenari ekainaren 5ean ekin zioten ikasle eta irakasleek, erdigunean barrena desfile koloretsu bat eginda. Kultur etxe paretik abiatu, zenbait kale zeharkatu eta Okendo plazan amaitu zuten. Hurrengo hiru egunetan makina bat antzezlan oholtzaratu zituzten ikasle gaz-

teenek, parean zituzten lagun, guraso eta bestelako senideen gozamenarako.

## Adin guztientzako jarduerak egin zituzten Zabaletako jaietan

Urtero legez, aurtengo ekainean ere ederki gozatu zuten Zabaletako bizilagunek euren auzoko jaiez. Teresa Sorgiñari ongi etorri eman, eta askotariko ekimen eta jardueratan parte hartu zuten. Festen aurrekari gisa, eta itxaronaldia dibertigarriago egiteko, haurrentzako jarduerak egin zituzten; I. Pala Txapelketari hasiera eman zioten. Behin sorgiña auzoratuta, asko izan ziren aurrera eramandako ekimenak, hala nola, omenaldiak, buruhandien irteerak, musika emanaldiak, patata tortilla lehiaketa eta hutsik egiten ez duen proba mistoa.

Horren berri eman genuen albistean argitaratu genuen baita ere auzoko jaietan gertatutako eraso homofoboa salatzeke egin zuten elkarretaratzea.

## Igerilariak, finalak eta dominak metatzen

Buruntzaldea IKTKo zein herriko igerilariak Gipuzkoako Open Sarian parte hartu zuten hilaren 3an eta 4an. Ederki jardun ziren eta marka ugari ondu zituzten. Podiumean ere izan ziren lasarteoriatarak eta domina batzuk jantzi zituzten.

Bidasoa XXI taldean dauden Ainhoa eta Leire Fernandez ahizpek sari sorta metatu zuten Gipuzkoako txapelketan.

Buruntzaldea IKTKo Miren Sarobe, June Lopez, Garazi Etxeberria, Iker Gorostegui, Nahia Zudaire, Unai G. Somovilla eta Iزارo Audikana igerilariak ere parte hartu zuten lehiaketan.



Buruntzaldea IKTKo kideak. TXINTXARRI



Michelingo langileak, herrian barrena, mobilizazioa egiten. TXINTXARRI

## Hitzarmen duin baten alde

Michelingo enpresa batzordeak deituta, lanpostuak utzi eta kalera atera ziren Michelin Lasarte lantegiko beharginak ekainaren 5ean, lantoki osoan greba eginda, enpresa zuzentzen dutenei mezu garbi bat bidali zieten; hitzarmen kolektibo "duin" bat nahi zutela, langileen soldatak inflazioarekin lotuko zituena eta erosahalmena ez galtzea bermatuko ziena. Sindikatuek jakinarazi zuten, ekoizpenean "erabateko jarraipena" izan zuten lanuzteak (Gasteizko fabrika, %93koa), eta gainerako alorretan "oso handia"; arduradun batzuk lanera joan ziren. Komiteak iragarri zituen protesta ekintzen lehen sortako garrantzitsuena izan zen hori, baina ez bakarria, hilaren 2tik 4ra sektorekako beste zenbait greba egin zituztelako, "arrakastatsua" horiek ere.

## Ostadar SKTren urteurrenaren bukaera jendetsua

Urteroko denboraldi amaierako festa egin zuen Ostadar SKTK, Michelin kirol gunean. Talde urdin-beltza murgilduta zebilen bere 40. urteurrenaren ospakizunetan eta data biribil horren oroigarri berezi bat izan nahian, atal eta talde guztietako kideekin bi argazki egin zituzten drone batekin. Ondoren, ohikora bueltatu, eta sari banaketa egin zuten. Kirolari onenaren saria jaso zuen Aitor Anabitarte saskibaloio jokalariek, eta Auzolan saria, Txema Valles kazetariak.

Horren harira, kirol elkartearen lehendakari Imanol Bardaji elkarrizketatu zuen TXINTXARRI-k.

## GurasoLekuren ikasturte amaierako festatxo

2022-2023 ikasturtean GurasoLeku egitasmoan parte hartu zuten familientzat festa prestatu zuen Ttakun Kultur Elkarteak. Jalgi kafe antzokian bildu ziren 60 familia baino gehiago, eta giro ezin hobean eman zioten amaiera kurtoari. Ekimen koloretsua osatu zuten denek elkarrekin.

## Berdintasuna nagusi izan zen Lasarteko Sarian

Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan hitzordu ederra izan zen ekainaren 10ean; Lasarteko 32. Saria jokatu zuten. Dominak, oroigarriak, omenaldiak eta batez ere berdintasuna izan ziren nagusi. Izan ere, aurten pertsonen saria izan da kirol jarduerak. Ez da inongo bereizketarik egon, neska eta mutilak elkarrekin egin dute lehia eta igeriketa egokitutako kideak ere barne hartu dituzte. Eta sailkapenak egiterakoan FINA eta Multidisability taulak kontuan izan zituzten Buruntzaldea IKTKo antolatzaileak.

## Garazi Gomez LOKEko gimnasta eta entrenatzailea elkarrizketatu zuen TXINTXARRI-k

24 urteko jardunaren ostean, lehiatzaile izan zion denboraldi amaieran Garazi Gomez LOKEko gimnastak, eta aitzakia hori medio, elkarrizketa egin zion TXINTXARRI-k. Bertan iragarri zuen ez zituela puntak alde batera utziko; entrenatzaile lanetan jarraituko zuela jakinarazi zuen.

## San Pedro Jaieen atarian, 1632. zenbaki berezia argitaratu genuen

### The Noise Makers taldearekin hizketan

The Noise Makers taldeak 80. hamarkadako talde eza-gun ugariren abestien bertsoak joko zituela iragarri zuen kideetako batek, Javi Morak. Ekainaren 29an, 00:00etan eman zuten kontzertua, eta hori nolakoa izango zen kontatu zion TXINTXARRI-ri: "Hiruzpailau kantuko segidak egitea gustatzen zaigu, ia arnasteko denborarik hartu gabe", ohartarazi zuen.

### Lasarte-Oriako ereserkia abestiaren koreografia, lehen aldiz

Dimensio berri batean sartu zen Lasarte-Oriako ereserkia hilaren 28an, ATLO elkarteak urtero antolatzen duen danborrada hasten duen unean: doinua eta letra ez ezik, koreografia izan zuen. Maidar Oartzabal Ziganda herritarra izan zen sortzailea. Berarekin elkartu zen TXINTXARRI, estreinatzeraz zioazeneri buruz gehiago jakiteko.



Koreografia entseatzan. TXINTXARRI

### Bi egitarauen xehetasunak

Alde batetik, Lasarte-Oriako Udalak hainbat eragilerekin batera prestatutako egitaraua aurkeztu genuen. Bertan azaldu genuen bost jai egunetarako erakundeak egindako jardueren eskaintza.

Bestalde, San Pedro Jaiak baino egun bat lehenago hasi ziren Sorgin Jaiak-en berri ere eman zuen aldizkariak; horiek iragarritako

programazioa argitaratu genuen.

### Sorgin Jaietako aintzatespena

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek piztu zuten jai lehenerrarazi zuen suziria. "Urte hauetan guztietan zehar Lasarte-Oriako euskalgintza, herrigintza eta irrigintzaren ikurzein eredu izan dira. Haur ginenetik gazte bihurtzeraino gure buru, bihotz eta eskuak martxan jartzeagatik, eskerririk asko", azaldu zuen Sorgin Jaiak-ek.

### Ttakun KEren eskaintza

Ohi bezala, euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa bultzatu zituen Ttakun Kultur Elkarteak aurten San Pedro Jaietan ere, hainbat jarduera antolatuta.

### Txupina jaurtitzaz arduratu zen omenuari elkarrizketa

Txema Valles Viguera *EL Diario Vasco*-ko korrespontsal erretiratua omen zuten sanpedrotan, eta hori hala izaki, berarekin hitz egin zuen TXINTXARRI-k. 40 urtetako kazetari lanak emandakoak kontatu zituen. Horrekin batera, bere gertuko senide, lankide eta lagunak testigantzak ere bildu genituen.

### Duela 25 urteko San Pedro Jaietako Jaiei begira

Artxibo historikoan arakatu eta 1998ko San Pedro Jaietako argazki bitxi ugari topatu zituen TXINTXARRI-k. Aurten festak hasi aurretik, 90. hamarkadako azken urteetako irudiekin argazki galeriak sortu eta [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalera igo zituen.

### Eraso matxisten aurka eragiteko protokoloak

San Pedro Jaietan gerta zitezkeen eraso matxisten aurkako udal protokoloa aurkeztu zuten Lasarte-Oriako Udalak eta Berdintasun Kontseiluak. Bestalde, Sorgin Jaiak-ek ere bide orri bat prestatu zuen Okendo plazako txosna gunea herritar guztientzat espazio segurua izan zedin.

## San Pedro Jaiak emandakoa bildu genuen festen ostekoan

### Ekainaren 27a: akelarrearen hasiera

Sanpedroak baino egun bat lehenago hasi ziren Sorgin Jaiak. Azken bi hamarkada pasatxotan egin duten lez, aurten ere aisialdi eredu alternatiboaren aldeko aldarria zabaldu zuten, tentuz aukeratutako osagaiekin egindako edabe eta akelarre erraldoi baten bidez.

Kuadrillen jaitzierarekin eman zioten hasiera jardueraz betetako egitarauari, eta horren atzetik etorri ziren gainerakoak: Pirritx, Porrotx eta Marimototsi omenaldia; Kinada eta Ameba musika taldearen kontzertua; eta, DJ Fantasiaren emanaldia.

### Ekainaren 28a: sanpedroen lehen eztanda

Gure Patxintxi berrien eguna eta urte osoko pazientzia etxean uztekoa izan zen; San Pedro Jaietan hasiera.

Haurrak izan ziren protagonista goizean, udaletxe zaharretik jaurtitako txupinazoarekin. Txema Valles Viguera ere jaso zuen eguneko lehen aitor-tza; bera arduratu zen udaletxe zaharreko balkoitik etxafuegoa pizteaz.

Behin festa lehertuta, askotariko ekintzetan parte hartu zuten herritarrek, hala nola, Ttakun KEk antolatutako markarroi janaz.

Arratsaldean, berriz, pregoia irakurri zuen Vallesek; hitzartzea amaituta, suziria jaurti zuen Okendo plazako udaletxe bakoitik. Begira zituen ordurako Oriako auzotik dantzan etorritako Sorgin Dantzako kideak, besteak beste. Festa lehertzearekin batera, gozatu ahal izan zuten herritarrek txarangaren doinuez.

Bitartean, Sorgin Jaiak-ek bigarren eguneko programazioa aurrera eramane zuen. Mejillon Tigre kolektiboak *Hitz esana* antzezlanaren emanaldia egin zuten Gaztelekuetan. Iluntzean, berriz, sexu askapenaren aldeko manifestazioa aurrera eramane zuen Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboak.

Gauak ere ekarri zituen makina bat jarduera. Herri afaria eta mota ezberdinetako doinuak batu ziren San Pedro bezperako gauean; danbor hotsek, zein musika emanaldi anitzek dantzan jarri zituzten herritarrak.

### Ekainaren 29a: San Pedro Eguna

Joselontxo txarangak esnatu zuen Lasarte-Oria goizean. Lasarte-Oriako zaindariaren omenezko meza egin zen San Pedro parrokiari, eta San Pedro Jaietako omenaldiak hartu zuen Manuel Lekuona kultur etxea. Zero Seteko akordeoilariak eta Lasarte-Oriako erraldoiek egin zioten harrera Txema Valles Viguera, eta Erketz EDTko kideek aurrerakua dantzatu zioten. Protagonistak oholtza hartu eta udalaren omenaldia jaso ostean, bere ibilbide profesionalaz hitz egin zuten aretoan bildutakoekin.

Arratsaldean, aldiz, haurrak puzgarrietan ibili ziren, eta gazteek, berriz, Sorgin Jaiak-ek antolatutako orientazio jolasez gozatu zuten. Helduentzat ere izan zen eskaintzarik: Ttakun KEk aurrera eramandako sagardo dastaketa, eta Aterpearen sardina jana.

Gauak ere ekarri zuen planik. Urteroko bertso saiotik hasi, eta kontzertuekin amaitu zen zaindariaren eguneko gaua; Okendo eta Andatza plazetan izan ziren musika emanaldiak.

### Ekainaren 30a: kirola ere protagonista

Eguraldia lagun, gorputza astinduz hasi zuten eguna nagusiek; erakustaldi ederra egin zuten Okendo plazan. Bien bitartean, Intza KEk antolatutako esku pilotako San Pedro Jaietako txapelketako finalak jokatu zituzten gaztetxoek, Loidibarren pilotalekuan.

Arratsaldean, haurrentzako parkeaz eta xexenez gain, pilotak hartu zuen berriz ere Loidibarren pilotalekua. Jaizkibel plazan *Mundo Costrini* kale antzerkia ikusteko parada izan zuten bertan bildutakoekin, eta Andatza plazan, barre ugari entzun ziren iluntzean; Hu-Ha! Remember Festa-k hartu zuen eta hori hasi bitartean, Mikel Bermejok bakarriketa saioa eskaini zuen.

Sorgin Jaiak-en eskutik, berriz, bertso poteoaz gozatu zuten herritarrek, eta elkartasun afaria aurrera eramane zuten parrandari ekin aurretik.

Isla plazan erritmo latinoamerikarrak izan zituzten herritarrek Azabache taldearen eskutik. Okendo plaza, aldiz, euskal musikaren aterpe izan zen bi eskain-

tza oso bestelakorekin: Neomak zazpikotearen folk abangoardista eta Zetak taldearen pop elektronikoa. Gazteenek Oriarte Landaberriko patioa izan zuten dantzaleku. Txolas DJaren saiora jendetza joan zen.

### Uztailaren 1a: haurrak protagonista

Lasarte-Oriako txistulariek eman zioten hasiera goizari. Erraldoi eta buruhandien konpartsa herritarren barrena ibili zen, Ttirriki-Ttarrakako trikitalariak lagunduta. Giroa goibel egon arren, Askatasunaren parkean azoka izan zen eguerdian Sorgin Jaiak-ek eskutik. Karpa azpian edo etxe arkupean produktu ezberdinetako postuak izan ziren ikusgai.

Haur danborrada izan zen bazkalosteko ekitaldi nagusia; dozenaka haurrek makilak astindu eta gogotsu jo zituzten barrilak eta danborrak.

Sorginen Akelarrea amaitzeko bazen ere, jai giroari eutsi zioten arratsaldean. Bazkalosteko lehen jarduera patata tortilla txapelketa izan zen. Sabela bete eta Ankoker taldearekin kalejiran joan ziren partaide asko.

Uztaileko lehen eguneko parranda izan zen herritar askorentzat luzeena, gaupasarena. Sorgin Jaiak-ek aurten prestatutako programa ixteko, Rukula taldeak kontzertua eman zuen Okendon. Udalak, berriz, talde hauen kontzertuak antolatu zituen: La Guardia, Supersingles eta Star Ways. Kontzertu bataren eta bestearen artean, Dinbi Banda batukada taldearen erritmora erdigunetan barrena ibili ziren.

### Uztailaren 2a: azken jai eguna, euripean

Lehen ordutik ia etengabean erori zen euria eta zenbait jarduera moldatzera behartu zituen antolatzaileak. Extremadura Etxeko lagunak migal prestatu zituzten Okendo plazan. Prest zeudenean, ardo zuri edo beltzarekin batera banatu zizkieten ilara luzea osatu zuten herritarrei. Isla plazan ere ura ez zen oztopo izan Voces del Ebro koruaren jotak entzute-ra joan zirentzat.

Gauean herritar ugari bildu zen Atsokakar auzoko zelai zabalean su artifizialen erakustaldi koloretsua ikusi eta sanpedroei agur esaten hasteko.

2024



*mila esker!*

tx





## Urtarrila

A1	A2	A3	01	02	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

## Martxoa

A1	A2	A3	01	02	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

## Maiatza

A1	A2	A3	01	02	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

## Uztaila

A1	A2	A3	01	02	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

## Iraila

A1	A2	A3	01	02	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

## Azaroa

A1	A2	A3	01	02	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

## Otsaila

A1	A2	A3	01	02	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

## Apirila

A1	A2	A3	01	02	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

## Ekaina

A1	A2	A3	01	02	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

## Abuztua

A1	A2	A3	01	02	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

## Urria

A1	A2	A3	01	02	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

## Abendua

A1	A2	A3	01	02	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

### Koalizioan gobernatzea adostu zuten PSE-EEK eta EAJK

Sozialistek eta jeltzaleek euren boto propioak baliatu zituzten gobernagarritasun ituna aurrera ateratzeko; datozen lau urteetan 183 proposamen gauzatzea xede. PSE-EEK zazpi batzorde – Hirigintza, Sozioekonomia eta Hezkuntza, Zerbitzu publikoak, Parte hartzea, Ogasuna, Gizarte zerbitzuak eta Jaiak – eta EAJK hiru – Euskara, Kultura eta Kirolak –. EH Bilduk kritikatu egin zuen akordioa: "Dedikazioa eta antolaketa garestiago ordainduko dituzte herritarrek".



PSE-EE bozkatuena izan zen TXINTXARRI

### PSE-EE bozkatuena, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan

Normaltasunez eta apenas jende pilaketarik gabe bozkatu zuten lasarteoriatarrek uztailearen 23an Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. 14.671 herritar deituta zeuden botoa ematera, eta horietako 9.491k (%64,69) parte hartu zuten, egunean bertan hauteslekuetara joanda edo aurreko egunetan posta bidezkoa botoa baliatuta. PSE-EE izan zen beste behin alderdi bozkatuena, 3.437 boto eskuratuta (%36,45), bigarren postuan EH Bilduk aurre hartu zion EAJ-PNVri, udal hauteskundeetako joera berretsiz. 2.155 boto eskuratu zituzten, jeltzaleek, berriz, 1.304. Elkarrekin Podemosen ondorengotzat har daitekeen Sumar-ek 1.103 boto lortu zituen, PPK, 973 eta Voxek 293. Alderdi nagusiez gain, 113 herritarrek beste aukera batzuen alde egin zuten, eta halaber, 49 boto zuri eta 64 baliogabe ere zenbatu zituzten.

### Hondakin organiko gehiago, kanpainaren ondorioz

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi zuen maiatzean 73.270 kilo hondakin organikoaren zatiki

jaso zituela, iazko hilabete berean baino %60 gehiago (45.790 kilo). "Nabarmen" hobetu zen hondakin organikoaren zatikiaren gaineko bilketa, Lasarte-Oriako Udalaren hitzetan. Hala ere, zehaztu zuten birziklatze tasa 7,5 puntu baino ez zela igo eta sortutako zabor guztiaren %51,5. Birziklatzeari buruzko kanpaina balioan jarri zuen udalak eta eskerrak eman zizkien egunero hondakin guztiak "behar bezala" bereizten dituzten herritar eta establezimenduei. Maiatzeko datuak onak izanagatik, kanpainaren sustatzaileek nabarmendu dute "gehiago" nahi dutela. "Hondakin organikoak sortzen ditugun guztien %40 dira, eta horien herena baino ez ditugu bereizita biltzen. Hobetzeko asko dugu".

Eguzki Talde Ekologistak gaitzetsi egin zuen udalak birziklatze tasa igoera horren aurrean erakutsitako "harrokeria eta euforia", eragilearen ustez, ez baitzegoen "inolaz justifikatua".

### Sute bat gertatu zen Zubietako erraustegian

GuraSOS elkarteak salatu zuenez, hilaren 4an sute bat izan zen Zubietako erraustegian, bolumen handiko hondakinen hobian. GHK kontsultzioaren arabera, 07:45ean piztu eta 10:00etarako kontrolatuta zuten. Gertatutakoaren aurrean, elkarte horrek eskatu du esateko zein izan den erre zen materiala eta zein sustantzia "arriskutsu" igorri zituen airera.

### Sorgin Jaiak "nazkatuta" dago urtero erasoak salatu behar izateaz

Sorgin Jaiak-eko kideek, ohar bidez, salatu zuten aurtengo festetan ere erasoak pairatu zituztela. Horrekin batera, nabarmendu zuten "kokoteraino" daudela kalean beldurra pasa eta festak eta parrandak nahi dituzten moduan ez gozatzear; horren aurrean, irmo adierazi zuten erratzak eskuan hartuta "gorputzak, plazerak, ahotsak eta elkar zaintza erdigunean jarriko dituen bizimodu baten alde" borrokatzen jarraituko dutela, "elkarren artean saretzea ahalbidetuko duten espazio seguruak sortuz".

### Urriko baterajotzearen aurkezpena egin zuen Asunak Taldeak

Euskal Herriko Neska\* Gazteen Baterajotzea aurkeztu zuen herritar talde batek Okendo plazan

egindako ekitaldian. Urriaren 13tik 15era Usurbilen aurrera eraman beharreko topaketan zaintzaren auzia eztabaidatzea erabaki zuten, gaiak badutelako zer esan. Bizitza eta kapitalaren arteko talka areagotu egin dela ikusten dutela azalduz hasi zuten hitzartzea, eta nabarmendu, "prekaritatean murgildurik eta lanerako" bizi direla. Horrekin batera, ohartarazi zuten gero eta gehiago direla gertatzen diren eraso arrazista, klasista eta matxistak. Hala, euren kontra "egunero erreproduzitzen den sistema distopikoa" ez dute erreproduzitzeko. "Orain da antolatzeke unea, iraultza feministara batzekoa, erresistentzia egitekoa".

### Gotzon Huegunen 'Arbasoak' erakusketa, zabalik

Eskultore lasarteoriatarrek zuzar egindako hamasei artelanez osatutako erakusketa ondu zuen. Gizakiak naturarekin duen loturaren erakusle diren eskulturrak, muralak eta likenak ikus ditzakete bisitariak. Hamar urteko "esperimentazio lanaren" emaitza da.



Gotzon Huegun eskultorea. TXINTXARRI

### Estudioiko bigarren lana kaleratu zuen Kinada taldeak

Estimuluekin egin beharreko bidaia proposatu zuten lehen lanean, eta norberak bere barrura egin beharreko ariketa bat da oraingoa. Kinada laukote lasarteoriatarrek *Etsaiarekin dantzan* bigarren estudioko lana kaleratu zuten, ordu erdi baino zertxobait azkarrago eta abiada bizian entzuteko zortzi abestiz osatutako diskoa.

### Udako Txokoak eta Kanpaldiak, haurren gozamen

Ttākun Kultur Elkarteak antolatzen dituen udako txoko eta kanpaldiei esker, euskara ardatz



Sorgin Dantzak Brunet Enean zeudenen jakin-mina piztu zuen. TXINTXARRI

## Karmengo jaiak ospatu dituzte

Urtero moduan, Oria auzoko kaleak festa giroz bete ziren Karmengo Amaren egunean. Adin guztietako bizilagunei begirako askotariko jolas eta jarduerak egin zituzten goiz partean kapera inguruan, eta arratsaldean, Brunet Eneako lorategian.

hartuta, aisialdi eskaintza paregabeaz gozatu zuten herriko haurrek. Programa batean zein bestean parte hartu zuten gazte- txoko milaka aventura bizi zituzten begiraleekin batera: Txokoetako kideek, adibidez, Iruñeko festa handiak, sanferminak ospatu edo zirkuari girotutako desfile koloretsu bat egin zuten. Kanpaldietakoek, berriz, Euskal Herriko zenbait txoko ezagutu zituzten: Albeniz, Atxondo, Donemiliaga eta Loiola.

### Haur sahararrei harrera egin zieten udaletxean

Uda sasoi Lasarte-Orian pasatu zuten hiru gaztetok, Hassana, Abdi eta Jalil-ek; Lasarte-Oriako udal ordezkariak, PPkoak izan ezik, harrera egin zieten udako bi hilabete Euskal Herrian igaroko zituzten haur sahararrei. Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko ordezkari Tomas Arruti ere bertan izan zen.

### Lasarte-Oria eta Soria, musikaren bidez elkartuta

Alboka eta Coral de Soria abesbatzerek hamalau kantako erreperitorioa eskaini zieten kapera bete zuten herritarrei ordu bete inguruko saioan. Lehenik, herriko korua aritu zen, bisitariak lekukoa eman aurretik. Bederratzikanta abestu zituzten, elkarren artean bestelakoak, besteak beste, Afrikako eta Samoakoak, dantzarako ere eman zieten erritmoekin. Euskaraz, berriz, *Kaiku*, euren abesti zerrendako

azkena, eta Albokakoekin batera abestu zuten *Izar ederrak*. Saioaren azkena, *Tourdion* izan zen. Bisita eta harrera eskertzeko lore sorta bana eman zieten bi zuzendariei (Montse Latorre eta Marta Lopez), eta, Soriako lagunak, oroigarri bat bertakoei.

### Antonio Oliden arraunlari eta patroia hil zen

Antonio Oliden Tolosa *Konpaxa* arraunlari, patroia eta entrenatzailea uztailearen 6an hil zen, 97 urte zituela. Orion jaioa eta lasarteoriatar hartua, Olidenek 11 Kontxako Bandera eta lau Espainiako Traineru Txapelketa irabazi zituen lau hamarkadako ibilbidean. Herriko traineerak 1973an lehen Kontxako bandera irabazi zuen Oliden arraunlari zela, eta 1979an bigarrena, patroia. 2020. urtean, Lasarte-Oriako Udalak eta Michelin enpresak "zor zitzaien" omenaldia egin zioten.



Antonio Oliden. TXINTXARRI

## Txakurren eta jabeen arteko harremana indartzeko txapelketa egin zuten

Xuhakan Txakur Elkartek antolatutako IV. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun (EKM) lehiaketa aurrera eramane zuten uztaileko bigarren asteburuan. Antolatzaileak "oso pozik" zeuden Apaor kaleko zirkuituan gertatutakoarekin. "Une batzuetan beroak estutu bagaitu ere, lehiakide guztiak giro ederrean aritu eta lan bikaina egin dute", adierazi zuen elkartearen lehendakari Juan Mari Encinasek. 30 bikote inguruk parte hartu zuten txapelketaren laugarren aldian, lau kategoriatan banatuta. Lasarte-Oriako partaideak ez ezik, Bartzelona, Madril, Valladolid eta beste hainbat tokitakoak ere aritu ziren. EKM diziplinaren helburua ez da animaliak jabearekin men egitea bakarrik, baizik eta bien arteko lotura sendotzea ariketak eginez.



Txapelketako une bat. TXINTXARRI

## Atari digitaleko trafikoa, inoiz baino handiagoa

2017an hasita, TXINTXARRI aldizkariaren webguneko datuak neurtzen ditugunetik, inoiz baino bisita, erabiliztaile eta saio gehiago izan ditu atari digitalak 2022-2023 ikasturtean. Ikasturteroz bezala, hamar eduki ikusienak zeintzuk izan ziren aztertu genuen, eta, datuen arabera, ikustaldi gehien izan zituen Lasarte-Oriako Udalak eta herriko zenbait eragilek sanpedroetarako elkarlanean prestatu zuten egitarauari buruzko notizia izan zen; guztira, 2.011. Zerrenda horretako hirugarren eta laugarren informazio piezak ere jai horiei buruzkoak izan ziren, 90. hamarkadako festen argazki galeria bilduma (1.052 bisita) eta kontzertu nagusien iragarpena (943). Bestalde, Euskararen 10. Maratoialdiko Sentitu fasearen

## Akusatuak, beste behin, sutara

Santa Ana eguna berezia da lasarteoriatarrentzat. Meza eta Santa Ana karkaban Erketz EDTko kideen dantzaldia dira goizeko ekimenak, hitzordu nagusia, hala ere, gaueko parodia da. Kantuan eta dantzan heldu ziren Okendora partaideak, Edermira Etxefranko Enkantenazkante eta Bitcoin Letragutxi Ziberxolomo akusatuak epaitzeko. Une batzuetan libratuko zirela zirudien arren, sutara kondenatu eta garretan erre zituzten.



Une batzuetan kontrakoa iruditu arren, kondenatu egin zituzten. TXINTXARRI

egitaraua (1.464) eta 42 egun iraun zituen ariketaren lehen urrats horren amaierako kronika (741) bigarren eta zortzigarren irakurrienak izan ziren, hurrenez hurren.

## Santa Ana pintxoa eta azoka, ospatzen hasteko

Santa Ana egunerako motorrak berotze aldera, hiru egun lehenagorako plan polita proposatu zuen Lasarte-Oriako Udalak, zenbait eragilerek elkarlanean: 38. artisau azoka eta Santa Anako pintxo ibilbidea. Urtero bezala, Aterpea merkatariaren elkarteak udalarekin lankidetzan antolatu zuen mokadugoxoen ekimena eta Buenetxea, Hiru Aldeta, Plan B, Anima eta Herriko Etxea tabernek nahiz jatetxeek parte hartu zuten. Okendo plaza bete zuen azokan, berriz, elikagaiak eta produktuak erosteko aukera izan zuten herritarrek, denak artisauak. Guztira, 22 postu izan ziren, eta horiekin batera, aisialdiko tailerretan landutakoa ikusteko aukera ere izan zuten bertaratutakoek, eta tailerretan aritzea, hurrenez hurren.



Santa Ana azokako tailer bat. TXINTXARRI



Basaundiko jaiak. TXINTXARRI

## Kultur Kale Zikloa, toki eta formatu berriekin

Kultur Kale Zikloak itxi zuen hilabete eta 2022-2023 kurtsoko kultur agenda. Xpressionk kultur elkarteak kide Jokin Telleriak, Agustin Valdivia alkateak eta udaleko kultura teknikari Jon Martinek eman zuten xehetasunen berri. Aurreko urteetan ez bezala, eskaintza musikala beste toki batean egin zuten, Tximistarreta parkean, formatu aldatuta: hiru taldek, Grezian, Iluna eta Luca Grassi & Groove Band, egun bakarrean jota. Eguraldi txarraren ondorioz, bertan behera utzi zuten jaialdia lehen kontzertua hasi berri zela.

## Saninazioak Basaundin, hilabetea ixteko

Gipuzkoako zaindariaren omeneko jaiak ospatu zituzten Basaundin uztailearen 30ean eta 31n. Horretarako, egitarau oparoa prestatu zuen La Esperanza auzo elkarteak, herriko beste zenbait eragilerek elkarla-

nean. Txalapartarien doinuekin hasi eta iluntzera arte makina bat ekimen gehiago etorri ziren atzetik: paella jana, mus txapelketa, haurrentzako jarduerak (apar festa eta ur jolasak), karaokea, Oaintxe in deu! txaragaren emanaldia eta Ibai Berriak taldearen kontzertua. Zaindariaren egunean ere ez zuten aspertzeko aukerarik izan herritarrek eta ederki pasa zuten: martxa erregulatua, txistularien diana, meza, buruhandiak, aldebereko xake partidak, patata tortilla txapelketa eta DJ Naken-en saioa.

## Lasarte-Oria Trailek lehen mendi lasterketa antolatu zuten

Mendi lasterketan 138 parte hartzaile izan ziren lehen. Jon Presa eta Irati Urruzola izan ziren lehen herritarrek, Ibai Makazaga izan zen azkarrena eta sari nagusiaz gain, Buruntza mendiko saria ere eskuratu zuen. Ibilbideak 14 kilometro eta 800 metroko desnibel positiboa du. Okendo plazatik abiatu eta Sasotatik gora, Plazaolako bidea hartu zuten korrikalariak Buruntzara bidean. Gaina egin ondoren, Askatasuna parkean amaitu zen lasterketa.

## Ander Goenaga surflaria Europako txapelduna da

Lau urteko etenaren ondoren Europako parasurf txapelketa jokatu zuten Valdoviñon, Galizian. Europako surflari onenak bildu ziren A Frouxeira hondartzan eta Ostadar Inklusioa taldeko Ander Goenaga kidea Prone 2 mailan nagusitu zen, bai bakarka bai Espainiako selekzioarekin.

## Ostadarreko B16 taldea Donosti Cupen garaile izan zen

Europa League faseko finalera iritsi eta irabazi egin zuen taldea urdin-beltzak. Ekintza 3-1 garaitu ostean, garaikurra altza zuten gazteek. Herriko gainerrako ordezkariak ederki lehiatu arren, kanporaketa maila ezberdinetan lehiaketa utzi behar izan zuten.

## Maialen Chourrautek ezin, Europako Jokoetan

Ekainaren 29tik uztailearen 2ra, Europako Jokoak lehiatu zituzten Krakovian. Piraguismoko proban, Maialen Chourraut herritarra izan zen borrokan. Lasarteoriatarrek eslalom modalitateko K1 mailan zein kayak krosean egin zuten arraun, Kolna kanalean. Sailkapeneko probak gaituzten arren, ez batean ez bestean ez zen finalera sailkatu.

## Narrea Furundarena, bosgarren

Ostadar Atletismo saileko Narrea Furundarena Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan lehiatu zuen uztailearen 15ean, Iruñean. Herritarrek Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen luzera jauziko proban. Atletia gazteak 12,50 metroko jauziarekin bosgarren postuan amaitu zuen lehiaketa. Euskadi zazpigarren izan zen.

## Santa Anako txapela, San Miguel eta Arrutirentzat

40. Santa Ana Pala txapelketako garaileak erabaki ziren uztailearen 26an Loidibarren frontoian. Final borrokatu batean, Julen San Miguel-Asier Arruti bikoteak Jon Pello Artetxe eta Xabier Arteaga garaitu zituzten, 24-30. 3. postua eskuratzeko lehia ere estua izan zen; Julen Urruzola eta Eneko Sarasola Tomas Pagaoga-Martin Zelaia bikoteari gailendu zitzaion, 28-30.



Txapeldunak, garaikurrekin. TXINTXARRI

### LOZET elkarteko zenbait kidek Abuztuaren 31ko gertaerak oroitzeko jardueretan parte hartu zuten

LOZET elkarteko zenbait kide Donostian izan ziren 1813ko abuztuaren 31ko sutea eta sarraskia oroitzeko ekimenetan parte hartzen, goizetik iluntzera arte. Egun berezi eta hunkigarria izan ohi da hori donostiarrentzat; aurten 210 urte bete dira armada portugaldar-ingelesak hiria hartu eta sutea eta sarraski itzelak eragin zituenetik; hiritarrek eta soldadu frantziarrek borroka egin arren, irailaren 8an errenditu ziren. Gertakari horiek gogoratze aldera, goizetik iluntzera arte aurrera eraman zituzten hainbat jarduera Gipuzkoako hiriburuan, eta horietan parte hartu dute LOZET elkarteko zenbait kidek, beste hainbat eragile eta danborrada taldeekin batera.



LOZETeko kide bat. LOZET

### Donostia Arraun Lagunak, Ligako garaile

2023ko arraun denboraldia bukatzeaz eta Kontxako banderako bigarren jardunaldiaren faltan, liga guztiak amaitu ziren. Euskotren ligan eta KaE2 ligan lehian izan diren herritarrekin solasaldia izan zuen TXINTXARRI euren esperientzia jasotzeko. Arraun Ligak abuztuaren amaitu ziren. Aurreko urteetan bezala, Aiora Belartietak (Donostia Arraun Lagunak) eta Intza Fernandez (Hondarribia Bertako igogailuak) izan ziren Euskotren Ligan lehian eta Gaizka Ormazabal, aldiz, Hibaikako eskifaian, KA E2 Ligan.

Belartietak eta Lugañeneko eskifaiak Euskotren Ligako garaikurra altxatu zuten. Ekainetik abuztura arteko jardunaldietan egonkor ibili zen Donostia Arraun Lagunak. Hasieratik lidergoari eutsi eta Orio zein Donostiarra traineruen kolpeei aurre egin behar izan ziren, baina tinko mantendu eta Zarautzeko ikurriña eskuratuz amaiera bikaina eman zion lehiaketari. 2021 urteko balentria dute orain buruan eta horretarako, Kontxako bandera irabazi behar zuten.

Bosgarren postuan amaitu zuen Liga Hondarribia Bertako Igogailuak ontziak. Intza Fernandez herritarren ontzia Ohorezko txandatik gertu izan zen liga osoan zehar, baina behin bakarrik eman ahal izan zuen pausoa Santurtzin. Igoera lehiatzeko asmoarekin Hibaikak eta Gaizka Ormazabal herritarrek ilusioz ekin zion

KA E2 Ligari. Emaitzak ez zituen lagun izan Errenteriako eskifaiak, ordea, eta bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuten.



Nahia Zudaire, podiumean TXINTXARRI

### Nahia Zudaire, Munduko txapelketako podiumean

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek zilarra eta brontzea jantzi zituen abuztu hasieran Manchester-en jokaturako igeriketa Egokitutako Munduko txapelketan eta hiru Espainiako errekor berritu zituen. Zudaire eta gainerako taldeko kideen jardunak Pariseko Paralinpiar Jokoetan aritzeko bederatzi plaza eman zizkieten taldeari. Aurtengo denboraldian erabakiko da zein igerilarik izango duten Paralinpiar Jokoetan lehiatzeko aukera eta zubietarrak gogor egingo du lan Parisen egoteko.

### Chourraut, podiumetik gertu

Piraguismoko Munduko Kopako jardunaldia jokatu zuten abuz-



2020ko otsailaren 12an hartu zuen kargua Iñigo Zabaletak. TXINTXARRI

### Zinegotzi izateari utzi dio Zabaletak

Abuztuko ezohiko bileran utzi zuen kargua Iñigo Zabaleta sozialistak, kabinete buru aritzeko. Hunkituta eskerrak eman zizkien alderdi sozialistako taldekideei, bereziki, alkateari "momentu asko bizi ditugulako hiru eta erdi hauetan", baita gainerako alderdietako zinegotziei ere.

tuaren 31tik irailaren 3ra La Seu D'Urgellen, Herrialde Katalanak. K1 mailako eslalon eta kayak kros modalitateko probetan lehiatu zen Maialen Chourraut herritarra eta podiumeko atarian geratu zen. Bi txapelketetan kanporaketak gainditu, finalera iritsi eta laugarren postua eskuratu zuen herritarra. Hitzordu garrantzitsua izan zuen handik gutxira herriko palistak, irailaren 19tik 24ra Munduko txapelketan aritu zelako, Lee Valley-n (Erresuma Batua) eta Joko Olinpikoetarako tokiak jokoa izan ziren.



Chourraut, lehiatzen. TXINTXARRI

# txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
doan eta euskaraz

## Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

### Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) • 646 82 44 66



### Aitor Manso, Jaizkibelgo igoerako podiumean

Motor barrunba nagusi izan zen Jaizkibel mendiko magalean irailaren 16an eta 17an, izan ere, Euskadiko Mendi igoeretako ligako jardunaldia jokatu zuten. Automobilismoaren zaletuak bidegurutze eta bihurtugetan bildu ziren. Aitor Manso herri-tarrak proban parte hartu zuen eta podiumera igo zen bitan. Saillkapen orokorrean hirugarren amaitu zuen lasterketa eta bere mailako (9. kategoria) garaile izan zen.



Manso, podiumean. TXINTXARRI

### Udako denboraldiari agur esan zioten zaldien zaletuek

Donostiako Sari Nagusia jokatzearekin batera udako denboraldia amaitu zen Hipodromoan. Irailaren 10ean zaldien zaletuek 2023. urteko azken lasterketetzat gozatu zuten. Kirol txartela sarian gerora sari nagusia eskuratu zuen Vaclav Janacek jockeya gailendu zuen, *El Sokhna*-rekin. Espainiako Amateuren Kopan Claudia Tena-*Gaheris* bikoak erdietsi zuen garaipena, Donostiako Sustapena sarian, berriz, *Rosso Antico*-Sikorova izan ziren helmugaratzen lehenak. Sari nagusia, esan bezala, Janacek lortu zuen *The Way of Bonnik* zaldiarekin.

### Donostia Arraun Lagunak, garaiezina

Aiora Belartietak herritarrak eta Donostia Arraun Lagunak-eko eskifaiak duela bi urteko balentria berretsi dute; Euskotren liga eta Kontxako Bandera irabazi ditu. Estropadako errekorra berriro zuen Lugañenek Kontxako bigarren jardunaldian. Orio indartsu ateratu zen arren, Donostia Arraun Lagunak eta Donostiarrak gertu izan zituen. Bigarren luzean, borroka izu-

garria izan zen baina Donostia Arraun Lagunak erritmoari ederki utsiz alde ireki eta nagusitasunez gailendu zen. 10.23,32 denbora eginez, gainera, errekorra ezarri zuen. Intza Fernandez eta Hondarribia Bertako Igogailuak, aldiz, lehen txandan lehiatu ziren. Bosgarren postua (10.55,48) eskuratu zuten.

### Igerilariak ur irekien denboraldia amaitu zuten

Itsas zeharkaldien denboraldia-ri agur esan zioten igerilariak irailaren 9an. Kontxako Badiako igerialdia izan zen ligako azkena. Buruntzaldea IKTKo Itsaso Tolosa (31.53) seigarren sailkatu zen emakumezkoen mailan eta Juan Vicente Martin (31.56) beterano 2 mailan bigarren sailkatu zen. Talde kide Garazi Etxeberria (32.42), Igor Aman-tegi (36.05), Asier Gorostegi (37.58), Laura Igea (38.22) eta Manu Santos (43.12) ere iritsi ziren helmugara. Era honetara, Gipuzkoako Ur Irekien Ligako sailkapena osatu zen eta taldeko bi kide izan ziren lehen postuetan: Laura Igea Master+ mailako bigarren sailkatu da eta Juan Vicente Martinek beterano 2 kategoriako lehen postua eskuratu zuen.

### Erketzen ikasturte amaierako saioa, ikasturte hasieran

Sanpedroen aurretik ikasturtean landutakoa erakutsi ohi die Erketz Dantza Taldeak herritarrei. Ekainean, ordea, eguraldi txarrak ez zien horretarako aukerarik eman. Hilaren 23an jarri zuten orduan aurrera eraman ezin zutena egiteko hitzordua, eta badaezpada ere, kultur etxea prest zuten goizeko lainoak euri gehiagorekin etorri izan balira. Udazkena hasi berria bazen ere, arratsaldeak ekaineko ohikoa zirudien, eguzkitsua eta epel-beroa. Duela hiru hilabete ez bezala, halakoa izan zen eguraldia, eta hori lagun zutela ordubete luzeko erakustaldia egin zuten dantzariak. Plazan jarritako aulkiek eta hesiek osatutako gunea izan zuten agertoki eta eserita edo zutik, herritar ugari izan zuten begira.

### Nazioarteko zirkuitua, gogoan

San Sebastian Circuit Spirit VI. Rallyaren partaideak Lasarte-Orian barrena ibili ziren irailaren 23an. Andoaindik Hipodromora iritsi eta geldialdia egin zuten, ordu erdiz gertutik

ikusteko aukera emanez herritarrei. Ondoren, Oriarantz abiatu ziren, Hipodromo etorbidea eta Kale Nagusia zeharkatuta. Zirkuitu ibilbidean erregular-tasun proba egin zuten. 1923-1935 urteen artean gure herrian izandako nazioarteko auto zirkuitua gogora ekarri zuten, hain zuzen ere, 100 urte bete dituenean.

### Martxan jarri zuten Gurasoleku egitasmoa

Herriko ikastetxeetako irakasleak prest daude Gurasoleku egitasmoari buruz jasotakoa gurasoei transmititzeko. Proiektu horretan izena emateko eskuorriak banatu zizkieten; parte hartu nahi zutenek irailaren 29a baino lehen bete eta entregatu zituzten orriak. Ikasturte berria eta helburu berbera: Lasarte-Oriako haurrak ahalik eta hiztun osatuena izatea. Hori erdiesteko, Gurasoleku egitasmoak familiaren, eskolaren eta herriaren baliabideak eta gogoak konektatzen ditu, familia tipologia desberdinetara egokituta dauden hiru adar hauen bidez: GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia.



Mugikortasun jolasetan aritu ziren.

TXINTXARRI

### Europako Mugikortasun Asteak energia jasangarria sustatu zituen

*Energia aurreztu* lelopean aurrera eraman zuten aurtengo Europako Mugikortasun Astea. Esan bezala, Helarazitako mezua herritarrek baliabide jasangarriak eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak erabili behar dituztela izan zen, hala nola, oinez ibiltzea, bizikleta edo autobusa. Bestalde, udalak gogoratu zuten Mugikortasun Jasangarriaren plana egin dagoela eta bertan jasotakoa inplementatzea dagokiela orain. Egitasmoarekin bat egin zuten Lasarte-Oriako Udalak, eta Artelat



Extremadurako jantzi tradizionalen desfilea egin zuten. TXINTXARRI

## Ama Guadalupeko jaiak

Guadalupeko Amaren omenezko jaiak ospatu zituen Extremadura Etxeak hilaren 7tik 10era. Askotariko jarduerak, jolasak eta probintzia hartako jakiak dastatzeko hainbat aukera izan ziren Sasoetan.

enpresarekin batera zenbait ekimen egin zituen: *Jarri prest zure bizikleta MUGIrekin*, txirrindan ibiltzen ikasteko ikastaroa eta ipar martxa saioa, Ostadar SKTren eskutik. Ohi bezala, bigarren eskuko azoka ere aurrera eraman zuten, eta aldi berean, bizikleta martxa eta mugikortasun jolasak ere gauzatu zituzten Kale Nagusian.

### Kultur etxera zinema ikustera, goizago aurten


Okendo Zinema taldeak berrikuntza nabarmen batekin ekin zuten aurtengo emanaldiei: ostiraletako paseak 20:00etan hasten ari dira, ez 22:00etan. arrazoi hauengatik: "Gaur egun, pelikula gehienek bi ordu edo gehiago irauten dute, eta, 22:00etan ematen hasiz gero, berandutu egiten zaigu; uste dugu pandemiak eragin duela gure ohituratan, lehenago etxeratzeko joera dugu orain. Gainera, bi ordu lehenago hasteak erraztu egingo digu gonbidatuak ekartzea; oso interesgarria iruditzen zaigu ikus-entzuleek egile eta aktoreekin iritziak partekatu ahal izatea".

Bestalde, iragarri zuten hemengo ekoizleen lana erakusten segiko dutela, Euskal Dokumentalen Zikloaren bidez. "Ikusi dugu pase jendetsuenak egitasmo horretakoak izan ohi direla; gertuko eta batez ere euskarazkoak diren ikus-entzunezkoek

herritarrak erakartzen dituzte, produkzio handiagoek baino gehiago".

### Euskarazko aisialdirako eskaintza erakargarria

GurasoLeku, Amaraun, Gazte Kluba, Kuadrillategi eta Faktoria. Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak duten euskara hitzarmenaren baitan, bost egitasmo horiek prestatu dituzte 0 eta 18 urte arteko lasarteoriatarrentzat, euren aisialdia ere euskaraz garatu eta bizitu dezaten eskaintza zabal, dibertigarri eta hezitzaile baten bidez. Horren helburua da gure herriko gazteek euren hizkuntza ohiturak aldatzea, bestela esanda, euskaraz gehiago hitz egitea, proiektu bakoitzak bere ezauzgarriekin adin tarte jakinetan eraginda.



Emanaldi bat. TXINTXARRI

## Euskararen bidaia harrigarria hasi zuten ikasleek

Udal Euskaltegiak irailean hasi zuen 2023-2024 ikasturtea. Ikasleetako batzuk aurrez aurreko eskolak hartzen ari dira, beste batzuk, aldiz, sareko ikasketa prozesua aurrera eramaten. Nahiz eta izen emate epea amaitu den, interesdunek oraindik matrikula egin zezaketela ohartarazi zuten arduradunek ikasturte hasiera iragartzeko egindako ekitaldian. Halaber, ikasturte hasierako leloa ere aurkeztu zuten. *Euskara, bidaia harrigarria!* aukeratu zuten, izan ere, euskara ikasteko izena emandako ikasleek "bidaia bati" ekiten baitiote, euskaltegiko ordezkarien arabera. "Mundu berri bat eza-gutzeko eta gozatzeko aukera" izango dute: "Gogoan izan herri eta kultura guztietan hizkuntza izaten dela altxorrik preziatuena", azaldu zuten.



Abdi, Haron eta Hassana. TXINTXARRI

## Hassana-k eta Abdi-k gure herrian igaro dute udara

Oporrak Bakean egitasmoaren bidez, Saharan bizi diren umeek aukera dute Euskal Herrira etorri eta udara harrera familiekin igarotzeko. Lasarte-Orian bi izan dira aurtan, Hassana eta Abdi. Saharako kanpalekuetara itzuliak zirela bi umeak, harrera familietako batekin hitz egin zuen TXINTXARRI-k. Esperientzia "ederra" bizi izan dutela adierazi zuten familia horretako kideek, hasiera-hasieratik, egokitzena "oso erraza" izan zelako, ohikoa izan ez arren. Tttakun Kultur Elkartearen Udako Txokoez gozatu zuten Haron begiralearen laguntzarekin, eta abuztuan oporretara joan ziren.

## XVIII. Musika Topaketaz gozatu zuten

Danok Kide elkarteak udalarekin antolatutako XVIII. Musika To-

## Erdi Aroko azoka arrakastatsua

Erdi Arora bidaiatu zuten zazpigarrenez lasarteoriatarrek. Eskulangile eta askotariko jaki postuek irailaren 15etik 17ra hartu zuten Kale Nagusia eta Okendo plaza. Guztira, 112 izan ziren beraien eskaintza ekarri zuten merkatariak. Horrekin batera, musika, ikuskizunak, tailerrak eta jolasak ere izan ziren. Deigarriena, gerlarien borrokaldia izan zen, ezpata edo aizkora eta ezkutuak eskuetan aritu ziren garai horretako armadurak jantzita.



Erdi Aroko borrokaldi bat ikusteko aukera izan zuten herritarrek. TXINTXARRI

paketen barruan, *Ad lucem quam inhabitas* izeneko organo eta kantu emanaldia aurrera eraman zuen. Ama Brgitarren komentuko elizan egin zuten emanaldia, eta bertan aritu ziren Ana Belen Garcia organo jotzailea, Izei Mugica tenorea, eta Maria Jaunarena eta Marta Garcia sopranoak. Hamar pieza eskaini zizkieten bertan bildutako ikus-entzuleei.

## Aisia, kontzientziarioa eta hezkuntza sustatzeko plana

Lasarte-Oriako Udalak urritik ekainera bitarteko Gaztelekura-ko prestatako eskaintza ezagutarazi zuen. Eskuorri batean jaso zituen ikastaro, hitzaldi, indartze eskola, izen emate datu eta bes-telakoak; eta etxez etxe banatu zituen. Eskolan laguntzeko tailerra bultzatu nahi izan zuten antolatzaileek. 12 eta 18 urte arteko ikasleei zuzendua, ikasgaiekin dituzten zalantzak Gaztelekura eraman eta laguntzaile duten begiraleari kontsultatzeko aukera zuten. "Xedea ez da akademia bat izatea, baizik eta ikasketetara biltzeko gune bat".



'Ad lucem quam inhabitas' emanaldiaz gozatu zuten komentuan. TXINTXARRI



Zatarain auzoa. TXINTXARRI

## Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatzeko eskatu zuten

Iraileko ohiko udalbatzarrean eztabaidatutako puntuetako batean Lasarte-Oriako etxebizitzaren arazoa aztertu zuten. Zehazki, "Lasarte-Oriako alokairu merkatuko prezio garestiek tenkatutako eremuaren definizioa, eta Estatuko etxebizitza legeak ezartzen dituen mugak mimetan gauzatzeko" mozioa landu zuten. Stop Desahucios plataformako kide Rosa Garciak hartu zuen hitza, eta eskaeraren gaineko xehetasunak eman zituen, eta eskatu, Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatzeko. Besteak beste, egun familia unitate askok euren diru sarreraren %40 edota %50 bideratu behar dute alokairua ordaintzera, eta, ondorioz, Garciaren esanetan, alokairuen prezio altuak ezin ordainduagatik, etxegabetze arriskuan dauden familien zenbait kasu badira herrian. Honako beste datu hau ere ezagutarazi zuen: Lasarte-Orian 854 pertsona daude Etxebiden (Etxebizitzaren Euskal Zentrua) izena emanda.

Udalerrria eremu tentsionatu izendatzeak ekarriko luke kontratua amaitu ondoren errentariarentzat urtebeteko aparteko luzapena egiteko aukera, eta errentari berrientzako kontratu berrietan, alokairua aurreko kontratuko errentara mugatzea. Horrekin batera, erreferentziako prezio indizeen sistemen mugak azken bost urteetan alokatuta egon ez diren etxebizitzari ere aplikatzeko aukera ere barne hartzen du.

## Emakumeak ahalduz jarraitzeko

Beste hainbat topagunek eta erakundek bezala, Sexuen Elkartzetarako Emakumearen Zentroak ikasturte berriari ekin zion irailean. Iaz bezala, ohiko ikastaro sorta bat eta Emakumeentzako Jabetze Eskola jarri zituzten herriko emakumeen eskura. Agustín Valdivia alkateak, Gizarte Zerbitzuetako sailburu Lourdes Acevedok eta elkargune hori kudeatzen duen Maite Igleziasek aurkeztu zuten aurtengo eskaintza. Udal ordezkariak nabarmendu zuten "pozik" daudela Emakumeentzako Jabetze Eskolak herritarren artean izan duen harrerarekin. "Erabiltzaile dezente animatu dira honezker eta are gehiago izatea nahi dugu", adierazi zuen Igleziasek.

## Eskola materiala erosteko dirulaguntzak

Iraileko malda arindu asmoz, beharra duten familiei eskola materiala erosten laguntzeko 15.000 euroko laguntza lerro bat prestatu zuen Lasarte-Oriako Udalak. Horiek jasotzeko zenbait balditza bete behar zituzten eskatzaileek. Jaso dezaketek ekar-

pena urtean ingesatzen duten diruaren arabera da: 25.000 euro edo gutxiago jasotzen dutenek, 110 euroko laguntza dute; 25.001 eta 33.000 euro artean ingesatzen dutenek, berriz, 90 euro; eta 33.001 eta 40.000 euro bitartean dabiltzanek, aldiz, 50 euro. Dirulaguntza horiek herriko komertzioetan gastatu behar dituzte.

## 'Ezmezean' laneko aurrerapen kantua argitaratu zuen Maialen Aristegik

Maialen Aristegi kantautore lasarteoriatarrek *Ezmezean* izeneko maketa ondu zuen, grabatutako bere lehenengo sorkuntza lana. Motorrak berotu eta herritarren interesa piztu asmoz, *Bilatu gabe aurkitutakoak* aurrerapen kantua atera zuen, zenbait plataformatan entzungai jarrita: YouTube, Bandcamp, Soundcloud, eta abar, irailaren 29an.



'Ezmezean' lanaren azala. TXINTXARRI

## Kaleetara itzuli ziren, presoan eskubideen alde

Irail amaieran itzuli zen Azken Ostirala: Lasarte-Oriako sareko antolatutako mobilizazioan 75 bat pertsonak parte hartu zuten. Euskal preso, iheslari eta deportatu guztien eskubideen aldeko aldarriak zabaldu zituzten Elizatze plazatik abiatu eta Oken-dora iritsi arte. Errepikatu zuten ez dutela "inolako pribilegiarik" eskatzen, salbuespen egoera indargabetu eta lege arrunta aplikatzea baizik, hau da, "euskal preso guztiak etxera bidean jartzea, besterik ez". Halaber, "etorkizunari eta elkarbizitzari ateak irekitzeko unea" dela uste dute. Horretarako Sarek bere helburuak azaltzen jarraitu behar dituela uste dute, izan ere, "euskal gizarteak berak, alderdi politikoek, sindikatuek, gizarte erakundeek eta herritarrek izan

behar dute salbuespenari eta arbitrariotasunari amaiera emateko giltza. Gutako bakoitzak badu bere esku gauzak aldatzea".

### Biltegiko produktuen eskaintza Stock Azokan

Herriko merkatariek Stock Azoka egin zuten irailaren 7tik 9ra eta biltegiko produktuak eskaini zizkieten lasarteoriarrei. Hamar dendek parte hartu zuten ekimenean: Mabel moda, Imagine jantzi denda, Alba moda, Iturbe zapata denda, Leder oinetakoak, Urruzola mertzeria, Olmi mertzeria, Deco 75 textil hogar, Arregui elektrizitatea eta Noaia bidaiak. Merkatarien elkarteak kideek azaldu zuten, kanpaina honen helburua denboraldi berriari hasiera eman aurretik, biltegian geratutako produktuak salgai jartzea da.



Bezeroak, erosten. TXINTXARRI

### Ferrak bilatu behar izan zituzten sariak lortzeko

Stock azokaren ostean, ekimen berria abiatu zuen Aterpea merkatarien elkarteak: Ferraren bila. Urre koloreko ferrak aurkitu, horie argazkiak atera eta sare sozialetan partekatzea izan zen jolasa. Erosketa bonuen zozketan sartu ziren parte hartzaileak; tokiko komertzioa sustatzen duen eragile horrek 2.000 euro banatu zituen txarretan.

### Nahia Zudaire, hirugarren Ur Irekietako Munduko Kopan

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire kidea igeriketa egokitutako Ur irekietako Munduko Kopan lehiatu zen Sardinian, Italian. San Teodoro hondartzan antolatu zuten kirol ekimena eta 3.000 metroko proban, S7-S10 mailan parte hartu zuen Zubietako gazteak, beste zortzi igerilarirekin batera; podiumeko hirugarren mailara igo zen.

## Lasartearra elkartearen mende erdia

Lasartearra elkarteak gogotik ospatu du bere 50. urteurrena aurten eta irailean hiru hitzordu izan zituen. Hilaren 9an, danborrada jendetsu eta alai egin zuten Zumaburu auzoan barrena eta ondoren hamaiketako. Aste gastronomikoa, berriz, 18tik 21era egin zuten. Herriko lau sukaldarik pintxo goxo bana prestatu zuten beste hainbeste egunetan. Bazkidearen eguna 24an izan zen: meza, poteo girotua, bazkaria eta omenaldiek osatu zuten egitaraua.



Lasartearrako kideek Zumaburu danbor hotsez bete zuten. TXINTXARRI

### Egoitz Rodriguezi omenaldi xumea

Gorengoen Mailako taldearen partidak ikustera joatera ohituta daudenei arraroa egiten zaie oraindik eskuin nahiz ezker hegaletara begiratu eta Egoitz Rodriguez jokatzeko ez ikustea, 10zenbakidun kamiseta urdin-beltza soinean.

Alebinetatik hasi eta lehen taldera iritsi arte, hamabost denboraldiz jokatu du Ostadarren. Gutxi dira kolore urdin-beltzei horrenbeste denboraz leialak izan eta kirol ibilbide osoa Lasarte-Oriako klub horretan jorratu dutenak, eta, horregatik, irailaren 23an merezitako omenaldia jaso zuen Ostadar-Lengokoak partida hasi aurretik, ekainera arte taldekide izan zitueneren



Egoitz Rodriguez omendu zuten Michelingo zelaian. TXINTXARRI

eta Imanol Bardaji lehendakariaren eskutik. Aldageletatik jaitsi eta ilara luzea osatu zuten bi taldeetako jokalariek eta entrenatzaileek. Segidan atera zen Rodriguez, Bardaji alboan eta

Dani Lopez eta Julen Lopez kapitainak atzeraxeago. Zelai erdira iritsi, makil eta argazki bana jaso eta ohorezko satea egin zuten.

### Jon Martin, bikain Youth League-n

Jon Martin herritarra UEFA Youth League txapelketa lehiatzen hasi zen Real Sociedad taldearekin. Sause, Real C eta Ohorezko jubentzian osatutako taldea D multzoan dago eta Milango Inter, Salzburg eta Benfica izan zituen aurkari lehen taldearen antzera. Egutegiari dagokionez ere, Champions Leagueko egunekin bat egin zuten gazte taldearen norgegiagoek eta abenduaren 12ra arte luzatu zen lehiaketako lehen fasea. Beraz, lehen neurketa hilaren 20an jokatu zuten Zubietan eta Milango Interrekin neurtu zituzten indarrak; hiruna berdindu zuten. Lasarte-Oriako defentsa hamaikakoan atera zen zelaira eta lan ederra eginez, bi gol sartu zituen bigarren zatian.



Jon Martin. REAL SOCIEDAD

### Chourraut, Munduko txapelketako finaleratik kanpo

Maialen Chourraut Eslaloneko Munduko txapelketan lehiatu zen irailaren 19tik 24ra, Lee Valley-en, Britainia Handian. K1 eta Kayak kros modalitateetan parte hartu zuen herritarra. Kanal ezaguna zuen lasarteoriarra; 2012ko Joko Olimpikoetan bere lehen domina eskuratu zuen, brontzea. Oraingoan, K1 lehiaren finalerako atera geratu zen. Finalerdiko saioan ederki ari zen herritarra, baina palarekin kanalaren beheko jo eta denbora galtzeaz gain ate bat ukitu zuen. Kayak kros lehiaren ere finalerdira iritsi zen Chourraut. Baina gerora irabazle izango zen Kimberly Woods britainiarra ongi itxi zion bidea herritarri jaitzian eta finalera sailkatzea ezinezkoa izan zen. Bakarkako lehiatan finalerako egotetik ez bazuen ere, K1 mailako taldekako proban zilarra jantzi zuen Lasarte-Oriako piraguistak. Hilaren 19an, Olatz Arregi eta Laia Sorribesekin batera taldea osatu zuen. Jaitzian denbora onena egin zuten, 15. atean egindako akats batek bi puntuko zigorra gehitu zien, ordea. Horri esker Australiak eraman zuen urrea.

### LOKEko judokak, lanean

LOKE Judoko kideek ederki hasi zuten hilabetea. Irailaren 1etik 3ra Zarautzen egin zen VIII. Euskadiko Judo Training Camp jardunaldietan parte hartu zuten. Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Errioxa eta Frantziako judokak bildu ziren bertan eta, besteak beste, Carmen Solana bilbotarra eta Nage No Kata modalitateko Mun-

duko txapelkun Glatenferd Escobar eta Miguel Bermudez kolonbiarrak izan zituzten irakasle. Maialen Chourraut kiroldegiko tatamian, aldiz, 4an izan zen lehen saioa. Aurten ere adinaren arabera astelehen, asteazken eta ostiraletan ordutegi ezberdinetan ari dira judokak lanean, Gorka Aristegi entrenatzailearen aginduetara.

### 250 parte hartzaile V. Mendi Festan

Eguraldi paregabea lagun, ehunka pertsonak parte hartu zuten irailaren 24an Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteak (LOTME) antolatutako ekimenean. Martxa luzeak mendizaleak izan ziren lehenak eguna agurtzen. Goizeko 07:00etan atera ziren Antonio Mercero plazatik; aurretik 26,5 kilometro eta 1.350 metroko desnibel positiboko bidea zuten: Belkoain eta Andatza mendieta gailurrak. Bi ordu geroago, martxa motzari ekin zioten eta umore onean Andatza mendiko bidea hartu zuten guztiek. Guztira 250 pertsona (92 martxa luzean eta 158 motzean) iritsi ziren helmugara eta bertan mokadu ederraz gozatu ahal izan zuten indarrak berreskuratzeko.



Mendizaleak, irteera gunean eta helmugan. TXINTXARRI

### Maialen Aristegiren lehen estudioko lana: 'Ezmezean'

Maialen Aristegi kantautore lasarteoriatarrek *Ezmezean* izeneko maketa argitaratu zuen urri hasieran, lau abestiz osatua: *Udazkena Gasteizen*, *Sorgin-gurpila*, *Bilatu gabe aurkitutakoak* eta *Errauts apur bat*.

### 'Barraskiloez baino bat gehiago' nobela argitaratu zuen Ane Labakak

10-11 urteko Sara izeneko neskatu bat da Ane Labaka Mayoz herrietarrek argitaratutako *Barraskiloez baino bat gehiago* nobelaren protagonista. Bere gurasoek banandu egingo direla jakinaraziko diote, eta eszena zehatz horretatik abiatuta garatuko da kontakizun guztia. Horrela, ordura arteko familia egonkorra zalantzan nola jartzen den, eta nola berregituratuko den jaso ahal izango dute irakurleek.

Lasarte-Orian jaio zen Labaka, 1992. urtean eta bertsolaria eta idazlea da. Euskal Ikasketak egin zituen, Gizarte Antropologiako Masterra eta Ikasketa Feministak eta Generokoak. 2019. urtean *Bertsolaritza feminismitik (bir) pentsatzen* liburua sortu zuen Miren Artetxe Sarasolarekin batera, eta, 2021. urtean, berriz, *Algara mutilatuak* saiakera kaleratu zuen. 2018. urtean *Ezpainetakoa* album ilustratua ere argitaratu zuen (Peru Abarka saria lortu zuen), eta baita *Toto-toto* haurrentzako albuma ere; 2021. urtean izan zen azken hori. Iaz, 2022an *Erradikalak* antzerki liburua ere ondu zuen.



Labaka, libururekin. EREIN

### Antzinako irratien erakusketa bat herrian

Javier Soler bildumagile donostiarrak *Sonidos en el recuerdo / Soinuak gogoan* antzinako irratien erakusketa ireki zuen Antonio Mercero aretoan. Gazteta-

tik, gutxi gorabehera 17 urte zituenetik datorriko irratiekiko zaletasuna Javier Solerri. Gogoan du gurasoen etxean bizi zenean hasi zela horiek pilatzen. Baditu, besteak beste, duela 90 urteko irratia, 1930. urtekoak. Horiek dira Solerren kuttunenak, "antzinakoenak". Bertaratzen direnek, ikusiko dituzte baita ere Bigarren Mundu Gerrako gerra gurdi bateko irratia bat, edota 1933. urteko Alemania naziko aparatua bat ere bai; azken hori semeak handik ekarria.

### Sudurgorrien urbetetze festa berezia kultur etxean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak 35 urteko ibilbidea ospatzen aritu dira azken hilabeteetan *Urteak bete abenturak bizi* ikuskizunarekin. Herriz herri ibili ondoren, etxean, Lasarte-Orian egin zuten azken emanaldia. Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioa bete zuten haur eta gurasoek barre eta dantza egin zuten ia ordu eta erdiz. Abesti eta pasadizo artean, Panpoxara igo zen hirukotea eta bidaia honetan lagun egindako beste pertsonaia berezi ere igo ziren oholtzara. Sudurgorriak maitasuna ematen eskuzabalak direnez, beraien urtebetetze festa TXINTXARRI-rekin partekatu nahi izan zuten, urriaren 1ean 30 urte bete zituelako. Hala, oholtzara igo ziren lantaldeko bi kideei koloretako aterkia oparitu zieten, "euskararen aterpe" baita herri aldizkaria. *Zorionak zuri* abestea nahikoa ez, eta *Maite zaitut* ere dantzatu zuten elkarrekin.

### Sasoeta auzoko jaiak, aurtengo azkenak

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxea omenduz ekin zieten festei Sasoetako auzotarrek. Hiru egunetan zehar makina bat jardura aurrera eraman zituzten (danborrada, zuzeneko kontzertuak, herri bazkari eta afariak, txikidiskoa, 80. hamarkadako musikan girotutako gaua...). Antolatzaileen helburua da jai horiek garai batean izan zuten ospea berreskuratzea. Ez dira gaizki ari.

### Scalextric erraldoia kultur etxean, zirkuitua gogoratzeko

Lasarteko Zirkuituaren mendeurrena ospatzeko ekimenen artean, I. Auto Txapelketa Digitala egin zuten kultur etxeko hitzaldi aretoan. Gunearen ia luzera bera zuten scalextric pista jarri zuten bertan eta dozena bat lagunek

parte hartu zuten. Lasarte-Oriako kirol zinegotzi Goizalde Pildainek sakatu zuen irteera adierazi duen semaforoa martxan jartzeko botoia. Pantailan argi berdeak ikustean abiatu zituzten kotxeak eta lehiakideen zerrenda agertu zen jarraipena egiteko.

### Adineko lasarteoriatarrek omendu zituzten

Biyak Bat elkarteko kideek urri hasieran gauzatu zituzten Adineko Omenezko Asteko azken jarduerak. Besteak beste, IX. Ibilaldi Neurtua egin zuten Oken-dotik abiatuta. 24 bikotek parte hartu zuten eta izena ematerik izan ez zutenetako batzuk haiekin batera joan ziren, beren denborak kontuan hartu ez arren. Hurrengo egunean, berriz, aitortza egin zieten aurten urrezko ezteiak bete dituzten hamasei bikoteri. Ama Brigitarren komentura kalejiran joan ziren, trikiti eta pandero doinuekin. Haiekin batera egin zuten bidea Agustin Valdivia alkatea, Lourdes Acevedo zinegotzia eta Biyak Bat elkarteko zuzendaritzako zenbait kidek. Oroigarri, lore sorta eta opariak banatu zizkieten eta data



Michelingo bazkaria. TXINTXARRI

berezia gogoratzeko, Arantzazuko Ama parrokiako eskaileretan talde argazkia egin zuten. Ospakizuna birbiltzeko bazkaria egin zuten Michelingo frontoian.

### Zorigaitzoak, inspirazio iturri

Chirigota de Fermín y Antoñito taldeak *Tó me pasa a mí: 'Los desgraciaitos'* ikuskizunaren emanaldia egin zuen Manuel Lekuona Kultur Etxean, eta herrietar ugari bertaratu zen saioa ikusteko. Puerto del Realeko taldeak, musika, kritika eta umorea uztartu zituen, halakoetan ohikoa den moduan. Chirigotaren zatiak azaltzeaz gain, kantatutakoaren atzeko historiaren be-



Jende ugari parte hartu zuen urteurren festan. BEÑAT ARROYO

## TXINTXARRI aldizkariak, 30 urte

Ttaku Kultur Elkartearen aitza jaio zen TXINTXARRI aldizkaria, euskara herriko etxe eta komertzio guztietara eramateko asmoz. 1993ko urriaren 1ean argitaratu zuen lantaldeak lehen zenbakia eta festa erraldoi bat egin 30 urte geroago, urtemuga berezi hori ospatzeko.

ri ere eman zieten: Covidaren ondorioz, bertan behera utzi beharreko ikuskizunak, La Palmara egindako bidaia gorabeheratsua... Egia izan ala ez, gogotik barre eginarazi zieten ikusleei.

### Palestina askatzeko eskatu zuten ehunka herritarrek

Urriaren ekin zion Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak herrialde horren aldeko ekintzak antolatzeari, *Genozidioa gelditu, Palestina askatu* lelopean. Lehen elkarretaratzea Okendo plazan aurrera eraman zuten eta ehunka herritarrek bat egin zuten deialdiarekin. Antolatzaileek manifestu bat irakurri zuten amaieran eta Israeli eskatu Palestinan egiten ari den "sarraskia" gelditzeko.

### Lasarte-Oria, erregio etxeetako emakumeen topagune

Gipuzkoako Erregio Etxeen Federazioak deituta, 44 emakumeek parte hartu zuten Erregio Etxeetako Emakumeen Topaketan, herriko Extremadura Etxeko eta Semblante Andaluzeko kideek, besteak beste. Lasarte-Oria eza-gutzeaz gain, egitasmoaren helburua emakumeek elkarre horietako bakoitzan duten parte hartzeari buruz gogoeta partekatua egitea izan zen.

Txu-txu tren batean igo eta herriko zenbait toki ezagutu zituzten partaideek, hala nola, Ama Brigitarren komentua edota Oria auzoa. Horrez gain, udal-

batzar aretoan Agustin Valdivia alkatearekin bildu ziren eta honek egindako lana eskertu zuten emakume horiei guztiei: "Zeuek, zeuen dedikazio eta pasioarekin, norberaren erregioaren herentzia eta sustraiak bizirik mantendu dituzue, horien guztien ulermena eta batasuna sustatzearekin batera".

### Okendo, andaluziar kulturaren erakusleho beste behin

XX. Aste Kulturala aurrera eraman zuten Semblante Andaluzek. Aurtengo egitaraua bi egunetara mugatzea erabaki zuten antolatzaileek eta Okendo plazako karpabetarik egon zen. Goizetako ekimenak haurrei begirakoak izan ziren (jokoak, txiki diskoa...), eta, arratsaldekoak, helduentzakoak (kontzertuak, kirol saioak, jateko eta edatekoak...). Jarduera arrakastatsuenak emanaldi eta emanaldi artean egindako flamenko dantzaldiak izan ziren.



Herritarrek, dantzan. TXINTXARRI



## Garagardo azoka egin zuten Saustatxo elkarteak

Saustatxo elkarteak urtero bezala garagardo azoka aurrera eraman zuten urri erdialdean. 55 bat lagun bildu ziren Uzturre plazako egoitzan kutsu alemaniarreko menuaz eta garagardoaz gozatzeko. Hiru saltxitxa mota, chucruta, patata purea eta ukondoa jan ondoren, sagar streuse-larekin biribildu zuten otordua.

## Eskualdeko ibilbideetan barrena ibili ziren

Buruntzaldeko ibilbideen eguna aurrera eraman zuten. 08:00etatik 14:00etara bitartean hainbat herritara animatu zen eskualdeko bost ibilbideetako bat egi-tera. Ostadar Ipar Martxako kideek ez zuten hutsik egin, baina ez ziren bakarrik izan. Lehen orduan, 50 lagunek izena eman zuten Elizatze plazan jarritako kontrol puntuan. Platano eta zereal barratxo banarekin batera, zigiludun txartela eman zieten, helmugan hori erakutsita oparixoa jasotzeko baliagarria. Jardueraren xedea jarduera fisikoa egitea eta landa eremu naturala ezagutzea da.



Ipar martxalariak. TXINTXARRI

## Udazken Festa egin zuten Zabaletako auzotarrek

Ostiral arratsalde berezi eta polita pasatu zuten Basotxo plazan bildu ziren auzotarrek. Zabaletako auzo elkarteak Udazken Festa antolatu zuten urtaro horri ongiatorria emateko. Haurrek udazkenari lotutako marrazkiekin mural bat osatu zuten eta amaitzean elkarteko lokalean jarri zuten ikusgai. Ondoren, afari merienda egin zuten plazan bertan erretako sardinekin, bizilagunek ekarritako patata tortillekin. Gazta, txorizoa eta bizkotxoa ere izan zituzten aukeran. Hori dena Samba Badago taldeak girotu zuten iluntzean.

## Ibilbide oso bati aitortza

Lau hamarkadatan zehar idatzi du Txema Valles kazetariak Lasarte-Oriaren egunerokotasuna, *El Diario Vasco* hedabidean. Komunikabide horretako nahiz TXINTXARRI aldizkariko zenbait lankide ohirekin elkartu zen lasarteoriatarra urri erdialdean, elkarrekin bazkaldu eta ibilbide oparo horretako hainbat pasadizo gogoratzeko. Lavie Gastrobar jatetxean egin zuten otordua.



Txema Valles, bere ibilbidean izan dituen zenbait lankiderekin. TXINTXARRI

## Barre egin bitartean hausnartzeko saioa

Bea Egizabal clown lasarteoriatarrek bakarrikzeta saioa egin zuten Virgen de Guadalupe Extremadura Etxean. Ikusmina sortu zuten herritarren artean, lepo bete baitzen aretoa. Ikus-entzuleek barre ederrak egin zituzten umoristaren ateraldiekin eta baita hausnartzeko hainbat gako jaso ere, sistema heteropatriarkalarekin eta feminismoarekin zerikusia dutenak, nagusiki. Ikuskizunaren aurretik luntxa egin zuten bertaratutakoek.

## LOTMEko kideek Gambo Beltza mendiko igoeraz gozatu zuten

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) hamaika kide Pirinioetako Tena bailarara, Huescara bidaitu zuten. Helmuga Gambo Beltzako tontorra zen, 3.051 metrokoa. Horretarako Baños de Panticosatik igo ziren mendizaleak. Goiz esnatzeagatik, bidean egusenti ederraz gozatu zuten. Bideko elurrak ez ziren eragotzi gailurrera iristea. Atsedeen pixka bat hartu eta jaitsiera arazorik gabe egin zuten. Irteera horretan paisaiak txundituta



Gambo Beltzara igotzen. LOTME

geratu zirela nabarmendu zuten mendiko elkarte horretako kideek.

## Denboran bidaia, dantzaren bidez

Ziomara Homaetxea, Node eta Dab taldeen *Nun batu dira gure ahotsak?* dantza ikuskizunaren emanaldia egin zuten kultur etxeko auditorioan. Euskal Herriko hiru konpainien beste hainbeste piezarekin osatua, batutako hiru ahots dira. Denboran bidaia da, izandakoa, garena eta izango garena lotzen dituen testuinguru bakarrean, soinu eta mugimenduaren bidez.



Dantzariak, lanean. TXINTXARRI

## Iñaki Petxarroman saritu zuten Kazetarien Elkargoak

Ingurumen Kazetaritza Saria eman zion Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Kazetarien Elkargoak Iñaki Petxarroman herritarri. *Berria* egunkarian dihardu kazetari gisa, gai horrekin lotura duten artikuluak idatzi eta argitaratzen. Hedabide horri egindako adierazpenetan, "urte askoko lanaren aitortza" dela esan zuten eta aintzatespena, indibiduala bainoago, kolektiboa

dela, berripaper horrek "ingurumen gaiei garrantzia eman dielako hasiera-hasieratik".

## Laura Igea eta Juan Vicente Martin igerilariak saritu zituzten GIF galan

Gipuzkoako Igeriketa Federazioak urteroko GIF gala aurrera eraman zuten Donostiako Kirol Etxean. Denboraldiko sariak banatu zituzten modalitate desberdinetan eta Buruntzaldea IKTko bi kidek aintzatespen bana jaso zuten, Laura Igeak eta Juan Vicente Martinek hain zuten ere. Ekainetik irailera egindako Itsas Zeharkaldiko Ligako sariak etxeratu zituzten.

## Borobilean Elkartea eratu zuten, herritarren arteko komunikazioa sustatzeko

Komunitatea osatzen dutela eta komunitateak osatzen dituela sinetsita, herritar talde batek Borobilean Elkartea sortu zuten Lasarte-Oria, Euskal Herria eta mundu osoko gaien bueltan informazioa, hausnarketa, eztabaida eta, batez ere, aurrez aurreko harreman komunikatiboa bultzatzeko. Gauzak horrela, Joseba Sarrionandia idazle eta pentsalaria eta Iñaki Petxarroman kazetaria gonbidatu zituzten lehen saio irekiera, Antonio Mercero aretora.

Aurreikusitako zitekeen moduan, harrera bikaina izan zuten hitzorduak; aulki bakar bat ere ez zen hutsik geratu. Areago, izan dziren eserlekutzat zorua hartu behar izan zuten entzule apur batzuk. Aulkiek, gainera, borbila osatu zuten; berariaz kokatu zituzten horrela elkarteko kideek. Horrek bete zuten elkarrearen helburuetako bat: aretoan

bildu direnak "elkar ikusi eta begiratzea".

Saioari hasiera emateko, ekimeneko kideetako batek hartu zuten hitza, Ixiar Arteagak, eta elkartearen aurkezpen labur bat egin ostean, bi gonbidatuak aurkeztu zituen, Iñaki Petxarroman eta Joseba Sarrionandia, hitza beraiei emateko gero.



Borobileanen hitzaldia. TXINTXARRI

## Bi gizon irteera baten bila

Pez limbo taldeak *Itsas behera* antzezlan oholtzaratu zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean. Beraiek sortutako munduan isolaturik dauden bi gizon irteera baten bila dabilta. Ez gogo gehiegirekin, badakitelako dauden tokian ondo daudela. Batak bestea du eta elkar zaintzen dute. Beraien arteko solasaldian go-goeta egingo dute gai potloez, egunerokoari aurre egitea kostatzen bazaie ere.

## Prest daudela eta gai direla aldarrikatu zuten

Adimen desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoko postuak eskuratzeko duten eskubidea ikusaraztea da Atzegiren aurtengo sentsibilizazio kanpainaren helburua. *Ni prest nago, eta Gipuzkoa?* izena du egitasmoak eta zuzenean interpelatu ditu erakundeak, norabide horretan urratsak egin ditzaten. Legez, pertsona horiei tokien %2 dagozkie. Joana Regalado herritarrek Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzan lan egiten du eta bere esperientzia partekatu zuten agerraldira joandakoekin.

Ordenantzako oposaketako azterketa Madrilen egin zuten eta akats bat bera ere egin gabe gainditu zuten, hori bai, "ordu asko" sartu eta gero. "Gureak-eko" tutorearekin astero bi orduko eskolak izaten nituen, saio indibidualak ere bai, baina, horrez gain, ia edozein tarte baliatzen

nuen ikasteko: lanera sartu aurretik eta ondorengo tartearak, treneko bidaiak, asteburuak, jaiegunak...".



Joana Regalado herritarra. TXINTXARRI

### Euskadiko Mendiko Txapelketa irabazi zuen Aitor Manso pilotuak

Aitor Manso gidariak Euskadiko Mendiko Txapelketako azken hitzordua jokatu zuen Azpeitian. Urrakira igoera proban bigarren postua eskuratu zuen herritarrak sailkapen nagusian eta 9. mailako garaile izan zen. Lortutako emaitzak aipatu lehiaketako garaikurra eman zion gidari gazteari.

Era horretara, bere helburua lortu zuen herritarrak. Urte intentsoa eta gogorra izan da aurtengoa berarentzat, Euskadiko zein Espainiako probetan parte hartu eta lehiaketaren bi aurpegiak bizi izan dituelako: "Gauza onak eta txarrak izan ditugu aurtan. Espainiako txapelketako Fitoko proban kolpea hartu genuen eta hurrengo proban Valdorrasen podiumera igo ginen. Gure lehenengo podiuma maila horretako lehiaketa batean. Hurrengo proban motorra hautsi genuen eta Talex M3a alokatu behar izan genuen Euskadiko probak egiteko".

### Villabonako I. Erraldoi Topaketan parte hartu zuten LOZETek eta Oaintxe in deu! txarangak

Besamotza elkarteak Villabonako I. Erraldoi Topaketa aurrera eramane zuen. Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat herritako erraldoi konpartsek parte hartu zuten bertan, horien artean Lasarte-Oriek ere bai. Baina ez ziren horiek bertan aritutako herritarrak bakarrik izan, ondoan izan zituzten Oaintxe in deu! txarangako kideak ere, eta

## 26. kros herrikoa, boluntarioena

Giro ederrean aurrera eramane zuen Ostadar SKTk 26. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa. Korrikalari, patinatzaile edota ipar martxalari, 700 kirolarik baino gehiagok osatu zuten ibilbidea.

Horrelako kirol ekimen bat boluntarioen lanik gabe gauzatzea ezinezkoa denez, antolakuntzak langile bolondres horiek guztiak omentzea erabaki zuten.



Korrikalari batzuk, Kale Nagusia zeharkatzen. TXINTXARRI

ederki gozatu zuten denek ala denek. Villabonako kaleetan barrena dantzan ibili ziren, eta, eguerdian, indarrak berreskuratze aldera, bazkari herrikoa egin zuten. Eta ez ziren esku hutsik itzuli etxera; izan ere, konpartsa parte hartzaile guztiak txapela bat jaso zuten oroigarri gisa.



LOZET elkarteko zenbait kide, Villabonako topaketan. TXINTXARRI

### Herriko merkatariek Bularreko Minbiziaren Aurkako Mundu Egunarekin bat egin zuten

Bularreko Minbiziaren Aurkako Mundu Egunarekin bat eginenez, osasun etxearen aurrean batu ziren Aterpea elkarteko zenbait merkatarik. Azpimarratu zuten aipatu gaixotasunaren aurkako borroka "gizarte osoaren konpromisoa" dela. Eta hain zuzen ere, eginkizun horrekin bat egiten dutelako egin zuten agerraldi hori.

Gogorarazi zuten gaixo dauden emakumeen artean mota horretako minbizia (bularrekoa) dela pairatzen duten ohikoena. Honako datu hau ere ezagutarazi zuten: "Zortzi emakumetik batek izango du bularreko minbizia".

Iaz, hau da, 2022. urtean zenbat kasu atzeman ziren ere azaldu zuten: 1.739.

### Maialen Chourraut, Espainiako txapelketako podiumean

Eslalon modalitateko Espainiako txapelketa lehiatu zuten Segre kanalean, La Seu d'Urgell-en (Lleida). Maila ezberdinetako bakarkako zein taldeko lehiaketak jokatu zituzten eta Maialen Chourraut herritarra K1 mailako podiumetan izan zen; bakarka hirugarren postua eta taldeka lehena eskuratu zituen Lasarte-Oriako palistak.



Maialen Chourraut. TXINTXARRI

### Torrecillas de la Tiesa herrian jaiotakoek urteroko bazkaria berreskuratzen zuten

Extremadurako herri horretatik Lasarte-Oriara eta beste eta beste toki askotara bizitzera etortako 144 lagun elkartu ziren Oianume jatetxean. Batu diren 26. aldia izan da, azken hitzordua baino lau urte geroago; pandemiagatik egin behar izan zuten etenaldia.

Coro Murillo da antolatzaileetako bat eta TXINTXARRI-ri

kontatu zionez, oso ongi pasa zuten eta Oianume jatetxeok emandako zerbitzua "oso ona" izan zen. Hauxe izan zen menua: ondo nahaskia, itsaski budina, etxeko foiea, legatza eta arkumea. Araeta jatetxean egin zuten aurreneko bazkari topaketa Torrecillasen jaiotako lagunek, 1995. urtean. Geroztik, beste 25 aldiz elkartu dira. Hitzorduek, ziur asko, gehiago izango lirakeke pandemiagatik izan ez balitz. 2019an eseri ziren azkenekoz jatetxeren bateko mahaien bueltan, eta, lau urte geroago, ekimena berreskuratzea erabaki dute. "Gure gurasoek ekin zioten honi, guk hartu dugu ardura orain eta laster gazteek egitea nahiko genuke, gure seme-alabek", nabarmendu du Muri-llok. Bapo bazkaltzeaz gain, abestu eta dantzatzeko aukera izan zuten, musikari talde bat Oianumen izan baitzen haiekin.

### Konponbiderako Giltzak dinamika zabaltzera deitu zuten Azken Ostiralean

Konponbiderako Giltzak dinamika aurketu zuen Sare Herri-tarrak Gernikan. Lasarte-Oriako taldeko kide Pili Kastresanak azaldu duenez, "salbuespen neurriari atea itxi eta euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko atea irekitzeko asmoz" sortutako tresna da. Ekitaldi hartan parte hartu zuten norbanako esanguratsu ugarik eta eragile sozial, politikoko eta sindikalen ordezkariak zabalak. "Etxera itzultzeko bidea eraikitzen jarraitzeko boronda-tea adierazi eta konpromisoa hartu zuten beste behin ere".

igorraren gehiengoa beteta duten presoek esporetan kanpo

beren zigorra betetzeko beste modu batzuk aplikatzea galerazten duen legerik ez dela ere gogoratu dute, baina horiek beharrez, albuespen legegia ezatzen zaiela. Hala ere, aurre-rapausoak egiten ari dira "nahi baino mantsoago bada ere" eta orain "iraganeko atea itxi eta etorkizuneko atea irekitzeko unea da".

### Gau Beltza ospatu zuten Zabaletako auzotarrek

Adin guztientzako egitaraua prestatu zuten Zabaleta Auzolan elkarteko kideek. Aurpegi eta kalabaza margoketarekin ekin zioten arratsaldeari, eta txokolate eta gaztain jatea egin gero. Ostean, auzoa erabat ilunduta, beldurrezko ibilbideei ekin zieten; adinka banatu zituzten Basotxo plazan bildutako haur eta gazteak, eta auzoko txokoetan barrera ibili ziren. Kandlek argizatutako bidea egin zuten eta noizean behin sustoren bat



Gau Beltza ospatzen. TXINTXARRI

edo beste jaso zuen batek baino gehiagok. Garrasi ederrak bota zituzten. Ttakun Kultur Elkar-tearen Faktoria egitasmoko gazteek eman zioten amaiera ekitaldiari, pintxo potearekin.

### Arimek hartu zuten Sasoeta

Halloween festa ospatu zuten Sasoetan, auzo elkarteak eta udalak antolatuta. Aurpegi beldurgarriak margotu zizkieten haurrei izuaren ibilbidea egiteko gero. Motorrak berotuta, ez ziren gutxi izan San Marcial plazan jarritako hilerrira bertaratu zirenak. Domu Santu egunaren bezperan euren hilotzat ateraziren arima, izaki eta munstroak, Sasoeta auzoa erabat hartzeko. Jakin zuten Halloween festa ospatuko zutela bertan eta jai girora batu ziren.

**Fermin Gonzalez Arregi herritarrak 100 urte bete zituen** Senide eta lagunez inguratuta itzali zituen Fermin Gonzalez Arregi herritarrak 100. urtebetetze tartaren kandelak. Urtemuga berezia izanik, udal ordezkarien bisita ere jaso zuen: Uzturre plazako bere etxean izan ziren Agustin Valdivia alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako buru Lourdes Acevedo.

Gozozale amorratua izanik, Adarra eta etxeko tartarekin ospatu zuen mendeurrena, merienda ederra eginda. Ondoren, argazki album bat hartu eta zenbait pasadizo gogoratu zituen senideekin batera, irudiak berrikusterakoan betaurrekoak jantzi beharrik gabe.



Ospakizun ekitaldia. ISAAC FARRE

### Herritar ugari parte hartu zuten manifestazioan

Milaka pertsona manifestatu ziren Bilbon, euskararen eta hizkuntza eskubideen aldeko aldarriak ozen zabaltzekoan. Bertan izan ziren baita ere lasarteoriatar ugari, horietako zenbait Borobileen elkarteak antolatutako autobusean joandakoak.

### 'Txapasen kaxa magikoa' disko-liburua aurkeztu zuten pailazoek

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek labetik atera zuten haien lan berria: *Txapasen kaxa magikoa*. Protagonista nagusia Josu Txapartegi *Txapas* da, besteak beste gure herriko Xumela koruko zuzendaria dena. Talde horretako kide ugari izan ziren disko-liburuaren aurkezpenean, Zarauzko Modelo aretoan. Musika moldaketak Xabier Zabalak egin ditu, Arantxa Urbek idatzi du ipuina eta Irimarrak ilustratu. Esan bezala, Txapasen sorkuntza lana hartu dute oinarri eta istorio zirraragarri bat osatu, aipatu diziplina artistikoko horiek guztiak uztartuta.

### Ander Goenaga surflaria, munduko laugarren

Ostadar Inklusio taldeko Ander Goenagak Estatu Batuetan jokatu zuten Munduko Txapelketan

parte hartu zuen, Espainiako selekzioarekin. Azaroaren 7tik 12ra egokitutako surfeko kirolari onenak bildu ziren Kaliforniako Huntington Beach hirian eta Goenagak Prone 2 mailako kobreako domina jantzi zuen. Lan ona egin zuen lehen egunetik talde urdin-beltzeko kirolariak. Hiru sailkapen saioetako bitan lehen postua erdietsi zuen eta bigarren faserako sailkatu zen arazorik gabe. Horretan ere bere onena erakutsi zuen olatu gainean Ostadarreko kideak eta finala lehiatzeko txartela lortu zuen. Azken saioan Goenagak Davi Teixeira brasildarra, Jose Martinez estatu batuarra eta Tomoki Fujiwara japoniarren aurka neurtu zituen indarrak; zuen zortetik izan olatuetan eta laugarren postuan amaitu zuen lehia.



Goenaga, lehiatzen. ISA SURFING

### Antzerkia, antzerkiaren barruan

Perigallo Teatro taldeak *Cabezas de cartel* antzezlanaren ekarri zuen Manuel Lekuona Kultur Etxera. Hogei bat lagun bertaratu ziren *Cimarron* obra prestatu nahi duen Urugallo taldeko bi aktoreen arteko elkarriketara. Autofikzio lanean halako prozesu batek azaleratutako kezka, ahuldade eta beldurrak, kontraesanak, prekarietatea... ageri dira. Erabakiak hartzerakoan balioei eutsi edo bestelako bideak hautatu behar izateak dakarren ezinegon ere, baina hori dena umoreari ere tartea eginda.

### Oroimenean izan zituzten, Memoriaren Egunean

Lasarte-Oriako motibazio politikoko indarkeria kasuak gogoan izan zituzten azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean. Ohi bezala, Askatasunaren parkean egin asmo zuten ekitaldia, baina eguraldi txarra medio, Mercero gunera lekualdatu zuten. Bertan

izan ziren udaleko alderdi politikotako ordezkariak, baita Bizikidetzat taldekoak ere; herritar batzuk ere bat egin zuten deialdiarekin.

### Opera gau baten atzean dagoena ezagutzen

Umorea eta oholtza gainean aritu ziren artisten ahots zoragarriak uztartuta, emanaldi ederra aurrera eraman zuen Sasibil Lirika Elkarteak: *Una noche en el teatro de la ópera*. Kultur etxera joan zirenek gogotik gozatu zuten ikuskizunaz eta opera emanaldi baten atzean dauden kontu eta kalapita guztiak ezagutu.

### Bush Doctors Band reggae taldeak dantzan jarri zituen herritarrak

Galiziatik etorri ziren musikariak, furgonetan. Errepidearen egoera txarragatik, behar baino beranduago iritsi ziren herrira eta aurreikusitakoa baino ordubete geroago ekin kontzertuari. Edonola ere, merezi izan zuen itxaronaldiak, kalitatezko reggae doinuak ekarri baitzituen Bush Doctors Band taldeak. Jalgi kafe antzokian bertaratutakoek gogotik gozatu eta dantza egin zuten, emanaldia amaitzear zela iragarterakoan behin eta berriro jotzen jarraitzeko eskatuta.

### Euskal Jaiak koloreztatu zuen asteburu grisa

Euskal Jaiak aurrera eraman zuen Ttakun Kultur Elkarteak, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin. Herriko txistularien taldeak esnatu zuen herria, erdigunean barrena doinu alaiak lau haizetara zabaldua. Alaia, alaia, azokaren hasierako itxura ez zen horrelakoa, baina goizak aurrera egin ahala bizia hartu zuen Okendo plazak, batez ere, eurriak tregoa apur bat eman zuenean. Feriara bertaratu zirenek aurrera izan zuten herriko artisauen produktuak erosteko. Azokako giroa bizien zegoenean hasi ziren gorputzak astintzen Plaza Dantza egitasmoa lagunak. Astero entseatzeko elkartzen zirenek osatu zuten borobila hasieran, zabaldu egin zena gero, zenbait herritar dantzatzera animatu zirenean.

Erketz EDT dantza taldeko lagunak eta jantzi tradizionalen ikastaroan parte hartzen dutenek utzita, euskal jantzien erakusketaxo bat jarri zuten Jalgi kafe



Ezker-eskuin: Artetxe, Pagola eta Labaka. TXINTXARRI

### Bertsolaritza eta umorea

Bertso clown saio dibertigarri batez gozatu zuten herritarrek Jalgi kafe antzokian. Bea Egizabalek jarri zituzten gaiak Ane Labaka, Miren Artetxe eta Eli Pagola bertsolariei, gai jartzaileen eskuliburuaren berri eman ostean.

antzokian, arratsaldean. Hori aitzaki gisa hartuta ekin zion bakarriketari Bea Egizabal clownak, taberna horretan bertan. Euskara eta euskal kultura izan ziren bere saio umoretsuaren ardatzak. Egitaraua giro ederrean itxi zuten antolatzaileek, Oaintxe in deu! txarangak giro-tutako poteoarekin. Erdiguneko zenbait tabernatan barrena ibili ziren.



Plaza Dantza saioa. TXINTXARRI

### Lasarte-Orian izan zen 'Anbotoko Mari'

Logela Multimedia taldeak *Anbotoko Mari* antzezlanaren emanaldia egin zuen. Familia ugari animatu ziren antzerkiaz gozatu bitartean tarte eder bat igarotzera. Gari, mutiko txoro bat, lagunekin haserretu eta bakarrik abiatuko da Anbotora. Mariren haitzuloan sartu eta harri magiko bat aurkituko eta lapurtuko du, harria lagunei erakusteko asmoarekin. Anbotoko Mari atzetik abiatuko zaio mendirik mendi eta Garik gero eta magia txoroagoak egingo ditu harriarekin. Tartaloren, iratxoaren eta

beste jeinu batzuen laguntza eskatu beharko du Marik, harria berreskuratzeko.

### Jose Ignacio Echeverria eta Juan Rodriguez herritarrak, Gipuzkoako txapelketako podiumean

Bakarkako Gipuzkoako Xake txapelketak jokoan dira denboraldi honetan. Xake jokalaria lurraldeko hainbat txokotan batzen dira maila ezberdinak lehiak aurrera eramateko. Zenbaitek, honezkero, amaitu dute. Superbeterano mailan, adibidez, Jose Ignacio Echeverria eta Juan Rodriguez lasarteoriatarrek Gipuzkoako Txapelketako podiumean izan dira.

### Zurmailu taldeak, egurrez egindako artelanak ikusgai

Urtero moduan, Zurmailu zur-lanketa taldeko ikasleek lan ederrak eraman zituzten Antonio Mercero aretora. Ikusgarriak eta bereziak, arretaz begiratuta, zenbat ordutako lanaren emaitza diren pentsarazi zuten. Esaterako, aretoaren sarreratik gertu zegoen xake jokoa. Nábardura txikiena ere bazuten Francisco Javier Peñak 10 urteko ilobarentzat egindako taulak, eta bereziki, piezek. Zuriak, baserritarrak, laia eskuan; beltzak, arrantzaleak, arrauna eusten. Edo aurrez aurre zeuden Julian Beitiak eta Gerardo Zarzuelok zizelkatutako Picassoren *Guernica* ezagun bana.

## Berpizkunde garaiko doinuak eta hitzak Musika Topaketen saiko ardatza izan ziren

Danok Kide elkarteak antolatutako XVIII. Musika Topaketen barruan, Zaria Koru Eskolak *Come again* kontzertua eman zuten Ama Brigitarren komentuan. Berpizkunde garaiko musika eta William Shakespeareren testuak uztartu zituzten emaldian, bi maitasun istorio oso bestelakoan berri emanez.

## Aurtengo olerki eta kontakizun onenak saritu zituzten kultur etxean

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako literatur lehiaketetako aurtengo sariak banatu zituzten Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Ohiko gidoia jarraituz egin zuten ekitaldian, aintzatetsiak izan ziren idazleek euren ahaleginari aitortza jaso zuten. Guztira, 331 literatur lan aurkeztu dira aurten.

## Txerri hiltzearen jaia ospatu zuten Extremadura Etxean

Txerriez gozatu eta heste beteak egiteko aukera izan zuten Virgen de Guadalupe Extremadura Etxera bertaratu zirenek. Hiru egunez luzatu zen egitaruaren barruan animalia horren inguruan antolatutako ekimen gehiago aurrera eramanez, hala nola, herri bazkari eta afariak.

## Behobia-Donostia proban parte hartu zuten herritarrek

20 kilometro dira Behobia eta Donostia artean daudenak, baina azaroaren 12ko giro beroarekin bati baino gehiagori luzeago egin zitzaion lasterketa. 25.899 lasterkari eta patinatzaile bildu ziren Behobiako irteeran eta pixkanaka ibilbidetan barrena zegoen ikusleen animoek hauspotuta Boulevardeko helmuga igaro zuten gehienek. Lasarteoriatarrek eta herriko taldeetako kideak ere izan ziren bai korrika baita patinen gainean ere.

## Andoni eta Garazi Iparragirre: "Ezinezkoa da bizitakoak hitzetara ekartzea"

Euskal musika eta dantza tradizionalak erakutsi dituzte lasarteoriatar senideek, Txinan. Bi aste pasatxoko bidaia egin zuten eta horretan bizitakoak kontatu zituzten.

Txinako Taiyuan hiriko Xanshi probintzian aurrera eramanez zuten Qingxu Interna-

## Greba feminista orokorra, herrian ere

Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitutako lanuzteak oihartzuna izan zuten Lasarte-Orian ere. Herritar talde batek batzorde bat eratu eta egun osoko egitaraua aurrera eramanez azaroaren 30ean. Jendetsuena eguerdiko kalebira izan zen, herriko zaintzaren egoera erakustea helburu izan zuena. Goizean goiz Tajamar errotondako sarbide denak itxi zituzten.



Kalebira aldarrikatzaile bat egin zuten eguerdian. TXINTXARRI

tional Folk Art Festival jaialdian parte hartu zuten Donostiako Gero Axular dantza taldeak, eta bertako musikari eta dantzari dira Andoni Iparragirre Tolaretxipi (Lasarte-Oria, 1968) eta Garazi Iparragirre Martinez (Lasarte-Oria, 2004) aita-alabak. "Herri txiki bat" bezala aurkeztu zieten bertakoek euren bizilekua, baina 5.000.000 biztanleko eremu batekin egin zuten topo lasarteoriatarrek. Ez horrekin bakarrik, ordea. "Sekulako esperientzia" bizita itzuli dira etxera, "oso pozik" eta oraingoa ere bizipen guztiak asimilatzeke.



Iparragirre aita-alabak. TXINTXARRI

## Kortajarena anaien laugarren postuan amaitu zuten kopa

Real Automovil Club Vasco Navarra (RACVN) antolatutako IX. lur gaineko kopa amaitu da. Lodosa, Cuzcurrita, Baños de Rioja eta Borjako jardunaldien ostean, azaro erdialdean, Corellan (Nafarroa) erabaki ziren garaileak. Ekaitz eta Mikel Kortajarena anaiak RACVN kopako podiumetik kanpo geratu ziren gutxigatik; laugarren izan dira. Corellako Hiria V. proban, aldiz, 1. mailako zazpigarren izan ziren euren Ford Focusa gidatuz eta kopako hirugarren sailkatuak bigarrenetik ehuneko gutxitara.

## Lodifobiaz eta elikadura nahasmenduaz hizketan

Azaroaren 25aren atarian, askotariko adineko herritarrentzako ekintzak antolatu zituen Lasarte-Oriako Udalak, horien artean, *Lodifobia eta elikadura nahasmendua* mahai ingurua. Hiru hizlari gonbidatu zituzten gaiaz hitz egitera: Yolanda Iglesias ACABE Gipuzkoa elkartearen koordinatzaile eta psikologoa; Mijo Lizaraburu militante transfeminista, filosofoa eta Euskal Herriko I. Jardunaldi Lodiak-en antolatzailea; eta, Maddi Etxeberria, nutrizionista eta anti dieta mugimenduen aldarrikatzailea. Idoia Garzes herritarrek moderatu zuten saioa.

## Saleta eta Zumeta errugbi jokalariek Lusitanos garaitu zuten Europako Superkopian

Alex Saleta herritarra -hasierako hamabostekoan jokatu zuen- eta Beltzak RTko harrobiko kide Urko Zumeta Castilla y Leon Iberians taldearekin lehiatu ziren Europako Superkopian, Valladoliden; Lusitanos taldea 18-13 garaitu zuten.

## Bookstart Euskadi egitasmo kultural eta sozialarekin bat egin zuten Lasarte-Oriak

Gure herriko 0 eta 3 urteko haurren irakurzaletasuna bultzatzea da Bookstart Euskadi egitasmoaren helburua, garai horretan garatzen dituztelako umeek haien "gaitasun kognitibo" guztiak. Lasarte-Oriako Udalak iragarri zuten euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko liburu bana jasoko dutela adin horretako kideak dituzten familia guztiek, doan. Irakurketa saio batzuk ere au-

rera eramanez dituzte Udal Liburutegian, egitasmo horren nondik norakoak ezagutzera emateko.

## Ostadar SKTko zikloturistek irteera denboraldia amaitu zuten, elkarrekin bazkalduta

Martxoan hasi zuten denboraldia txirrindulariek. Gipuzkoan eta beste hainbat lurraldeetan barrena 31 irteera egin dituzte aurten eta guztira, 2.141 kilometro batu dituzte. Udaberri elkarrekin itxi zuten kirol sasoa, otordu eder bat eginda mahaia- ren bueltan.

## Musikariek gogotik ospatu zuten zaindariaren eguna

Kultur etxeko oholtza, kalea nahiz San Pedro parrokia, toki horiek guztiak ezin aproposagoak izan ziren Santa Zezilia eguna ospatzeko. Udal Musika Eskolako ikasleak, Oaintxe in de! txaranga eta herriko txistularien taldea eta Alboka Abesbatza izan ziren musikariek zaindariari omenalditxo egin zietenak.

## Gaur egungo eta etorkizuneko zaintza ereduaz hausnartu zuten borobileen bilduta

Zaintzaren arloa jorratzen duten profesional, ordezkari politiko eta erabiltzaileak gonbidatu zituen Borobileen Elkarteak bigarren saio irekiera, alor hori ardatz izan zuten greba feminista orokorraren atarian. Jakin mina piztu zuten gaiak herritarren artean eta txiki utzi zuten Oriarte Landaberri ikastetxeko gela. Alor pribatura mugatzen den eredu eraldatzeko egin beharrezkoak gogoeta eragiteko saio bat aurrera eramanez, pertsona hauek Oriarte Landaberri ikas-

tetxera gonbidatuta: Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta, Maitelan kooperatibako kide Elisa Pereda, Atsokabak egoitzako langile Esti Amantegi eta Margari Ibeas, Zorroaga Fundazioko behargin Sorkunde Agirre, Izan Inurri elkartearen kide Sandra Barkaiztegi eta Norma Andrade, Asunak talde feministako kide Susi Sanz, Olatz Arozena sindikalista eta zaintza prestazioak behar izan dituen pertsona baten senide Patxi Azpiroz. Borobileeneko kide Ixiar Arteagak moderatu zuten solasaldia.

## Esanahi berria eman zioten Mirentxu eraikinari

Islada Ezkutatuak elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin lanikidetzan, monolito bat jarri zuten Mirentxun. Etxearen inguruko lorategian dago eta bere esanahiaren berri eman zuten ekitaldi bat eginda. Harriak Frakismoaren jazarritako herritarrek gogoratu eta omendu nahi ditu.

Zenbait udal ordezkari eta 60 bat herritar bertaratu ziren. Hitz egiten lehena Islada Ezkutatuak elkartearen lehendakari Mailu Arruti izan zen. Agurraren ondoren, Joxea Mugu-ruza taldekideari eman zion hitza, eta honek laburbildu zuten harriaren zergatia: "Frakismoaren basakeria pairatu zuten gizon, emakume eta haurrak oroitzeko". Agustín Valdivia alkateak, Joseba Tapia musikariak eta Jose Zato eragileko kide zenaren alaba batek ere parte hartu zuten.

Urtarrilean jarraituko dute oroiaren historiaren aldeko ekimenak aurrera eramanez. 14an, igandearrekin, Oria auzoan dauden argazki historikoen segidari irudi bat gehituko diote, 1936ko gerran aritu zen Rosa Luxemburgo bataloiko kide batzuen hain zuzen ere. 12:00etan hasiko da aipatu jarduera hori.



Mirentxuko monolitoa. TXINTXARRI

**'J' hizkidun pertsonen jaialdia** Jostariak, jakintsuak, jatunak, jatorrak, jenioidunak... Jhizkidun pertsonen eguna ospatzera deitu zituen herritarrak Jalgune elkarteak emanaldia aurkeztu zuenean. Eta horietako askok bat egin zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean. Jaizaleak baziren, bat bera ere ez zuten gogaitu.

Euskararen Eguna izateaz gain, abenduaren 3a, Aniztasun Funtzionalaren Eguna ere bada; eta haren bezperan ospatu zuen Jalgunek bere urteroko jaialdia. Jotaz beterikoa izan zen, nahiz eta justu estilo horretara ez ziren animatu dantza gogotik egin duten kideek. Hizki horren itxura zuten puxikek apaindu zuten eszenarioa eta harekin hasten diren adjektiboek leku berezia izan zuten saioan. Aurkezpena egin zuten bi lagunek, Anek eta Edortak, maisuki laburbildu zuten: "Jotadun herria gara, herri jatorra", edo aurretik kideak gazteleraz zehatzago esandakoa ere: zalaparta eta parranda zalea –jaleo eta jarana, jatorrizkoan–.



Jalguneko kideak. TXINTXARRI

### Errumaniaren eguna ospatu zuten Gizarte Etxean

Decebal elkarteak antolatuta, Errumaniaren Eguna ospatu zuten Gizarte Etxean. Gipuzkoa hainbat txokotan bizi diren 80 bat lagun elkartu ziren jaioterriko plater ohikoekin osatutako menua bazkaltzeko, eta ondoren, Bagey Stoika eta Millenium taldeak jotako musikarekin nahi beste dantza egin zuten. Txikiek margotzeko eta jolasteko txoko bat izan zuten baita Aita Noelen bisita aurreratua ere.

**Araeta sagardotegiak irabazi zituen pintxo bideko bi sariak** Araeta sagardotegia izan da Aterpea elkarteak antolatutako IX. Pintxo Bidearen irabazlea, sari profesionala nahiz herrikoia poltsikoratuta; *Cantala* izeneko jaki bat aurkeztu zuen, itsasoko eta lureko gutiziak uzartzen zituen bieira gratinatua zermana. Bertako sukaldari Carlos Huapayak jaso zituen bi garai-

kurak, eta, hunkituta, horrelako egitasmoak eta "sukaldaritzaren artea" bultzatzen jarraitzeko eskatu antolatzaileei. Aurten parte hartu duten bost establezimenduen artean 700 bat pintxo saldu zituzten.



Carlos Huapaya. TXINTXARRI

### Maria Dolores Aliri Añorga lasarteoriarrak 100 urte egin zituen

Zubietan jaioa da Maria Dolores Aliri Añorga, eta, kontatu duenez, denbora asko eman zuen bidaiatzen; Kanariar Uharteetan, Bilbon, Gijonen, Salamancan, eta beste hainbat lekutan bizitu zen, eta duela 40 bat urte itzuli eta Lasarte-Orian, bertan finkatu zen arte. Martxoaz geroztik Villabonako Santiago egoitzan bizi da, baina "herrira itzultzeko gogo" duela aitortu du. Leku horietatik guztietatik gustukoa zein duen galdetuta, honakoa esan du: "Gustura bazaude leku guztiak gustatzen zaizkizu; gustura ez bazaude, ordea, ez zaizu bat bera ere gustatzen".

Senitartekoak eta bizi den egoitzako langileak ondoan, Agustin Valdivia alkatearen eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren bisita jaso zuen, baina ez hori bakarrik, lore sorta bat ere oparitu baitzioten.

### Ordezkarri lasarteoriarrak ere izan zituen aurtengo Durangoko Azokak

58. Durangoko Azokak hartu zuen hilabete hasieran Landako Gunea. Euskal liburu eta disko ugariren erakusleihoak bost egunez zabaldu zituen ateak, milaka bisitari eta erosle jasota. Ekoizleen artean, izan zen, noski, sortzaile lasarteoriarrak; horien guztien artean topatu ditu TXINTXARRI-k Martin Anso Txertoa argitaletzeko editorea, Aintzane Usandizaga eta Pablo Barrio idazleak, Katxiporretako

kideak eta Rukula musika taldea. Azken horrek *Traganarru* izeneko bere azken lana aurkezteko baliatu zuen ekimena. Herriko sortzaile gehiagorekin topo egin ez arren, beste lanik ere ikusi zuen aldizkariak azokan, hala nola, Ane Labakaren *Barraskiloei baino bat gehiago* liburua, Erein argitaletxearen postuan.

### Euskaraz, kulturaz eta sorkuntzaz hausnartu zuten

*Euskara, sortzaileak eta kultura* mahai ingurua aurrera eraman zuen Ernai Lasarte-Oria taldeak Xirimiri elkarteak. Bertara gonbidatu zituen Martin Anso idazlea, Maialen Aristegi musikaria eta Intza Alkain aktorea. Euskararen Egunaren harira antolatutako ekimena izan zen.

### Ixabel Zuaznabar gogoan, herriko boluntarioak omendu zituzten

Parrokietako Misioen taldeak Lasarte-Oriako boluntario guztiak aintzatesi zituen Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren harira, Ixabel Zuaznabar eta Juanjo Mendiluce senar-emazteak bereziki, Atsokabar auzoko parkean dagoen monolitoaren aurrean lore eskaintza bat eginda. Horren aurretik bi herritar horien omenezko meza bat aurrera eraman zuten San Pedro parrokian.



Loreak jartzen. TXINTXARRI

### Dotore jantzi zuten datorren urteko egutegia

*Lasarte-Oria zure objektiboan* lehiaketako sariak banatu zituen Lasarte-Oriako Udalak, datorren urteko egutegirako aukeratu dituzten hamabi argazkien egileak udaletxera gonbidatuta. Ion Zugastik ateratako irudi ederra eraman dute azalera: Brunet Enea parkeko kioskoa ikus daiteke, udazkeneko kolore eta argiekin. Berarekin elkartu zen TXINTXARRI egun batzuetara, sari horri eta oro har argazkilaritzari buruz hitz egiteko. Haren



Lizardiren omenezko saioaren uneetako bat. TXINTXARRI

## Idatzi ezin izan zuten kronika

Eman zienaren truke ia hiru orduz gogoratu zuten euskaltzale lasarteoriarra Euskararen Egunean. Manuel Lekuona Kultur Etxea bete egin zen ezagutu zuten makina bat lagunez. Bere bizitza eta ibilbidea gogoratzeko bertsotan eta kantuan egin dute, baita pasadizo eta bitxikeriak partekatuta ere. Ohiko bertso saio bat izan balitz, beste askotan egin moduan, kronika berak idatziko luke; baina bere omenezko hau beste batzuek josi dute hitzez eta emozioz.

hitzetan, argazkiak egiteak "eguneroko errutinatik ateratzen" laguntzen dio. Kirol arloko irudiek lan egiten du batez ere.

Gainerako saridunak hauek izan ziren: Olga Krasovska, Mikel Izquierdo, Paula Iraola, Maria Victoria Herranz, Shyma Isabel Castillo, Iñigo Gomez, Javier Pastor, Sara Etxeberría, Tamara Galdin, Jose Angel Hidalgo eta Ramon Zugasti.

### Joseba Sarrionandia eta Andoni Egaña gonbidatu zituzten Jalgiren 25. urteurrena ospatzera

Jalgi kafe antzokia 1998ko urtarilaren 24ean zabaldu zuten, beraz, mende laurden bete du aurten. Tarte horretan euskararen eta euskaltzaleen bilgune izan da, baita makina bat kultur ekitaldiren gune ere. Azkena, hilaren 14koa: Andoni Egaña bertsolariak eta Joseba Sarrionandia idazleak makina bat gairi buruz gogoeta egin zuten ekimenera bertaratutako 50 bat ikus-entzuleekin batera. Solasaldiari ekin aurretik, Ttakun Kultur Elkarteak oroigarri bat eman zion gaur egun taberna kudeatzen duen Ana Sarasolari.

### Agurreko birako emanaldia egin zuten Golde Apple Quartet taldeak

Ia lau hamarkadako ibilbidea ixteko, agurreko birari ekin zioten urrian eta hilabete erdialdean geldialdia egin dute kultur etxean. Egin dituzten ikuskizunak gainbegiratu eta abesti arrakastatsuenak aukeratu zituzten, ikuslegoak gustukoen dituenak. Nola ez, umorearekin uzartzen joan ziren emanaldian zehar eta abesteaz harago, musika sortzeko duten gaitasuna beste behin agerian utzi zuten. Saio bukaeran azken urteetan laukoteko parte izan den Mikel Urreizti batu zitzairen.



Amaierako boskotea. TXINTXARRI

### Irakurketaren magia partekatzen duen azeria

Anita Maravillas konpainiak *Andereño* txotxongilo ikuskizunaren emanaldia egin zuen Manuel Lekuona Kultur Etxean. Azeriak eskola bat du basoan eta animalia gutziek dute bertan beren lekua. Irakurtzen irakatsiko die, liburuek duten magiarekin liluratu, eta aske izateko hezkuntzak duen garrantzia ulerrarazita.

## Zero Settek Eguberri doinuz bete zuen San Pedro parrokia

Hastear zeuden Gabonetarako motorrak berotze aldera, Jose Manuel Crespok zuzendutako taldeak garai honetako abestei ezagunekin osatutako erreperitorioa jo zuen San Pedro parrokian. Bertaratu ziren berrogei bat lagunek sei akordeoi jotzaileek eta musikari batek jotako egitarauaz gozatu zuten.

## Udal Musika Eskolako ikasleek kurtso hasieratik landutakoa erakutsi zuten

Udal Musika Eskolako ikasleek hilabeteotan entseatutakoa taularatu zuten Eguberrietako kontzertuan, kultur etxeko auditorioko beheko solairua goraino bete zuten ikus-entzuleen aurrean. Solfeo ikasten hasi ziren gazte txoen gabon kanta batzuk abestu zituzten eta gero instrumentu ugariaren txanda izan zen, hala nola, gitarra klasikoa edota pianoa.



Iraola Hernandez anaiak. TXINTXARRI

## Lescun, erreken tokia baino askoz gehiago

Ostadar SKTko Mendi sailak Juan Mari Ansa mendizale lasarteoriatarra gonbidatu zuen Antonio Mercero aretora bere azken lanari buruz hitz egitera: *El circo de Lescun. Unas montañas de ensueño*. Azken hamabi urteak pasa ditu liburu eta ikus-entzunezko bana ontzen; azken hori proiektatu ostean egilearekin hitz egiteko aukera izan zuten saiora bertaratu ziren dozenaka herritarrek.

Esan bezala, azken hamabi urteak igaro ditu *El circo de Lescun. Unas montañas de ensueño* lana ontzen, presarik gabe eta egindako bideaz gozatzen. "Horrelako proiektu luzeek badiutuzte gauza onak, adibidez, detaile askoz gehiago sar ditzakezula eta lan sakonagoak egin". Hori da Ansaren liburuaren berezitasunetako bat, izan ere, mapa eta argazki ikusgarriez gain, Frantziar dagoen herriaren eta inguruko mendi txundigarrirei (*Pirinioetako Dolomitak* ezizenez

## Pertsonaia kuttunenak, herrian

Urteroko hitzorduari eutsita, hilaren 24an herrian izan ziren Olentzero eta Mari Domingi. Porrotx gaixo zegoenez, Xixuko ahatea eta Mari Teilatuko izan zituzten lagun eguerdiko desfilean zehar. Ondoren, txikien eskutitzak jaso zituzten, denak irakurri eta gauean zehar banatu zituzten opariak prestatzeko. Mendira itzuli dira honezkero, atsedean hartzera.



Lasarteoriatarrek bisitatzen zirenen Olentzero, Mari Domingi eta Xixuko. TXINTXARRI

ezagunak dira baita ere, Italia iparraldeko gailur horiekin duten antzagatik) buruzko kondaira eta istorio mordo bat bildu ditu. Esate baterako, Lescun hitzak zer esan nahi duen: "Neolitiko garaiko transhumante tribuen hizkuntza euskararen antzekoa zen, eta *Lats-gun* deitzen zioten eremu horri, erreka edo latsen tokia alegia".



Juan Mari Ansa, hizketan. TXINTXARRI

## Errugbi eskoletako txikiak ederki gozatu zuten topaketa

Urteari amaiera ezin hobe eta dibertigarria emateko, Beltzak, Zarautz, Bera-Bera, Atletico San Sebastian eta Hernaniko errugbi eskoletako 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoek topaketa izan zuten Michelin kirol gunean. Euren arteko lagunarteko partidak jokatu zituzten. Pausoz pauso errugbian trebatzen ari direla erakutsi zuten gaztetxoek eta zelai izoztuari aurre eginez, entseguak, lasterketak edo plakaketak egin zituzten. Amaitzean, Beltzak RTko beteranok prestatutako hirugarren denboraz gozatu zuten guztiek.

## Erakusleho dotoreena, Ventanas Alcar-ena

Pintxo bidean Araeta sagardotegiarekin gertatu bezala, erakuslehoen lehiaketako bi sariak, profesionala eta herritarrena, establezimendu bakar batek eraman ditu aurten: Ventanas Alcar-ek. Lantalde osoaren izeneara Ana Laureanok jaso zituen garaikurrak, eta, hunkituta, eskerrak eman zizkien lankide, gainerako partaide eta egitasmoan parte hartu zuten bezero guztiei. Kompetizio bat bainoago, eskaparateena "joko" bat dela nabarmendu zuen eta helburu garbi bat duela: lasarteoriatarrek euren udalerriko tokiko dendentan erostea, eta, bide batez, Eguberriak girotea.

## Aterpe eta goxotasun bila ibili ziren San Tomas azokan

Gabonekin batera iritsi zen negua, ongi iritsi ere: euriak ez zuten atsedean eman arratsalde osoan San Tomas eguneko azokan. Edonola ere, antolatzaileek eta ekimenean parte hartu zuten eragileek euren onena eman zuten giro atsegina sortzeko. Horretan asko lagundu zuten talogileen opil eta gaztaingileen gaztain goxoeak.



Talogileak, lanean. TXINTXARRI

## Oraina eta etorkizuna du euskal tradizioak herrian

Zortzi ikasleek osatu dute Euskal Jantzi Tradizionalen aurtengo taldea. Horien guztien artean, gainera, ikastaroak inoiz izan duen parte hartzailearik gazteena aritu da: Aizpea Barcina Etxebeste. Lan ederrak osatu dituzte denek ala denek aurten ere, Ione Artola irakaslearen gidaritzapean.

## Elkarlanari esker osatu zuten Gabonetako horma irudi koloretsua

Atsopakar egoitzan izan zen TXINTXARRI Gabonen atarian. Oriarte Institutuko ikasleekin elkarlanean egindako proiektu txo bat ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zen aldizkariko kazetariak. Eguberriak zoriontzeko postal apain bezain ederren sortu dituzte aipatu ikastetxeko ikasleek; lehiaketa bat ere egin dute sortu dituzten lan horien guztien artean ederrenak izendatzeko. Aldi berean, egoitzako egoiliarrek ere lan horretan aritu dira. Eskularen tailerlean egin dituzte eskulan eder horiek, psikomotrizitate fina landu eta Eguberrietako apaingarriak osatzeko asmoz.

## Martinezek, Olasagastik eta Andresek euren aitortza jaso zuten

2023aren hondarrean, kirolari onenei sariak banatu zituen Lasarte-Oriako Udalak. Ohi bezala, emakumezko eta gizonezko banari emandako urteko kirolari onenaren sariez gain, ibilbide bat ere aintzatetsi zuten. Paula Martinez gimnasta eta Markel Olasagasti golf jokalaririk jaso zuten egindako denboral-

diagatik saria, Amaia Andres atleta eta entrenatzaileak, berriz, Kirol Ibilbidearena.



Kirol galako une bat. TXINTXARRI

## Gabonei ongietorria eman zieten Albokak eta Emotio

Alboka Abesbatzak eta Emotio Taldeak Eguberrietako kontzertua eman zuten. Bete egin zen Ama Brigitarren komentuko kapera gabon kantez gozatzeko. Etxekoak aritu ziren lehenengo, gonbidatuak, ondoren, eta agurtzeko, bi kanta partekatu zituzten.

## Kantutegiari gainbegiratu egin zion Jon Maiak

Bertsolari zumaiarra *Kantu berri bat gara* lanaren bira egiten ari da eta horren barruko emandakia egin zuten kultur etxean. Poesia eta kantak uzartuta gainbegiratu ditu besteentzat egindako abestiak eta aproposa lan horretarako idatzitakoak.

## Maialen Chourraut, Nahia Zudaire eta Aiora Belartietak, Gipuzkoako Kirol Galan sarituak

Gipuzkoako Kirol Gala egin zuten Irungo Ficoba aretoan, hilaren 22an. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako ekitaldi horretan Maialen Chourraut eta Aiora Belartietak herritarrek zein Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire oholtzara igo ziren, sari bana jasotzera.

## Lasarte-Oriako Udalaren aurrekontua 42.174.469 eurokoa izango da 2024an

Udal gobernua osatzen duten PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien botoekin atera zuten aurrera aurrekontu proposamena: diruaren herena, 14.527.069 euro, inbertsio ugariara bideratuko dute, batez ere, Michelinen kiroldegi berri bat eraikitzen. Oposizio alderdiak ez dira gustura geratu proiektuarekin aurka egin baitzuten EH Bilduk eta ELOpek eta osoko zuzenketak bana aurkeztu. PP, berriz, abstenitu egin zen eta 11 emendakin partzial eraman zituen pleno aretora.

# KOMERTZIO TXIKI

# HERRI HANDI

## LASARTE-ORIA

# GREMIOAK



### BARNE-DISEINUA

## SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK
  - KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



### ITURGINTZA



## ELOLA ITURGINTZA

ITURGINTZA | GASA  
BEROKUNTZA | ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Galdara, berogailu eta  
termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06  
[elolaiturgintza@gmail.com](mailto:elolaiturgintza@gmail.com)  
LASARTE-ORIA



### IGELTSERITZA

## Uraitz, s.l.

### Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN  
VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



### ELEKTRIZITATEA

## ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)



### KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK



## ANORGAT TXIBI S.L.

### KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
  - Beira bikoitza
  - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
  - Ispiluak
  - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)



31. urteurrena

## ISU

### PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toloak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL



## ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?

[PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS](mailto:PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS) | 646 82 44 66

**Ttakun**

Kultur Elkartea

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

Euskara eta kultura bidelagun!



Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian  
On-line egiteko: [www.txintxarri.eus/bazkidetu](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu)

**Izen-abizenak:** \_\_\_\_\_

**NAN:** \_\_\_\_\_ **Jaiotze data:** \_\_\_\_\_


**Helbidea:** \_\_\_\_\_ **Herria:** \_\_\_\_\_

**Telefonoak:** \_\_\_\_\_

**e-maila:** \_\_\_\_\_

**Kontu korrontea (IBAN):** \_\_\_\_\_

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkartek urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Bidali postaz edo utzi bulegoan:  
Geltoki kalea, 4 behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:  
[www.txintxarri.eus/bazkidetu](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu)

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu; kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideak irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainitako betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz [datubabesa@ttakun.eus](mailto:datubabesa@ttakun.eus) helbidera.

Informazioa eta bazkidetzak: [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) • Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria • 943-37 14 48